# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2016-02-05
EGUBAKOITZA
671. ZENBAKIA
16. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM


## Candyren lantegiko ondasunak salgai ipini dituzte | 5

## Miguel Altuna institutu berria 2017-2018 ikasturterako gertu izango da | 4

Sagastiko parkea eta herri eskola handitzea, inbertsio nagusiak Antzuolan | 22



4.883 kilo elikagai bidaliko dizkiete sahararrei | 15



Gu Haziak Gara, gizarteratzeko lanean hazia ereiten | 9



ARRASATEKO DRAGOIAK

## Gimnasia aerobikoan erreferente

Espainiako txapelketako podiuma berretsi guran | 27

Ezkerretik eskuinera: Leire Ugarte, Maite Oliden, Maialen Gallardo eta Araitz Altube. | XABIER URZELAI

## Mozorroarekin jairik jai ibiltzeko aukera oparoa | Ikus 'Herriak' saila

# Milioi bat euro kultur ekipamendurako

Bergarako Udal Gobernuak aurrekontu proposamena aurkeztu du | 14

## SINADURAK


IÑIGO IÑURRATEGI | 6
6 | MAIDER ARREGI
ANE GOROSABEL | 10
14 | IGOR OIARBIDE
MARTIN ANTXIA | 18
20 | ALAZNE GURIDI
ANDER ETXEBERRIA | 40




ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Minbiziaren kontrako borroka irabazi dute
- Txakurrak erosi ala adoptatu?

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05


DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6
HERRIAK 9 | KIROLA 26
KULTURA 30 | GAZTEAK 33
ZORION AGURRAK 34 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36
ESKELAK 37 | NON-ZER 38





# Epele zabortegi modura erabiltzea ez dago "erabat" baztertuta

## Lapatxekoa "epe motzeko" irtenbidea dela dio Mankomunitateak

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Oraingo asteko astelehenean jakinarazi dute Lapatxeko zabortegian jarraituko dutela Gipuzkoa osoko zaborrak jasotzen, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak (GHK) eskatutakoa onartuz –ez dute onartu, hala ere, hura handitzeko eskaera–.

EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin onartu zen Lapatxen erabilera luzatzea –abstentzio batekin–, alderdi horietakoak dira-eta Urola Erdiko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako ordezkariak.

Azpeitiko zabortegiak beste bizpahiru hilabeterako gaitasuna du, kalkuluen arabera, hondakinak batzen segitzeko. Hortik aurrera, Jose Ignacio Asensio diputatuak iragarri zuen Gipuzkoako hondakinak Kantabriara –Meruelora– bidaliko dituztela, akordio oinarria badute bertakoekin, lau urterako. Hala ere, bitartean, Diputazioko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak beste konponbide batzuk aurkitzeko ahaleginetan jarraituko du; adibidez, egun martxan dauden zabortegi industrialen erabilera.

**"Saiatzen jarraituko dute"**

Hori horrela, Epeleko isurtegia erabiltzearen aukera hori ez du guztiz baztertuta ikusten Debagoieneko Mankomunitateak. Unai Elkorok, bertako presidenteak, hala adierazi dio Goienari: "Seguru bide horretan saiatzen jarraituko dutela. Lapatxeko akordioak 3 hilabeteko tregua ematen dio GHKri, baina epe motzeko irtenbidea da".

**"Aurrezkia nabarmena"**

Hori bai, hark adierazi du, era berean, Epelek zeregin hori betetzeko baldintza batzuk errespetatu beharko lituzkeela: "Egokitzapen obrak ziur beharko lirateke, baita ingurumen baimenak ere. Inbertsioak beharrezkoak dira, baina ez dugu sakonean aztertu. Edonola ere, ekonomikoki ez da arazoa, kostua Kantabrian ordaindutakoa baino merkeagoa da, duda barik, Lapatxen 78 euro inguru da tonako, baina kostua ez da hori, zaborrak Lapatxen jasotzearren adostutako prezioa baizik. Kantabriako prezio bera ordainduta ere bidaiak dakarren aurrezkia nabarmena litzateke", azpimarratu du mankomunitateko presidenteak.

**160.000 tona**

Gaur egun Azpeitiko zabortegira bideratzen den Gipuzkoako hondakin kopurua da 160.000 tona urtean.



Kamioia Epelen lanean. | MIRARI ALTUBE




# "Debagoiena Gipuzkoako zabortegi bilakatzea" nahi ez dutenek agerraldia egingo dute

## Otsailaren 16an egin dute hitzordua, Mankomunitatearen aurrean, 18:00etan

**U.M.** | DEBAGOIENA

"Debagoienean egin nahi duten zabortegi kutsakorrarekin arduratuta dagoen herritar talde" batek agerraldi publikoa deitu du otsailaren 16rako Debagoieneko Mankomunitatearen aurrean, 18:00etan. "Debagoiena Gipuzkoako zabortegia bilakatzea" nahi ez duten "eta kudeaketa garbiago eta osasuntsuago baten alde" daudenei egin diete bertaratzeko gonbita.

Herritar talde honek kezka adierazi du Epele izan litekeelako "Gipuzkoako zabor nahasiarentzako zabortegi berria". Diote "Gipuzkoako Diputazioa Debagoieneko Mankomunitatearekin negoziatzen" ari dela "Arrasate eta Bergara artean hiri hondakinentzako zabortegi bat" zabaltzeko, eta Epele dela horretarako "aukera gehien dituen lur eremua".

**"Arazoak" dakartzate**

Hortik abiatuta, hau salatzen dute: "Gipuzkoa mailan birziklatzen edo konpostatzen ez diren hondakin gehienak Debagoienean isuriko dira inongo tratamendurik eman gabe. Urtean gutxi gorabehera 100.000 tona zabor (hondakin nahasi) baino gehiago ekarriko dira, hemen (Debagoienean) 5.000 tona errefus eta nahastutako hondakin soilik (janari soberakinik gabe) sortzen ditugun bitartean".

Eta diote "mota honetako honetako zabortegiek arazo asko" sortzen dituztela, bai "osasunean, baita ingurumenean ere: usain txarrak, arratoi eta hegazti sarraskijaleen ugaritzea, kamioien joan-etorria, metanoa, lurraren okupazio handia, errekak eta akuiferoak kutsatzen dituzten lixibatuak..."

Hori horrela, azpimarratzen dute ez dutela nahi "zabortegi toxikorik gure eskualdean", galdera ere eginez: orain Epelekoa onartuz gero, "hurrengoa zer izango da, errauste plantaren eskoriak eta errauts toxikoak ere Debagoienera ekartzea?".

**Debagoieneko eredua**

Bada, hori guztia saihesteko, "Debagoieneko eredua" aldarrikatzen dute "alternatiba" modura, adieraziz "Europa mailan erreferente" bihurtu dela eskualdea "%78ko gaikako bilketa lortu dugulako", eta hori horrela dela "herri guztietan nahitaezko gaikako bilketa egiten dugulako", edukiontzi sistema erabilita edo kubo indibidualen sistema erabilita. Hori abiapuntu, diote "Gipuzkoa osoan gure birziklapen maila berdina lortuko balitz, gauzak oso bestelakoak" izango liratekeela eta ez genukeela "erraustegi eta zabortegi kutsakorren beharrik izango".

Salaketa egiteko ere baliatzen dute oharra, esanez badirudiela "ondo ari dena (Debagoiena kasu honetan) zigortu nahi dutela (zabortegi kutsakorra inposatuz), eta hori ez da onargarria. Ez dugu nahi arazoaren parte izan, soluziorako giltza baizik. Horregatik gai hau alderdi politikoen arteko ika-mikatik aldendu eta benetako konponbide baten alde lan egitea nahi dugu".

**Imanol Biain** | Oñatiko Natur Eskolako biologoa

# "Negua hain bigun joatea ez litzateke ona izango"

Martxoan loratzen diren lore asko lorean daude dagoeneko, zuhaitzak azkarregi esnatu dira, tximeletak lorerik lore dabiltza... ezohiko negua gabiltza izaten

T.MADINA./M.BELASTEGI | DEBAGOIENA

Udaberri trazako neguak ageriko ondorioak ditu naturan. Oñatiko Natur Eskolako Imanol Biainek negu bigunean klima aldaketaren zantzuak ikusten ditu.

**Zein da arrazoia?**

Zientzialariek esan beharko dute, baina nik uste dut aldaketa klimatikoaren zantzu batzuk dagoeneko igartzen direla. Aurtengoa benetan ezohikoa da, baina azken hamarkadetan, negu bigunak gogorrak baino gehiago egiten dabil, lehorte latzak ere bai, euri-te gogorrak ere bai ezohiko lekuetan... klima aldatzen dabilen zantzu batzuk badaude eta uste dut hori aldaketa klimatikoaren ondorioetako bat dela.

**Hori naturaren ohiko zikloan eragiten ari da?**

Bai. Ziklo guztiak klimak baldintzatuta egiten ditu: neguan, esaterako, egunaren iraupena, gauarena, tenperatura... faktore horien arabera naturak estrategiak ditu bizirauteko; lozorroan sartzeko, esnatzeko... Hori aldatzen den neurrian, ezohikoak diren jokabideak garbi-garbi azaltzen dira.

**San Jose loreak, esaterako, ikusten dira, eta horiek, normalean, martxo aldera loratzen dira.**

Martxoan loratzen diren lore asko ja lorean daude, eta, muturrera eramanda, otsailean loratzen diren zenbait lore, abenduan lorean zeuden. Nartzisoak, esaterako, Aizkorriko mendikatean 1.200 metrora, eta hori altu da, abenduan lorean zeuden. Ez da normala. Eta nartzisoen moduan, bada, urrebotoiak. Eta beste lore asko daude ernalduta, loraldia ematen; kasu batzuetan, bete-betean ere badaude.

**Zuhaitzetan ere nabari da.**



Imanol Biain. | GOIENA

## "Otsailean loratzen diren zenbait lore abenduan lorean zeuden"

Bai, esnatu dira. Fruta-arbola batzuk ere hasi dira loratzen. Nik urtero egiten dut jarraipena ea loraldia noiz esnatzen den eta ea datek bat egiten duten. Adibidez, okaran-loreak aurten urtarrileko hirugarren asterako ernaltzen hasita zeuden eta iaz esnatu ziren martxo hasieran. Hilabete eta astebeteko diferentzia dago, oso handia da hori; ez dira egun batzuk. Gero ikusiko dugu horrek aurrera jarraitzeko gaitasunik duen edo ez, baina esnatu, azkarregi esnatu dira.

**Eta animalien kasuan?**

Adibidez, egunotan tximeletak daude eta ezohikoa da sasoi hauetan lorerik lore ibiltzea; erleak eta erlabioak ere esna daude; hegaztiak udaberriko kantuekin ari dira bikotekide bila eta horrek esan nahi du habia egiteko prestatzen ari direla; saguzarrak esna daude. Eta, era berean, animalia asko lozorrotik esnatu dira edo ez dira lozorroan sartu.

**Neguari, baina, asko geratzen zaio; hemen ez da ezohikoa otsail edo martxoan hotza, elurra egitea. Hori izanez gero, zer gertatzen da aktibatu diren naturako elementuekin?**

Hotzaldirik ez badator, naturak jarraituko du bere erritmoa, loraldi horiek arraituko dute, txoriek habiak egingo dituzte... Baina hotza badator, elurra badator, askok galdu egingo dute aurtengo loraldia, aurtengo hazia, aurtengo fruitua eta aurtengo lehenengo kumaldia, behintzat, bai. Kasu horretan, batzuk gai dira bigarren kumaldia egiteko, bigarren loraldi bat egiteko, eta beste batzuk ez. Guztiondako, agian, ez da negatiboa. Positiboaren kasua, adibide bat ipintzeagatik, izan daiteke pinuaren beldarra edo *processionaria*. Hasi da pinuetatik jaisten, eta egunotan ikusi da mendian euren ilara tipikoetan. Orain, bat-batean, elurte bat badator, asko eta asko hil egingo dira; beraz, pinuari mesede egingo dio beranduko hotzaldi batek.

**Ikusiko dugu, bada, nola doan negua.**

Ez litzateke ona izango hain bigun joatea. Nire gusturako, hobea izango litzateke oraindik ere eten bat egotea; loaldi edo momentu gogorra egotea, elurte bat, gauza horiek bere tokian ipintzeko. Izan ere, hazi batzuek hotzaren kolpea behar dute ernaltzeko, eta ez badago, ez dago ernaltzerik. Hotza beharrezkoa da; gure natura ohituta dago bere zikloak aurrera jarraitzeko hotzaren beharrera.




Ezker abertzaleko ordezkariak prentsaurrekoan astelehenean. | M. TXINTXURRETA

# Hilaren 20an espetxeetara martxak egingo dituzte

Euskal presoen parte-hartzea bultzatu gura dute, gogoeta prozesurako ekarpenak jasotzeko

MAITE TXINTXURRETA | DEBAGOIENA

Debagoieneko ezker abertzaleak espetxeetara martxak antolatu ditu otsailaren 20rako. Azaroan hasi zuten Abian izeneko gogoeta prozesuaren baitan kokatzen da ekimen hau; hain zuzen, prozesuaren bigarren fasea hasiko dute orain, eta ahalik eta ekarpen gehien lortzea dute helburu; tartean, presoenak.

**Frantziara, aurrerago**

Hain justu, pasa den azaroaren zazpian ekin zioten ezker abertzalean Abian gogoeta prozesuari. Entzute eta harreman fasea amaitutzat eman dute, eta orain bigarrenari ekingo diote, eztabaida faseari.

Lehen fase honetan jasotakoarekin txosten bat egin dute, aste honen bukaeran eskuragarri izango dena. Txosten hori bera izango dute oinarri bigarren fasean zehar. Hala, fase horri ekiteko, otsailaren 27an hasi eta apirilera bitartean, Debagoieneko herri guztietan hiru batzar egingo dituzte. Euren burua ezker abertzalekotzat duten guztiei parte hartzera dei egin diete, elkarrekin gogoeta egin eta Euskal Herria askatasunera eramango duen bidea adosteko, astelehenean Arrasateko Kulturaten egindako prentsaurrekoan azaldu zutenez. Gogoeta horretan Debagoieneko hamazazpi euskal presoek ere parte hartzea nahi dutela nabarmendu zuten.

Hori dela eta, eztabaida fasea hasi aurretik, otsailaren 20an, eguaztena, Espainiako eta Portugalgo espetxeetara martxak egingo dituzte. Frantziako estatuan ere ekimenen bat aurrera eramango dute, baina oraindik ez dute zehaztu.

**Autobusak, nondik nora**

Arrasatetik, Aretxabaletatik, Eskoriatzatik eta Leintz Gatzagatik Jaengo espetxera joango dira; Antzuolatik eta Elgetatik, berriz, Herrerara; aramaioarrak eta oñatiarrak Topasera (Salamanca) joango dira; eta Bergaratik, Algecirasko espetxera. Autobusez egingo dituzte bidaiok. Bonuak hamar eurotan jarriko dituzte salgai, eta orduak, ibilbidea eta izena emateko modua aurrerago zehaztuko dituzte.

Goiena Klubeko otsaileko zozketa

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!




Reincidentes taldearen liburua + DVD + 2CD

(Bi ditugu zozketatzeko)

Parte hartzeko sariaren izena: Reincidentes




Azken Txorakeriak (3 liburu)
Kike Amunarrizen azken liburua
Parte hartzeko sariaren izena: KikeAmunarriz




Sarrerak
Arrikrutz kobetarako sarrerak
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz




Otarra
Bidezko merkataritzako produktuak
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

PARTE HARTZEKO:
E-postaz: kluba@goiena.eus
WhatsApp: KLUBA [ Saria ] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



Miguel Altuna Institutuan egindako muntaiak erakusten du, gutxi gorabehera, eraikin berrien itxura. | MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

# 2017-2018 ikasturterako gertu

- Langileen obra-etxetxoak orubean bertan dira; makinen zain daude, burokrazia kontu batzuk faltan
- Zazpi milioi euro pasa inbertituko ditu Eusko Jaurlaritzak ikastetxearendako instalazio berrietan

**UBANE MADERA** | BERGARA

Inbertsio zein ikusgarritasun aldetik nabarmenak izango diren instalazio berriak eraikitzeko lanak hastear dira Bergarako San Martin auzoan –burokrazia kontu batzuk faltan, egunotan ekarriko dituzte makinak–. Miguel Altuna Institutuarendako izango dira instalazio horiek.

Inbertsioari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak 7.332.657,70 euro inbertituko ditu azpiegitura horretan. Ondorengo urteetan, Gasteizko Zabalgana institutuarendako egingo duen azpiegiturarekin batera, eraikiko duten azpiegitura handienetakoa izango da Bergarakoa, eta ondorioz, Jaurlaritzak egingo duen inbertsio inportanteenetako bat ere bai.

Ikusgarritasun aldetik, berriz, 9.719,42 metro koadroko azalera hartuko duten bi eraikin egingo dituzte Bergarako iparraldeko sarreran, Candyrena zen fabrikaren pareko orubean; saihesbidetik ikusiko diren eraikinak, alegia.

Obrak Ferrovial Agroman enpresak egingo ditu, proiektuan zehaztutakoaren arabera, 20 hilabeteko epearen barruan. Hala, aurreikuspena da 2017/2018 ikasturterako bukatuta izatea eraikin berriak.

Instalazio berrietarako orubea gertu dago. Urbanizazio lanak 2008an gauzatu zituen Bergarako Udalak, 400.000 euroko inbertsioa eginda. Azkeneko asfalto kapa, erremateak... besterik ez da falta; horiek egingo dira obra bukatu ostean, Bergarako Udaletik zehaztu dutenez.

### Txiki eta zaharkituta

Aspaldidik datorren proiektua da orain gauzatzen hasiko dena; arrazoi batengatik edo bestearengatik, 15 bat urteko atzerapena eta hainbat aldaketa izan dituena. 2001ean hitzartu zuten, hain justu ere, Bergarako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak ikastetxearendako erabiliko diren lurren jabetza Udalak Jaurlaritzari emango ziola; trukatzea egitea, bestela esanda –gauzatzeko dago, baina horrek ez du eraginik izango obretan–.

Gauzak horrela, eta obren hasiera bertan ikusita, pozik daude Miguel Altuna Institutuan; izan ere, instalazioak handitzeko eta berritzeko behar handiak dituzte: "Batetik, jende gehiago dago. Bestetik, kontuan hartu behar da egungo ekipamenduak geroago eta handiagoak direla, makinak asko aldatu dira. Eta horrez gain, ikastetxea zaharkituta dago: ez dago igogailurik…", esplikatu du Josune Irabazalek, Miguel Altuna Institutuko zuzendariak.

### Bi eraikin elkarri lotuta

Behar horiek asetzeko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailetik emandako informazioaren arabera, Artabila inguruan eraikiko dituzten bi eraikinetako batean tailerrak, laborategiak eta aldagelak kokatuko dituzte. Eraikin horrek beheko solairua eta beste hiru izango ditu.

Bigarren eraikinean, berriz, ikasgelak eta administrazioari zein antzeko zerbitzuei –biblioteka– dagozkien esparruak egokituko dituzte. Orubearen hegoaldean eraikiko dute bigarren eraikin hau eta soto-erdia, beheko solairua eta lehenengoa izango ditu.

Bi eraikinok elkarri lotuta egongo dira, zubi moduko batekin; gaur egun institutuak Bergarako erdigunean dituen eraikinen ezaugarrietako bat den zubiaren antzera, alegia –eraikinen gaineko xehetasunak beheko zatiduran–.

### Parkinga faltan igartzen dute

Hala ere, azpiegitura berrien proiektuak hainbat aldaketa izan ditu urteetan: hasierako proiektua baino estuagoak dira eraikinak –zazpi metro estuagoak–, solairu bat gutxiago dituzte, eta ez dute aparkalekurik izango. Bada, azken horrek kezka eragiten du institutuko ordezkariengan: "Guretzat, hori oztopo handia da. Bagabiltza borrokatzen, behintzat, ea posible den egitura lagatzea edo parkinga bera lortzea; ze behin eraikina eginda parkinga ez bada aurreikusten, gero ezingo da egin. Hori bai, zentro berria herritik kanpo egongo da, baina bidegorria ere nahiko gertu dago eta ikasleek, behintzat, Bergarakoek oinez joateko ahalbidea badute. Dena den, Lanbide Heziketa aldaketan dago, gero eta gehiago erabiltzen da *dual* sistema: ikasleak daude ikasten eta lanean, hortaz, etorri, presaka bazkaldu eta joan egiten dira… beraz, autoaren erabilpena, nahi edo ez nahi, hor dago", esplikatu du ikastetxeko zuzendariak.

### Erronka berriak

Edozein modutan, eraikin berriekin asko irabaziko du Gipuzkoan erreferentziazkoa den Lanbide Heziketako Bergarako zentroak. Erronka berriei aurre egiteko beharko dituenak, besteak beste: "Urte asko daramatzagu lan anitzetan, erronka askorekin, enpresetatik oso gertu, sistema metodologiko berriak sartzen, *duala*, enpresei zerbitzuak ematen, graduondokoa ere badugu… Lanbide Heziketak aldaketa ekarri du, ja zentro integrala gara, eta horrek esan gura du autonomia handiagoa izan behar dugula, zerbitzu gehiago eman behar ditugula eta enpresetatik gertu egon behar dugula", azpimarratu du ikastetxeko zuzendariak.

## EGITASMOAREN KRONOGRAMA

**2001**
Bergarako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak lursailaren trukea adostu zuten.

**2007**
Exekuzio proiektua entregatu zuten eta lanen hasiera iragarri. Ez zen gauzatu.

**2008**
Bergarako Udalak lursaila egokitu zuen. 400.000 euro inbertituta.

**2009**
Bergarako Udalak obren baimena eman zuen.

**2011**
Proiektua aldatu, baimen berria eskatu eta Udalak onartu egin zuen.

**2015**
Urrian esleitu zituzten obrak. Eta 2016ko urtarrilean aurkeztu dute exekuzio proiektua.



U.M.

**JOSUNE IRAZABAL**
ZUZENDARIA

## "Hasierako prestakuntzan 500 bat ikasle ditugu eta beste horrenbeste etengabeko prestakuntzan"

Gipuzkoan, eta Lanbide Heziketari dagokionez, erreferentziazko zentroetako bat da Bergarako Miguel Altuna Institutua. Irazabal zuzendariak azpimarratu duenez, 1.000 ikasle inguruk aukeratzen dute urtero ikastetxe hori.

**2017-2018 ikasturterako bukatuko dituzte obrak, proiektuaren arabera. Ikasturte berria bertan hasiko duzue?**

Asmoa da urte horretan joatea. Badakigu gero gauzak ez direla hain erraz joaten. Ezin dugu aldaketa egin ikasleak dauden bitartean, poliki-poliki egin behar da, makineria guztia mugitu… Esperantza badaukagu, baina optimistak izanda.

**Izan ere, zenbaki esanguratsuak mugitzen dira zuen baitan, ezta? Ikasleen aldetik nahi dut esan…**

Bai Goizez eta bai arratsaldez mugitzen dira hemen ikasleak. Adinez nagusiak, gehienak; asko, ikasten eta lanean dabiltzanak. Gainera, kopurua gora doa. Batez bestekoa da hasierako prestakuntzan 500 bat ikasle eta etengabeko prestakuntzan beste horrenbeste. Etengabeko prestakuntzan ez dira urte osoan gurekin izaten; bi hilabetez, hilabete batez… ibiltzen dira, baina sartu-irten handia dago, goizetik gauera arte, bai.

## Bi eraikinen ezaugarri nagusiak

**TAILERREN ERAIKINA**

San Martin auzoko orubearen goiko partean eraikiko dute. 6.335,44 metro koadro izango ditu: beheko solairua eta beste hiru solairu. 98,60 metro luze izango da eta 10,40 metro zabal. Elektrizitaterako eta mekanikarako tailerrak egokituko dituzte bertan. Elektrizitaterako hamar ikasgela daude aurreikusita, erabilera anitzeko gela… Mekanikari dagokionez, berriz, 16 ikasgela-tailer –laborategiak, automatismo tailerrak, mekanikarakoak, soldadurarakoak, erabilera anitzekoak…– eta mekanizaturako propio egokitutako tailerrak sortuko dituzte.

**IKASGELEN ERAIKINA**

Orubearen beheko partean eraikiko dute, Candyrena zen pabiloitik gertuago. Eraikin hau tailerrena baino estuagoa eta baxuagoa izango da; 3.329,36 metro koadro izango ditu: soto-erdia, beheko solairua eta beste solairu bat. 69,35 metro luze izango da eta 23,11 metro zabal. Ikastetxearen administrazioa, zuzendaritza, biblioteka, irakasleen gela, erabilera anitzekoa… eta, oro har, Administrazio zikloari dagozkion ikasgelak egokituko dituzte bertan. Bi eraikinen artean bederatzi metro zabal den kalea izango da. Eta zubi batekin lotuta izango dira bi eraikinak, lehen solairuan.

# Candyren lantegiko ondasunak salgai ipini ditu multinazionalak

## Behin betiko bukaera ematen dio horrek langileen berrindustrializazio nahiari

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Bergarako Candy enpresa berrindustrializatzeko ametsa ezerezean geratu da, eta horren adierazle garbia da lantegiko ondasun guztiak salgai ipini dituela Candy-Hoover multinazionalak; izan ere, pabiloira sarrera oztopatzen duen hesian, Surplex enkante-etxearen ikurra eta harremanetarako telefonoa dituzten kartelak ipini dituzte. Bigarren eskuko makineria industrialean dago espezializatuta Alemaniako Surplex enpresa.

Langileen ordezkariek baieztatzen dutenez, "azken proiektua bertan behera geratu zenetik daude salgai ondasunak". Multinazionaleko zuzendaritzak langileekin adostu zuen berrindustrializazio proiekturen bat agertzen bazen, proiektu berriak alokatu ahal izango zituela instalazioak eta pabiloia, "baina proiekturik ez dagoenez, lehenago edo geroago, dena hustuko da; seguruenik, aurten", gaineratzen dute langileon ordezkariek. Edozein modutan, proiektu berriak ez zituzkeen makinak behar izango, bakarrik lurra eta pabiloia.



Enkante-etxe baten harreman zenbakia dago Candyren hesian. | L.K.

### 30 langilek jarraitzen dute

Lantegiaren atzealdeko eraikinean, administrazio eta laguntza tekniko lanak egiten jarraitzen dute 30 bat langilek. Oraingoz, irailera bitarteko kontratua daukate.

# Agerraldiak egingo dituzte Ordainduk eta Eskuratuk

## Hilean behin kalera irtengo dira, Arrasaten edo Bergaran, euren egoera gogorarazteko

L.K. | ARRASATE

Ordaindu eta Eskuratu elkarteek kale-agerraldiak egingo dituzte hilero elkarrekin Arrasaten edo Bergaran (oraindik ez dute erabaki), euren egoera jendeari gogora ekartzeko, eta, bestalde, hauteskundeen aurretik, alderdi politikoekin batzartuko dira. Orain arte, Gipuzkoako ahaldun nagusi Markel Olanorekin eta Ogasun diputatu Jabier Larrañagarekin (EAJ) izan dira.

Urtarrilean, euren eskaera bat betetzea lortu zuten Fagor Etxetresnetako bazkide ohiek: hain zuzen, PFEZn, aparteko zerga kobratu zieten enpresan baja eskatu zuten kooperatibistei, kapital bat berreskuratzen zutelako eta ulertzen zelako ondarea handitu zitzaiela kapital horregatik. Ordaindu elkarteko bazkide gehienek zerga hori bueltatzeko eskatu zioten aurreko foru gobernuari, eta ezezkoa jaso zuten; oraingoak onartu egin die eskaera, eta, Ordainduko Mikel Olaberen esanetan, "dagoeneko askok jaso dute bueltan dirua".

Bestalde, Markel Olanori "bitartekari lanak" egin ditzan eskatu diote, eta Ordainduko kideen "arazoa ulertzen" zuela eta "ahal duen guztia" egiteko agindua jaso zuten.

Ordainduk eta Eskuratuk asmoa dute Bizkaiko eta Arabako ahaldun nagusiekin ere egoteko (EAJkoak), eta hiru diputazioek "jarrera bateratua" har dezaten eskatzeko, bai ondasun hazkunde zergaren gainean, baita euren egoera orokorraren inguruan ere.

### Salaketa aztertzen

Abenduan Mondragon Korporazioaren aurka ipini zuten salaketa hirugarren epaimahaia aztertzen ari da. Oraindik ez da tramitera onartu.

# Langabezia pixka bat murriztu da eta %10,94ko tasarekin hasi da urtea

GOIATZ ARANA | DEBAGOIENA

Abenduko datuekin alderatuta, ez da gorabehera handirik egon enplegu datuetan urtarrilean: langabezia tasa %11 zen iazko azken hilabetean eta zertxobait baxuagoa izan da aurtengo lehen hilabetean, %10,94. Beraz, 3.282 langabe Debagoienean. Aldiz, 2016ko urtarrileko datua 2015eko garai berekoarekin konparatuz gero, aurtengo urte hasiera iazkoa baino hobea izan da, orduan baino 466 langabe gutxiagorekin. Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoaren datuak dira eta Lanbideren bulegoetan izena emanda daudenak zenbatzen ditu. Hauek dira datuak: Antzuola: 82 (%7,55); Aretxabaleta: 287 (%8,36); Arrasate: 1.474 (%14,13); Bergara: 755 (%10,82); Elgeta: 55 (%9,27); Eskoriatza: 207 (%10,22); Leintz Gatzaga: 6 (%4,38); Oñati: 416 (%7,82); Debagoiena: 3.282 (%10,94).

Hego Euskal Herrian gora egin du langabeziak urte hasieran: Espainiako Lan Ministerioaren datuen arabera, 6.745 langabe gehiago daude Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan; abenduan baino %3,5 gehiago.

# Herri arteko autobus ibilbideetan aldaketak iragarri ditu Pesak

## Ordutegiek bost minutuko aldea dute orain

L.K. | DEBAGOIENA

Debagoieneko autobus zerbitzuak hobetzeko asmoz, DG03 eta DG04 autobus lineetan aldaketak izango direla iragarri du Pesa garraio enpresak. DG03 linea Bergara eta Eskoriatza artekoa da, eta DG04 delakoak Eskoriatza-Eskoriatza ibilbidea egiten du.

Aurrerantzean, DG03 linearen 05:15eko irteera 05:00etara aurreratuko da astelehenetik egubakoitzera bitartean. Horrenbestez, ordutegia hauxe izango da: Bergara (Madina): 05:00; Bergara (geltokia): 05:05; San Prudentzio: 05:10; Arrasate: 05:20; Aretxabaleta: 05:30; Eskoriatza: 05:40.

Gero, Eskoriatzatik abiatuko da 06:20ean, orain arte baino 10 minutu lehenago, eta hurrengo geldialdiak honako hauek izango dira: Aretxabaleta: 06:30; Arrasate: 06:40; San Prudentzio: 06:45; Oñati: 07:00; Legazpi: 07:20; Zumarraga: 07:30; Antzuola: 07:40; Bergara (Madina): 07:50; Bergara (geltokia): 08:00; San Prudentzio: 08:50; Arrasate: 08:20; Aretxabaleta; 08:25; eta Eskoriatza: 08:30.

DG04 linean, Eskoriatza-Eskoriatza ibilbideari dagokion ordutegia bost minutu atzeratzen da, 13:45etik 13:50era, astelehenetik egubakoitzera. Hauek izango dira ordutegiak: Eskoriatza, 13:50; Aretxabaleta: 14:00; Arrasate: 14:10; San Prudentzio: 14:15; Bergara (Madina): 14:35; Bergara (geltokia): 14:40; Antzuola: 14:45; Zumarraga: 14:55; Legazpi: 15:05; Oñati: 15:25; San Prudentzio: 15:35; Arrasate: 15:45; Aretxabaleta: 15:55; eta Eskoriatza: 16:05.

### Geldialdia Mugarrietan

Bestalde, bi linea horietako autobusak Arrasateko Mugarrietan (Lidl, Dia, Chapime, Ford Mugarri...) gelditukо dira aurrerantzean, bi noranzkoetan. Markesinak ipini dituzte dagoeneko.

# Siriara ailegatu da Ulma Taldearen kanpainaren fruitua

L.K. | OÑATI

Ulma Taldeak egindako kanpainaren ondorioz, ACNUR-ek elikagai eta manta termikoen 500 kit baino gehiago bidali dizkie Madayan dauden errefuxiatu siriarrei. Horrelaxe jakinarazi du kooperatibak.

### Nominatik deskontatu

Joan den urteko azken hiruhilekoan, Ulma Taldeak, bere Fundazioaren bitartez, kanpaina egin zuen langileei elkartasuna eskatzeko eta hainbat bide ireki zituen: errefuxiatuei laguntzeko ACNUR erakundeari elkartasunezko SMSen bidez edo ACNUR-en kontura zuzenean dirua sartuz, esaterako. Nominatik dirua deskontatu eta diru hori ACNUR-i emateko aukera ere ematen zen, eta azken horrek izan du arrakasta handiena. Ia 6.000 euro bildu ziren 200 pertsona ingururen artean.

## Txinan bigarren lantegia irekiko du aurten Coprecik, eta Kunshango industrialdean izango da

Copreci kooperatibak bere bigarren filial produktiboa irekiko du aurten Txinan. Kunshan enpresa parkean egingo du, 3.200 metro koadroko azalera duen eraikin batean, eta balbulen ekoizpena landuko dute bertan, Txinako merkatuan goi gamako gas bidezko gaineko sukaldeak hornitzeko. Plantaren jarduera aurtengo hirugarren hiruhilekoan hastea aurreikusita dago, eta ordu arte egokitzeko, makineria jasotzeko eta langileak prestatzeko lanak egingo dira.

## Isaias Carrasco hiltzeagatik 32 urteko espetxe zigorra berretsi dute Beñat Aginagalderendako

2008an Isaias Carrasco zinegotzi sozialista arrasatearra hiltzea leporatuta, Espainiako Auzitegi Nazionalak Beñat Aginagalderi ezarritako zigorra berretsi du asteon Espainiako Auzitegi Gorenak: hain zuzen, 32 urteko espetxe zigorra. Eguaztenean jakinarazi zen epaia; Aginalgaldek aurkeztu zuen helegitea baztertu egin zuen, beraz, epaitegiak. Auzitegi Nazionalak absolbitu egin zuen hasieran.

## Enpresen informazioa eraginkortasunez eta modu errentagarrian kudeatzeko saioa izango da

Adimen Lehiakorra delako kontzeptuaren inguruko hurbilketa ikastaroa antolatu du Debagoieneko Garapen Agentziak otsailaren 18rako (09:00-13:30). Informazioa eraginkortasunez kudeatzea errentagarria dela esan nahi du kontzeptu hark. Adimen Lehiakorraren garrantzia hortxe dago: inguruneko aukeren eta mehatxuen berri jasotzen eta enpresa bakoitzaren informazio baliagarria eskuratzen duen erreminta da. Argibideak: *enpresa@debagoiena.eus* edo 943 79 30 90.

## Lehen sorospenen ikastaroa izango da Oñatin, Debagoieneko Gurutze Gorriaren eskutik

Otsailaren 13an hasi eta martxoaren 19ra bitartean lehen sorospenen ikastaroa landuko dute Oñatin, Debagoieneko Gurutze Gorriaren eskutik. Egubakoitzetan eta zapatuetan dira eskolak: 18:00etatik 21:00etara eta 09:00etatik 13:00etara, hurrenez hurren, Eltzian, Enpresagintza fakultateko antzinako eraikinean, alegia. Gaztelaniaz landuko dute gaia, eta izenematea astelehenean bukatuko da, otsailaren 8an. Argibideetarako telefono zenbakiak: 619 00 35 00 edo 943 76 55 76.

## ZABALIK



**IÑIGO IÑURRATEGI**
goiena.eus/komunitatea/

# Biktima berri gehiagorik ez

Biktimak errekonozitzea, beraien –eta senideen zein gertukoen– sufrimendua ulertzea eta babesa eskaintzea azken hamarkadetako historian hutsunez ageri zaigun gai bat da. Euskal Herriaren eta estatuen arteko gatazkek eragindako biktimez ari naiz. Sasoi batean gerra zibilak, ondoren diktadurak, geroago borroka armatuan parte hartu duten alde ezberdinek eragindakoez… Gehiago edo gutxiago entzuten dugu biktimak, babesik gabe utziak, edo ahaztuak, edo baztertuak, izan direla.

Badirudi azkenaldian bide horretan, errekonozimenduaren bidean, pausoak ematen ari garela batean zein bestean. Baina, biktimen aldeko zenbait diskurtso eta jarreratan, bada ulertzen ez dudan zerbait. Sartu gabe alde batekoak, bestekoak, partzialak diren edo ez… harritzen nauena da erabat atzera begirakoak direla. Ezinbestekoa da orain artekoekin egitea, baina soilik atzera begira jarduten badugu gai honekin, beti iritsiko gara berandu.

**Harritzen nauena da hainbat diskurtso atzera begirakoak direla**

Biktimak aintzat hartzeko eta babesteko modurik onena biktima berririk ez eragitea da. Eta, zoritxarrez, estatuen espetxe politikak era askotako biktimak eragiten ari dira gaur egun: astero ordu erdiko bisita bat egiteko milaka kilometroko distantzia eta arriskua hartzen duten senideak, gaixotasun larriak dituzten presoak, ezohiko neurriekin praktikan bizi guztirako espetxealdia ezarri zaien preso eta senideak…

Halako batean herritarrak, instituzioak eta ordezkari politikoak hasiko ote gara aintzat hartzen orain ahaztuta, babesik gabe eta kasu batzuetan baztertuta ditugun horiek. Berandu ibili garela ere onartuko dugu. Baina zergatik ez guztiok bat egin elkarrekin gaur egun sufrimendu berria eragiten ari diren neurri politiko horiei aurre egiteko? Ez ote da ordua herritarrok iritzi politikoen aurretik pertsona jar dezagun eta sufritzen duen edozeini babesa eman diezaiogun?

## USTEAK USTE

**MAIDER ARREGI** | marregi@goiena.eus

# Non daude?

Aspaldian albiste batek ez ninduen modu honetan aztoratzen eta barrua astintzen. Inpotentzia eta negarra. 10.000 haur errefuxiaturen pista galdu dutela? Baina nola liteke hori? Albistea bota eta herritarrak, kazetariak, denok... lasai sofan eserita. Eta gainera, ba omen dago adingabeen prostituzioaz zikindutako mafia italiarrek haurrak bahitu dituzten zantzurik. Besteen ezbeharrez baliatuta etekina ateratzeaz aberasten diren horiendako ez daukat hemen argitaratu daitekeen hitzik! Eta errefuxiatuak ahaztuta gupida gabe abandonatuta daukan Europa kontinentearendako ezta ere. Beste behin, bizitza errealak fikzioa gainditu du. #lotsa #amorrua

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | goiena.eus/komunitatea/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Neskari listu egin aurpegira, eta ez da ezer gertatzen

**Marijo Deogracias Horrillo**
http://goo.gl/r7fmyV

Trenean sartu ahala sumatu nuen bien arteko *rollotxarra*. Hasteko aukeratu zituzten aulkiengatik: bagoiaren horma kontra bakarrik dagoena, eta pareko bakarkakoa.

Ez mariatzeko, trenaren norabidean zegoen lehenengo eserlekua aukeratu nuen nik, neska gazte atzerritar biren ondoan.

Alboko lauko eserlekuan eguzkitakoak jantzita zeramatzan emakume bat zihoan, bakarrik, eta atzeko alde banatan, beste hiru gizon eta emakume bi.

Ikuspegia primerakoa neukan bikoteari begira egoteko. Mutila zarataka ari zitzaiolako, behin eta berriz altxatu nituen begiak Twitterretik.

Eztabaida lehenagotik zetorren, baina entzun nion neskari ari zitzaiola mutikoa:

-Zergatik ibili behar duzu beti hari begira! Beti hari zara hari kasu egiten! Nik ere deitu dizut! Memela! Lela!

Neskak isilik, mugikorrean idazten segitzen zuen. Halako batean, mutila bere ondora gerturatu, eta bizkarra ematen eseri zen, bagoiko ateari begira, nire aldera begira. Aurrez aurre neukan orain mutikoa. Atzera zarataka hasi zitzaion neskari: "Ahora te levantas, lo coges y me lo das", entzun nion; tabako paketea lurrera bota zuela ohartu nintzen, neska altxatzen ikusi nuenean. Neskak, jakina, ere ez zion gogo onez itzuli zigarro paketea, baina entzun behar izan zizkionak eta gero, ze gutxiago!

Derrepentean, nire barruan sortu zen amorrazioak goia jo zuen. Mutilak paketea hartzeaz batera, burua neskaren aldera itzuli eta listu egin zion aurpegira! 10 zm-ko tartean, aurpegira txistua!

Atentzioa deitu nion. Ezin izan nintzen isilik geratu. Baina, hain izan zen instintiboa nire erreakzioa, ze, ahotik atera zitzaidana "oye! Así no se trata a las personas, y menos a quien tienes a tu lado!" triste bat esatera besterik ez nintzen iritsi. Marmarka hasi zitzaidan mutila eta "a mí no me insultes" erantsi nuen; "no te he insultado pero no tengo tiempo para perder contigo", erantzun zidan (hortxe amaitu zen kontua.

Hurrengo geralekura bitartean mutilak ez zuen ezer gehiago esan, ezta egin ere, baina biak jaitsi ziren geraleku berean).

Ondoko emakumeak, eguzkitakoak jantzita zituenak, begirada nigana zuzentzen zuela sumatu nuen, eta nirekin batera eserita zeuden neska gazte atzerritarrak ere, begira neuzkala ikusi nuen, zer gertatu zen asmatu ezinda (bietako batek ikusiko zuela pentsatzen dut, nik bezala, mutikoa parez pare baitzuen).

Ikusitakoaren inguruan inork ez zuen ezer komentatu; hitz erdi bat egin.

Bikotea trenetik jaitsi zen hurrengo geralekuan, Zaldibarren, eta ez nuen atzekoen komentario bakar bat bera ere entzun. Eta horrek ernegatu ninduen. Gure hoztasunak, gure paso egiteko gaitasunak. Leku publiko batean, jendez inguratuta eta egun argiz, neskaren kontra hain era matxistan oldartu dela ikusi genuenok, ziur naiz, gauza bera pentsatu genuela: zer ez du egingo tipo horrek bakarrik daudenean! Eta, hala ere, keinu bat bera ere ez han ginenon artean.

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Garbiñe Beitia.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.850 ale
**Difusioa:** 18.507 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK / HANDIK ETA HEMENDIK

## Burmuinak eta zabortegiak

**Gerardo Markuleta**
Oñati

Oñatitik kanpo bizi naiz, baina tarteka etortzen naiz, noizbait familiarena izan zen eta orain amaren bizileku den etxera.

Oraindik ez zait gogotik joan zer-nolako tristura sentitu nuen auzoko balkoiak zabor-poltsaz beterik ikusi nituen lehen aldian; ezta zintzilikariook apurka-apurka desagertuz zihoazela ikusitakoan sentitutako poza ere.

Duela hilabete batzuk, antzeko tristura sentitu nuen –baina amorru pittin batekin nahastuta– amaren etxe pareko horman pintada bat ikusi nuenean, erdara batu-batuan: *Tu vida es un vertedero*.

Ez dakit pintadak –eta, egia esanda, bost axola– zaborren inguruko liskarrarekin zerikusirik daukan edo ez, baina inork ez du merezi goizero sukaldeko pertsiana jaso, eta hortxe, une oro, halako mezu pozoitsua begien aurrean izatea.

Horregatik, pintadaren egileari eskatu nahi diot margo-pote bat –grisa du hormak kolorea– eta brotxa bat hartuta, etor dadila berriro ere auzora, pinturaz egindako kaka hori pinturaz estaltzera.

Hala egiten ez badu, pentsatu beharko dut zabortegia, egon, bere burmuinean dagoela.

## Sufragistak

**Amaia Erostarbe eta Marijo Etxegoien**
(EAJko zinegotziak)
Oñati

Britainia Handiko emakumeak 1832ko abuztuan hasi ziren antolatzen ekimen demokratikoak eta protesta baketsuak boto-eskubidearen alde. Geroago, emakume ekintzaile talde bat eratuaz joan zen XX. mendearen hasieran (Women's Social and Political Union, 1903), eta indartu egin zen aldarrikapena. Emakume horien bide malkartsua kontatzen da *Sufragistak* filmean.

Garai hartan, Europako hiruzpalau herrialdetan baino ezin zuten emakumeek botoa eman: Norvegian (1913tik), Danimarkan (1915etik) eta Alemanian (1918tik). Estatu Batuetan, 1920an lortu zuten. Britainia Handiko emakumeek 1918an bozkatu zuten lehen aldiz –ezkonduek, unibertsitateko ikasleek eta 30 urtetik gorakoek–, baina 1928ra arte ez zen ezarri emakume guztien sufragioa. Espainiako estatuan, Bigarren Errepublikaren hasieran ez zegoen emakumeen sufragiorik, eta Clara Campoamor Gorte Konstituziogileetako diputatuaren lanari esker onartu zen 1931ko irailaren 1ean.

Euskadin, 1933. urteko azaroaren 5ean eman zuten lehen aldiz botoa emakumeek, Euskal Estatutua bozkatu zenean. Gomutan ditugu *Emakumearen botoa: 75 urtez historian* (Emakunde, 2006) lanean jaso ziren Uribarri auzoko Otadui Txiki baserriko Rosario Kortabarriaren hitzak (1908-2014): "Akordatzen naiz joan ginela. Denbora txarra zegoen, euria zen eta kotxez eraman gintuzten. Garai hartan kotxe asko ere ez zegoen baina autoak baziren bai, kaminotan. (...) Gu pozik joan ginen. (...) Hiruzpalau lagun joan ginen batera. Antonia, Joxepa... Batzokian, behintzat, batera egon ginen. Boto eman eta joan ginen Batzokira (...)".

*Sufragistak* filmean, feminismoarekin lotutako estereotipoak desegiten dira, eta feminismoaren helburua adierazten da: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetakoa izatea. Alabaina, dezente urte geroago, 2016ko urtarrilean, badago bestelako adibiderik: Angulemako Nazioarteko Komiki Jaialdia (Frantzia); 43. edizioko sari nagusiaren 30 hautagaiak gizonezkoak dira. Ezin dugu ahaztu berdintasunik eza gizarte osoaren arazoa dela eta denon artean egin behar diogula aurre.

## Atez arte

**Iñaki Idigoras**
Oñati

Azkenaldian eztabaida handia izan dugu hondakinen kudeaketaren eta batez ere biltzeko sistemen inguruan. Bi proposamen mahai gainean: bosgarren edukinontzia eta atez atekoa.

Honezkero bakoitzak badu iritzi propioa helburu berdinera –birziklatze tasa maximizatzea– iristeko soluzio egokiena zein ote den. Bataren eta bestearen aldeko eta kontrako argudio dezente partekatu ditugu.

Berriki, baina, orain arte entzun ez dudan batekin ohartu naiz. Atez atekoarekin artea egiten dugula, alegia. Elkarlan komunitarioan, egin ere. Gure inguruei, bakoitzak beretik eta aleka ipiniaz, bizia emanez. Metalezko enbordun zuhaitzak egunero jantziz eta erantziz, urtaroak pasako bailiran. Gaur lepo koloredun poltsez, ondoren enbor huts. Hosto-ontzi marroi batzuk bihar, eta gehienak goizean zehar eroriko badira ere, batzuek egun osoa iraungo dute, hosto urdinak etorri arte. Hauek eroritakoan marroiz jantzen ditugu zuhaitzok, eta hurrengoan horiz eta zuriz eta beste hainbat kolorez. Grisak datoz gero, gutxiengoan, eta marroiak berriro.

Haizeak ere artean parte hartzen du, eta hainbat hosto noraezean ibili ohi ditu. Gabonetako kontsumismoa ere ederki irudikatu dugu enborren magalean era zarpailean utzitako kartoi kaja ugariz.

Ez al da polita egunero horrelako arte dinamikoa komunitate bakoitzeko kideok elkarlanean sortzea? Etxeko, auzoko eta herriko komunitate desberdinek kaleak artez janztea?

Berriki Debagoieneko herri batzuek egindako galdeketetan aukera honi muzin egin diozue, eta kaleak edukinontzi handiz eta estatikoz beteko dituzue. Bizitzarik ez daukaten elementuz. Haritz, lizar, pago, intxaurrondo, gaztainondo, urki, astigar eta horrelakoen ordez insignia landatuko duzue.

Oñatin, zorionez, herri biziaren beste erakusgarri bat daukagu atez arte.

Helburua bezain ederra baita bidea.

## Mozorro sexistarik ez!!!

**Eneko Fernandez**
http://goo.gl/TdhZ1M

Aratusteak ate joka ditugu. Egun hauetan kaleak kolorez, poztasunez, fantasiaz eta mozorroz beteko ditugu, baina esparru honetan ere, berdintasunaren aldeko borrokak ezin du atsedenik hartu. Izan ere, mozorro sexistek sexuari lotutako genero rolak eta estereotipatuak errepikatzen dituzte. Adituek adierazten dutenez, gaur egungo sexu zatiketa erreproduzitzen dituzten mozorroak identifikatzen dira mozorro sexista gisa.

Gainera, mozorro sexistekin ez dira aukera berdinak eskaintzen mutilei eta neskei; umearen garapena oztopatuz.

Berez mozorroak ez dira arriskutsuak, horien atzean dagoena baizik. Mozorroen generoaren erabileraren ondorioz, estereotipo sexistak barneratzen dira eta arestian aipatu dudan bezala, erreproduzituko dira, eta hori noski, berdintasunaren aldeko lanean eta bidean oztopoa da.

Horrexegatik, kontzientzia garatzeko eta bide batez, hausnarketa eragiteko asmoz, mozorroen inguruan galdera batzuk luzatu nahiko nituzke:

-Zergatik bereizi neskentzako eta mutilentzako mozorroak ?

-Zergatik nesken mozorroetan nagusi dira gorputza agerian uzten dituzten jantziak (minigona...)?

-Zergatik neskei zuzendutako mozorro batzuk dirudite gizonezko batzuen fantasia sexualetik aterata daudela?

-Zergatik izaten da errazagoa topatzea emakumeen mozorro "sexyak" gizonenak baino?

-Zergatik mutil txikiek "futbolariz" eta neskatxoak "printzesaz"?

-Zergatik mutilek dute erraztasun handiagoa neskez mozorrotzeko, neskek mutilez baino?

Eta prezioei dagokionez, zergatik izaten dira garestiagoak neskei zuzendutako mozorroak?

Argi dago galderak ugariak izan daitezkeela eta hausnarketak anitzak, zuen esku.

Bukatzeko, niri gustatuko litzaidake aholku xume bat ematea; kontuan izanda bizitza honetan detaileek sekulako garrantzia dutela, mozorroa aukeratzeko orduan genero ikuspegia txertatzea eta gogoan izatea beharrezkoa dela ohartzea da.

## ZUZENKETA

**Joan zen asteko GOIENA paperean, 24. orrian, Aramaioko orrian, Patxi Salaberrik argitaratu duen liburuaren berri eman genuen. Patxi Salaberri Muñoa aramaioarra jo genuen albisteko protagonistatzat, baina hori ez da zuzena. Liburua idatzi duena Patxi Salaberri Zaratiegi da, Nafarroako Uxue herrikoa.**

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

**LAURA ALUTIZ**
Arrasate / Otalora Lizentziaduna,18 solairuartea
687 97 69 76

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**MIRARI KORTA**
Aramaio / Azkoaga Auzoa 3 / 647 27 31 40

## NEUROLOGIA

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

**NAGORE ARANBURU**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18, solairuartea, esk
685 72 01 42

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

**UNAI SERRANO**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 2ZM / 608 48 89 88

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

HERRIAK

ARETXABALETA

# Gizarteratzeko lanean hazia ereiten

- Gu Haziak Gara elkartea 2013an sortu zuten Aretxabaletara etorritako hainbat emakumek
- Erakusketa jarri dute Arkupen, egiten duten lanaren berri emateko herritarrei

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Leticia, Susana, Jon, Celmira, Paloma… eta beste hainbat elkartu dira Gu Haziak Gara elkartearen bueltan. Gizarteratzen laguntzeko helburuarekin abian jarritako ekimenak dagoeneko hiru urte egin ditu. Hala ere, oraindik ezezagunak direla herrian uste dute, eta horri buelta eman guran erakusketa jarri dute Arkupen. "Etorri gu ezagutzera, ikusi zer egiten dugun, eta bizi gurekin batera!", diote.



Josteko elkartzen diren kideak, eguazten goizean, parrokiaren lokalean. | MIRARI ALTUBE

**Auzoko egitasmoa**

Kanpotik etorritakoekin Loramendi elkarteak ere badihardu lanean. Hirugarren ikasturtea beteko du Auzoko egitasmoak, eta beste herri batzuetan ere badaude taldeak; Eskoriatzan eta Arrasaten, esaterako. "Era ludikoan harrera linguistikoa egitea da helburua", dio Irati Urkiak, Loramendiko dinamizatzaileak. Taldea osatzen dute, batetik, auzokideek, euskaraz ez dakitenek, eta bestetik, auzotarrek, euskaraz berba egiten dutenek. Astean birritan elkartzen dira, martitzenetan (09:00) eta eguenetan (15:00), eta taldean pozik hartuko lituzketela kide gehiago diote; auzotarrak, batez ere. Horretarako, beldur gabe jo dezatela Loramendira.

### "Bertakoak" sentitu ez

Paloma Martinez mexikarrak sortu zuen Gu Haziak Gara elkartea, 2013an, beste hainbat lagunekin batera. Hiru urte lehenago hasita zeuden kanpotik etorritako hainbat emakume elkartzen, hain zuzen, kanpokoak izateak sortutako sentimenduek bat eginda: "Bertakoak ez garela sentitzen genuen. Tolerantzia egon badago, baina herrian sartzeko aukerarik ez genuela igarrita hasi ginen lanean, gure egoerari irtenbidea eman nahian", dio Martinezek.

Aretxabaletan bertan jaiotakoen eta kanpotik etorritakoen artean "zatiketa" dagoela oraindik ere sentitzen dute elkarteko kideek: "Gure erosotasunetik irtetea kosta egiten zaigu; betiko kuadrillan, betiko kafetegian eroso gaude eta beste horiengana pauso bat ematea zaila da oraindik ere", dio Martinezek. Etorkinak dira nagusi elkartean, baina egun badaude bi aretxabaletar ere: "Oso garrantzitsua da hori, bestela elkarteak ez luke izango zentzurik. Herrian integratzea gura badugu, herrikoekin batera egon behar dugu".



Paloma Martinez eta beste hiru lagun gozo-eltzeak egiten. | M.A.



Elkarteak jarritako erakusketa. | M.A.

### Ortua, gozo-eltzeak eta arropa

Langabezia da, hain zuzen ere, "elkartzen" eta aldi berean "urruntzen" dituen gaietako bat, Martinezen esanetan, eta horri heltzea erabaki dute: "Bertakoek uste dute euren lanen bila datozela kanpokoak. Hori horrela, mahai gainean jarri genuen gaia eta pentsatu genuen: elkar gaitezen, ba, langabezian gauden guztiok, bai bertakoak, bai kanpokoak! Eta hortik harremanak estutzen hasi".

Ortuko lanetan hasi ziren lehenengo. Bi lursail eskuratu zituzten, bata herrian bertan eta bestea Oro auzoan, eta handik jasotako guztia elkarteko kideen artean banatzen dute. Ondoren, gozo-eltze edo piñata tailerra jarri zuten abian, eta horiek saldu egiten dituzte orain. Eta joste eta puntu eta kakorratz tailerrak ere badituzte: "Iaz erabaki genuen bi jarduera ekonomikotan alta ematea eta orain enkarguak hartzen ditugu: gozo-eltzeak egin, arropak konpondu…".

### Astean birritan josi

Joste-taldea astelehen eta eguazten goizetan elkartzen da parrokiak dituen lokaletan. Eskoriatzan bizi den Celmira Feijo perutarrak ematen dizkie eskolak, eta, bide batez, gizarteratzen lagundu: "Joskintzaren oinarrizko kontuak erakusten dizkiet, zerbait egiten jakin dezaten. Hala, ikus dezakete, batetik, jakintzaren bitartez zerbait lor dezaketela, etekinen bat atera, eta bestetik, horrek gizarteratzeko aukera gehiago eskaintzen dituela".

Baina josten ikasteko eskola baino gehiago da taldea: "Benetan aberasgarria da giroa, ikasten ditugulako kulturak, ohiturak… Guztiok elkarbanatzen ditugu geure iritziak, pentsamenduak… Oso polita da", dio Feijok. Hala, taldeko gainerako kideak ere oso gustura daude: "Denetik egiten dugu… Arropa konpontzen dugu, motxilak egiten ditugu… Denetik. Eta gustura etortzen naiz", jakinarazi du Errumaniatik Aretxabaletara etorritako Leticiak. Susana, ostera, aretxabaletarra da, eta taldea abian jarri zutenetik dago: "Iaz ezin izan nuen etorri, baina orain berriro itzuli naiz, eta oso gustura, gainera". Aretxabaletako Jon ere josten ikasteko gogoz hurreratu da oraintsu: "Ea gizonezko gehiago ere animatzen diren".

### Ateak parez pare zabalik

Otsailaren 2az geroztik, elkartean egindako lanak Arkupeko erakusketa aretoan daude ikusteko. Hilabete guztian egongo dira, eta Gu Haziak Garako kideek gerturatzera animatu dituzte aretxabaletarrak: "Etorri eta bizi gurekin batera esperientzia hau, ongietorriak izango zarete". Ateak zabalik dituzte parez pare bai elkartera bertara hurreratzeko, bai enkarguak eskatzeko. Hona hemen horretarako bideak: helbide elektronikora idatzita: *guhaziakgara@gmail.com*; telefonoz: 688 62 37 18; eta Facebook bidez.

Hiru urteko ibilbidean laguntzaile izandakoak ez dituzte ahaztu gura: "Gure lana posible izan da hainbat lagunen, erakunderen eta enpresaren laguntzagatik. Eskerrik asko guztioi!".

ESANAK

**"Etorri gu ezagutzera, ikusi eta eta bizi gurekin batera"**

PALOMA MARTINEZ | KIDEA

**"Jakintzarekin zerbait lor dezaketela ikusarazten diet"**

CELMIRA FEIJO | KIDEA

**Iñaki Arriaga** | Arrasateko udaltzainburua

# "Neurri gutxi batzuk hartuta lapurreta asko ekidin daitezke"

- Urtarrilean "gorakada txiki" bat izan da: "Sei etxetan sartu direla dakigu"
- Udalak hitzaldiak antolatuko ditu Etxaluzen; batez ere, adinekoei begira

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Azken asteotan bereziki herriko periferiako etxebizitzetan izan diren lapurretengatik kezka zabaldu da zenbait herritarren artean. Iñaki Arriaga udaltzainburuak dio "gorakada txiki bat" egon den arren ez dela alarmarik sortu behar. Hitzaldiak antolatuko dituzte; batez ere, adinekoei begira.

**Kezkatzekoa al da etxebizitzetan izandako lapurreten gorakada?**

Urtarrilean sei etxebizitzatan sartu direla badakigu, batzuetan sarraila-zilindroa apurtuta eta beste batzuetan txartel edo plastiko batekin atea irekita. Azken metodo hori ekidin daiteke atea giltzaz itxita, sarrailari buelta emanda. Etxetik irteterakoan beti egin behar da hori. Gorakada txiki bat izan da, baina, Herrizaingo Sailaren arabera, Arrasateko inguruetan izaten dira Euskal Autonomia Erkidegoko delitu gutxien. Beraz, ez da alarmarik sortu behar. Gainera, garai hauek izaten dira behartsuenendako garai gogorrenak, eta gertatu ohi dira halako gorakada txiki batzuk.




Iñaki Arriaga udaltzainburua bulegoan, artxiboko irudi baten. | J. BEREZIARTUA

**Udalak pentsatu al du lapurretak prebenitzeko ezer egitea?**

Gaiarekin kezkatuta gaude, nola ez, eta prebentziorako hitzaldi pare bat egin gura ditugu Etxaluzen. Saio dinamikoak izango dira, herritarren kezka eta zalantzak argitzeko aukera emango dutenak. Herritar guztiei egongo dira zabalik, baina, batez ere, adineko jendeari begira antolatuko ditugu. Herritarrek jabetu behar dute segurtasun neurri gutxi batzuk hartuz gero lapurreta asko ekidin daitezkeela.

**Zein gomendio emango zenuke etxeetako lapurretak ekiditeko?**

Etxetik irteterakoan atea giltzarekin itxi behar da bai edo bai. Eta eraikin barruan zein inguruan susmagarriak diren pertsona ezezagunak ikusiz gero, Udaltzaingora deitu [943 25 20 10 edo 092]; izan ere, pasatu izan zaigu salaketa jarri ostean biktima izan denak lagunen artean komentatu duela pertsona ezezagunak edo jende arraroa ikusi duela bloke barruan. Gauza horiek esan egin behar dira salaketa egiterakoan. Lapurreta mota asko daude eta saiatuko gara hitzaldietan horiei guztiei aurre egiteko gomendio zehatzak ematen. Garajeetako lapurretak, esaterako: obratik eratorritako segurtasun neurriak ez dira nahikoak gaur egun.

**Adineko jendea ei da lapurrarendako biktima errazena. Zergatik?**

Askotan, oso erraz irekitzen diete etxeko atea ezezagunei. Teknikari batek atea jotzen duela? Aurrez deitu egiten dute, eta, beraz, ez badugu inor espero, ez da atea ireki behar. Eta noski, ateko mirilla edo behatxuloak zerbaitetarako daude. Kasu bat dut buruan, 80 urteko emakume bati egindako lapurreta: atea begiratu barik ireki, bietako batek [benetako teknikariek bakarrik egiten dute lan] baso bete ur eskatu eta bestea libre dago gura duena eramateko.

**Zer egiten du Udaltzaingoak lapurreta baten berri jasotzerakoan?**

Aukera badago DNA ebidentziak jasotzeko –hatz arrastoekin, esaterako– Ertzaintza egiten da kargu, gu ez gara horraino heltzen. Izan ere, Ertzaintzarekin koordinatzen gara beti. Baina, normalean, ez da halakorik gertatzen, biktima etxean sartu denerako dena ukitzen dutelako. Orduan, salaketa guk jaso ohi dugu.

NIRE USTEZ



**ANE GOROSABEL**

## Etxeko-lanak

Kontsumoa bizi ardatz duen gizarte honek bikain egin ditu etxeko-lanak. Norbera konturatu orduko, produktuz inguratuta dago, beharrezkoak ez dituen produktu huts eta antzuak. Eroste momentuan bai subidoia, eta paketetik ateratzeko momentua... Uf! Pena da momentu honen iraunkortasuna haize boladak letxe besterik ez irautea.

Produkzio sistema eredu inposatu honek tokian tokiko herritarren beharrak aintzat hartu ez, eta kontsumo mota jakin batera behartzen gaitu. Eskaparatean dagoenaren aurrean aukeratzeko askatasuna dugula sinistarazten digu, hamaika forma, kolore, tamaina, prezio... Eta etxera bueltan, hamaika produktu (des)berdin, etxeko hainbat tokitan txukun jartzeko. Produktuak, hori besterik ez da. Publizitatea, produktua, itxura (edo itxurakeria) eta publizitate gehiago. Telebista, irratia, prentsa, kalea, eskaparatea. Gu. Posible litzake herriaren beharrizanetara egokitzen den kontsumo eredua aldarrikatzea? Non, adibidez, giza harremanak, herri autonomia, elkartasuna eta osasun emozionala, pertsonala, kolektiboa diren ardatz? Ez, aldarrikapen eta borroka hori norberari dagokigulako. Agian guk ere etxeko-lanak egiten hasi beharko genuke...



JOSU BILBAO

## Santa eskea, sendo

Santa Ageda bezperan herrietako txokoetan kantuan eta eskean ibiltzeko ohiturak sendo jarraitzen duela erakutsi zuten atzo –eguena– baserritar jantzita eta plazaz plaza eta kalez kalez ibili zen andre–gizon kuadrilla ederra. Eguna hotz samar hasi arren, eguraldia lagun izan zuten, eskerako aproposa. Ohi moduan, batutako dirua Caritasera bideratuko dute.

## Zapatuan zein martitzenean, giro ederra espero da Aratusteetan

**J.B.** | ARRASATE

Arrasatearrek zapatuan eta martitzenean ospatuko dituzte Aratusteak. Bihar, batez ere, gazteek eta familiek hartuko dituzte kaleak, lanak eraginda martitzenean irteterik izango ez dutelako. Martitzenean, berriz, ikastetxeek hartuko dute lekukoa. Udalak egitaraua zabala antolatu du, 15.700 euroko aurrekontuarekin.

Inauterien harira bi egunetan antolatutako ikuskizunez harago (ikus 13. orria), Aratuste-zapatuan egun osoan zehar izango dira ekintzak: iazko kuadrilla irabazleak, Imsersoko lagunek, pregoia egingo dute Biteri plazan (12:00), eta gero desfilea egingo dute Arrasate Musikaleko txarangak laguduta (12:15). Ondoren, 13:30ean, sari banaketa egingo da Herriko Plazan. Aurten ere ez da herri bazkaririk egongo; eguna bukatzeko, iluntzean, Arrasate Musikaleko txaranga eta Fan & Go taldearen dantzaldia izango dira Herriko Plazan.

**SUDCekoen sardinaren hileta**

Aratuste-martitzenean arratsaldean hasiko dira ekintzak: mozorro desfilea Herriko Plazan (17:00), Samasiku txarangaren animazioa (17:30), erraldoi eta kilikien konpartsa (18:30), Alaiki taldearen dantzaldia Herriko Plazan (19:30ean eta 22:30ean) eta, amaitzeko, SUDCeko segizioak sardinaren hileta gidatuko du (21:00).




Zigorrolako zoo ibiltaria, Aratuste–zapatuko iazko desfilean. | GOIENA

## Zarugaldeko eraikin zahar bat botako dute oinezkoei lehentasuna emateko

**J.B.** | ARRASATE

Zarugalde kaleko 37. zenbakian dagoen eraikina botako du Udalak –ile-apaindegi eta garbitegi komertzial bat egon ziren lekuan, Udala plazaren ondoan–. Eraikina ordenaziotik kanpo dago eta Arrasate pasealekuko lanak amaitu direla aprobetxatu gura dute oinezkoendako "oztopo" den eraikin hori eraisteko. Helburua da gunea oinezkoendako lehentasuna emanda egokitzea; martitzeneko osoko bilkuran onartu zen eraikina eraisteko beharrezkoa den desjabetze espedienteari hasiera ematea.

Aurtengo aurrekontuan partida bat dago horretarako, eta, beraz, lanak aurten gauzatzea espero du Udalak.

## Arbolapeta eta Muzibar arteko proiektuaren gaineko erakusketa

Otsailaren 8tik 19ra Kulturaten irekiko dute Muzibar-Arbolapeta tartea berrantolatzeko erakusketa. 21 proposamen aurkeztuko dira hiru multzotan banatuta, Aramaio erreka azaleratu edo ez azaleratzeko irizpidearen arabera. Udalak herritarren iritzia jaso gura du; bisita gidatuak egingo dira hilaren 11n eta 18an.

## 'Arrasaten sinisten dugu' kanpainako sariak banatu dituzte

Jesus Mari Gallastegi eta Taxka taberna izan dira Sabadell Guipuzcoanoren *Arrasaten sinisten dugu* kanpainan sarituak. Gallastegik 1.000 euro irabazi ditu parte hartu duten herriko 193 komertzioetan gastatzeko eta Taxkak ere 1.000 euro jasoko ditu. Antolatzaileentzat, "sorpresa" izan da kanpainak izan duen "sekulako arrakasta".

# Martxan da Zerrajera kulturgune "indartsu" bihurtzeko ekimena

## Proiektua azaltzeko lehen bileraren ostean, hil amaieran erlojuaren eraikineko kudeaketa eredua definituko dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE



Udalak, Bagarak eta kultura taldeek egindako lehen bilera. | ARRASATEKO UDALA

Agintaldi honetan Arrasateko kulturaren erreferentziazko gune izateko asmoz jaio da Kulturola izenarekin bataiatu duten ekimena. Zerrajerako erlojuaren eraikina eta Aprendices izango ditu ardatz, eta bi eraikin horiek guztiz berritzea da asmoa: "Guretako, agintaldiko proiektu izarra izango da, kulturgune estrategiko eta indartsu bat sortu nahi dugu gertu dauden bi eraikinen artean", aurreratu du Maria Ubarretxena alkateak. Aprendicesera Arrasate Musikal, Goikobalu eta ballet taldea eramango dituzte eta erlojuaren eraikinean, berriz, orain dauden taldeak geratuko dira eta beste batzuk ere gehituko zaizkie –Zalduspen egoera oso kaskarrean daudenak kasu–.

Ekimeneko protagonista izango diren kultura taldeen egoera eta horien beharrak identifikatzen aritu da Bagara azken bi hilabeteotan; behar materialen eta espazialen gainean galdetu diete eta bidaia aprobetxatu dute herriko kulturgintzaren egoera nola ikusten duten galdetzeko eta euren arteko harremanak nolakoak diren jakiteko. Joan den astean lehen bilera egin zuten, proiektua azaldu eta etorkizunerako asmoen berri emateko. Hilabete amaieran beste bilera bat egingo dute: "Saio horretan eraikinaren kudeaketa eredua definituko dugu. Besteak beste, zehaztuko da erlojuaren eraikinean egongo diren kultura taldeak nola koordinatuko diren, bertako gastuak nola kudeatuko diren eta batzorde bat eratu behar bada zein funtzio izango dituen", dio Bagarako Nagore Iraolak.

### Ilusioa eta kezka aldi berean

Goiz da kultura taldeek prozesua nola ikusten duten galdetzeko, baina erlojuaren eraikinak dituen gabezien berri jaso du Bagarak: "Pozik daude eraikinarekin, baina gabezia inportanteak daude irisgarritasunik eza, hotza eta hezetasuna dela eta. Bestetik, zain daude ekimenak zer ekarriko duen eta obrek iraun artean nola ibiliko diren jakiteko", esan du Iraolak. Ilusioa dago, baina Udalak ere atzeman du taldeen kezka, "zalantzak" proiektuak aurrera egingo duen jakiteko: "Gure esku tan dagoen guztia egingo dugu. Kultura taldeak pozik atzeman ditut, baina kezka ere badute, batez ere, obrek irauten duten hilabeteetan euren jarduna noraino baldintzatuko duten jakiteko", esan du Maria Ubarretxena alkateak. Izan ere, Kulturolak Arrasatek kultura aldetik duen aberasgarritasuna balioan jartzeko balioko duela uste du alkateak: "Ez naiz hemengoa eta atentzioa eman izan dit zenbat kultura talde dauden eta zenbat jende dagoen boluntario lanean. Bereizgarritasun hori indartu eta sustatu egin behar da", uste du Ubarretxenak.

# Familia arteko harremanak hobetzeko ikastaroak Gizarte Zerbitzuen eskutik

## Lau tailer izango dira apirilera bitartean; hilaren 10era arte eman daiteke izena

J.B. | ARRASATE

Gizarte Zerbitzuek gurasoei zuzendutako ikastaroak antolatu ditu otsail amaieratik apirilera bitartean. Adin ezberdineko seme-alabak dituztenei dago zuzenduta eta askotarikoak izango dira jorratuko diren gaiak: *Elkarezagutzatik elkarbizitzara, guztiok ahalduntzeko bidea*; *Hazkuntza-Hezkuntza tailerra*; *Berbaz konpondu: seme-alabekin komunikatzeko trebetasunak garatzen*; eta *Zer egingo dut nik orain?* dira lau tailerren izenburuak. Otsailaren 10era arte eman ahalko da izena; hiru modu daude: Udaleko webgunean (*www.arrasate.eus/izen-ematea*), BAZen (943 25 20 00) edo Gizarte Zerbitzuetan (943 25 20 07).

### Gazte Bulegoko ikastaroak

Bestalde, Udaleko Gazteria Sailak bi ikastaro antolatu ditu. Lehenak sukaldaritza begetarianoa izango du oinarri; Mireia Alberdik emango du, astelehenetan (18:30-20:30), otsailaren 22tik martxoaren 14ra. Prezioa da 30 euro –ikasle edo langabeek 20 euro–. Bestetik, ogia egiten irakatsiko dute Tebe Gonzalezek eta Juantxo Aranburuk. Martxoaren 19an izango da, 09:30etik 13:30era. Prezioa da 15 euro –ikasle edo langabeek 10 euro–. Izena emateko: Gazte Bulegoa, 943 25 20 65 edo *gaztebulegoa@arrasate.eus*.

Halcón bidaiak.com
Arrasatetik irteerak
Apirilaren 22tik 29ra zirkuitua Katalunian (dena barne)
Maiatzaren 17tik 31ra Torremolinosen egonaldia (hegazkinez; eta Arrasatetik autobusa)
Olarte 14 • Arrasate • 943 79 29 88





Ramon Azkarate, Elena Rodrigo eta Raul Uriarte, eguaztenean egindako aurkezpenean . | XABIER URZELAI

FUTBOLA

# "Informazio eguneratua izatea da webgune berriaren helburua"

▶ Mondrak atari propioa izango du, 'www.mondragoncf.eus' helbidearekin

▶ Taldearen historia batu dute bertan, eta egungo taldeen informazioa dago

XABIER URZELAI | ARRASATE

Duela zortzi hilabete inguru hasitako proiektua errealitate bilakatu da. Mondrak aste barruan estreinatu du webgune berria, *www.mondragoncf.eus* helbidearekin: "Ea jendea poliki-poliki erabiltzen hasten den eta Google bilatzailearen posizioetan gora egiten duen", adierazi zuen aurkezpenean zuzendaritzako ordezkari Ramon Azkaratek.

**Loginlan enpresaren eskutik**

Webgunea elkarlanean egindako lanari esker bilakatu da errealitate. Loginlan enpresako ordezkariak daude atzean, eta zuzendaritzako ordezkari Elena Rodrigok ere parte-hartze zuzena izan du proiektuan: "Webgunean Mondraren gaineko informazio osoa azaltzen da. Esaterako, klubaren historia batu dugu, taldeko jokalarien gaineko informazioa fitxa bidez, erretratu zaharrak, egungo argazkiak... Esaterako, 100. urteurrenean ikus-entzunezko bat sortu zuten bi ikasle arrasatearrek, eta bideo hori ere webgunean dago ikusgai", azaldu zuen Elena Rodrigok aurkezpenean. Eta gaineratu zuen Mondrako babesle eta laguntzaileei aparteko protagonismoa eman gura izan dietela: "Euren logoak nabarmendu gura izan ditugu, eta ikusgai jarri; eskerrak ematoko modu bat da".

Zehaztu zuen, baita ere, hurrengo pausoa sare sozialak webgunean bertan txertatzea izango dela eta horretan dabiltzala lanean.

**Eguneratua izatea, ezinbesteko**

Loginlan enpresako ordezkari Raul Uriartek azpimarratu zuen Mondra moduko talde batek webgunea izateak duen garrantzia: "Zale moduan hutsune hori igarri izan dut beti, norberaren herriko taldearen gaineko informazioa eskura izatea, eta hutsune hori betetzera dator webgunea". Uriartek argi du, baina, ataria bera eguneratua izatea ezinbestekoa izango dela zaleen artean arrakasta izan dezan".



MONDRA CF

**'GONTXA' ETA 'ZURU' MONDRAKO TXIKIENEKIN** Realeko bi jokalariak Mojategin izan ziren joan den eguenean. Ordu eta erdi inguruko solasaldia izan zuten gaztetxoekin eta, besteak beste, futbolaren balioez eta euren esperientziez egin zuten berba.

ESANAK

**"Bazkideek txoko propioa izango dute webgunean"**

**"Babesle eta laguntzaileak erakutsi gura izan ditugu"**

ELENA RODRIGO | ZUZENDARITZAKO ORDEZKARIA

ESANAK

**"Aurrerapausoa da klubarendako, hutsune hori zeukan"**

**"Taldeen informazio osoa izateko erreminta da"**

RAUL URIARTE | LOGINLAN ENPRESAKO ORDEZKARIA





Anibal Carmona, lehiaketaren irabazlea saria jasotzen. | IMANOL SORIANO

# Aspanogik 1.350 euro jaso ditu saldutako 32 argazkiei esker

### Lehen aldiz egin den 'Udazkena Debagoienean', lehiaketan 135 lan aurkeztu dituzte argazkilariek

**MAITE TXINTXURRETA** | ARRASATE

Anibal Carmonak irabazi du *Udazkena Debagoienean* argazki lehiaketa, Artgazki argazkilari elkarteak antolatutakoa. Pasa den zapatuan, urtarrilak 30, egin zuten sari banaketa, hamabost egunez erakusketa Kulturateko areto nagusian ikusgai izan ondoren. Bigarren saria Aritz Gordok irabazi zuen, eta hirugarrena, berriz, Xabier Rezabal oñatiarrak eraman zuen etxera. Izenak adierazten duen moduan, udazken garaian Debagoieneko txoko desberdinetan egindako argazki sorta bildu du mostra horrek.

Lehiaketako irabazleak elkartetik kanpoko epaimahai batek aukeratu zituen: Carmonak bere *Sensual* izeneko argazkiarekin irabazi du lehen saria–argazki kamera baten itxurako garaikurra eta 200 euro–, Aritz Gordok *Urkuluko koloreak* erretratuarekin garaikurra eta 100 euro jaso zituen eta hirugarren sariaren irabazleak, Xabier Rezabalek, garaikurra eta 50 euro irabazi zituen. Azken hori ez zen sari -banaketan izan eta haren lagun batek hartu zuen bere partez. Hirurek Maria Ubarretxena alkatearen eskutik jaso zituzten sariak zapatu goizean.

**Ekimen arrakastatsua**

Artgazkiren ekimenak erantzun ona izan du; izan ere, Kulturateko erakusketan 45 lan erakutsi dituzten arren, azaroko lehiaketan 48 argazkilariren 135 lan jaso zituzten guztira. Horietatik onenak aukeratu zituzten erakusketa osatzeko. Lan horiek guztiak, gainera, abenduan herriko hainbat tabernatan jarri zituzten ikusgai, eta, modu horretan, jende askorengana heltzea lortu dute. "Erakusketak oso harrera ona izan du. Jende asko hurbildu da. Oso argazki politak eta askotariko estiloetakoak batu ditugula esan digute", adierazi dute elkarteko ordezkariek.

**Aspanogirentzat laguntza**

Bi astean zehar erakusketan ikusgai izan diren koadroak salgai ere jarri dituzte, salmentetatik lortutako dirua Aspanogi (Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso Elkartea) elkarteari emateko. Hala, elkarteak 1.350 euroko txekea jaso zuen zapatuan; izan ere, erakusgai jarritako 45 argazkietatik 32 saldu dituzte.

Bittor Andonegi, Aspanogiko presidentea, pozik azaldu zen jasotako dohaintzarekin, eta bere esker ona azaldu zion Artgazki elkarteari: "Oso pozik gaude, dirua oso garrantzitsua da bizi garen gizarte honetan, baina, batez ere, jaso dugun elkartasun keinuak asko pozten gaitu. Elkartearen zerbitzuak hobetzeko erabiliko dugu. Oso ondo etorriko zaigu, besteak beste, Donostian jarri nahi dugun familientzako etxebizitza prestatzeko. Orain dela urte eta erdi naiz elkarteko presidente eta harrituta nago laguntza eskaintzeko jasotzen ditugun dei pilarekin. Hunkigarria da. Bihotzez eskertu nahi dut Artgazki elkartearen laguntza, eta esan gura nuke, era berean, erakusketa ikusi dudala eta sekulako argazkiak batu dituztela!".

# Ikuskizunentzat tartea izango da Aratusteetan

### Gaur arratsaldean Arrasate Musikalekoek eskainiko duen kontzertuak emango dio hasiera festari

**M.T.** | ARRASATE

Gaur, 18:30etan, ohitura den moduan, Arrasate Musikalekoen Aratusteetako kontzertua izango da Amaia antzokian, mozorro festari hasiera emanda. Kontzertu honetan, Arrasate Musikaleko hainbat talde desberdin igoko dira taula gainera: talde mistoak, banda gaztea, perkusio taldea... Ballet taldekoen emanaldiarekin bukatuko da kontzertua.



Iazko kontzertua Amaia Antzokian. | IMANOL SORIANO

Gaur, Aratusteen aitzakiaz, jai giroko pieza alaiak interpretatuko dituzte, eta estilo aldetik barietate handia egongo da. Gainera, beti bezala, musikariek mozorrotuta eskainiko dute emanaldia.

Bihar ere, Aratusteetako egun handietako bat izanik, musikarik ez da faltako Arrasate Musikalekoen eskutik. Euren txaranga kalerik kale ibiliko da, bai eguerdiko desfilean, baita arratsalde partean.

**Heroiak**

Domekan, Txalo antzerki taldearen *Heroiak* antzezlana izango da Amaia antzokian, 19:30etan hasita. Sarrerak hamar eurotan daude salgai Arrasateko Udalaren webgunean, eta leihatilan ere salduko dituzte.

Ramon Agirre, Kandido Uranga eta Jose Ramon Soroiz aktore ezagunek jardungo dute eszenatoki gainean. Hain zuzen ere, nagusien egoitza batean dauden hiru beteranoren istorioa kontatzen du antzezlan horrek. Enrike herrena da, Gustabok agorafobia du eta Felipek zorabioak izaten ditu sarri, buruan txertatuta geratu zitzaion metraila pusketa baten erruz... Hala ere, egoitzatik ihes egitea pentsatu dute, baina nora joango diren erabakitzea falta zaie.

**Pailazoak**

Martitzena izango da Aratusteetako azken eguna, eta Arrasateko neska-mutikoek zein euren gurasoek plan bikaina daukate arratsalderako Amaia Udal Antzokian; izan ere, bostetan hasita, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute. Hirukote xelebre horrek *Kolore* izeneko emanaldia dakar martitzenean Arrasatera.

Zirkuko pailazoak dira hirurak, eta Europan zehar hainbat bider ibili izan dira. Hala, ordubete inguruko ikuskizunean, hamabost minutuko saiotxoak egiten dituzte.

Gari, aurpegi zuriduna, taldeko azkarrena da, eta beti dago beste biei aginduak emateko prest. Montxo, berriz, hiruretatik bihurriena da, baina, aldi berean, alaia eta oso dibertigarria. Joselontxo, aldiz, taldeko inuzentea da, baina guztietatik maitekorrena.

## Italiatik datorren Small Jackets taldearen zuzenekoaz gozatzeko aukera datorren eguneko Kooltur-en

Rock-and-roll gogorra gustuko dutenek hitzordu garrantzitsua daukate datorren eguen gauean, otsailaren 11n, hain zuzen, Arrasateko Gaztetxean. Laukoteak 2000. urtean hasi zuen ibilbidea, eta lau album kaleratu ditu geroztik. Orain, Europan zehar bira bat egiten dihardute. Euren rocka zuzena, zorrotza eta indartsua da, eta glam kutsua dauka, baita blues ukituak ere. Sarreraren prezioa bost euro izango da, eta emanaldia gaueko hamarretan hasiko da.

Bertan
igogailuak | ascensores

- 24 orduko emergentzia-zerbitzua
- Pieza guztiak barne
- Industriako inspekzioak
- Iraupen-konpromisorik gabeko kontratua
- Emergentzia-telefonoa eta argiak bakarrik itzaltzeko instalazioa DOAN
- Dena, 100 €-tik aurrera
- Euskarazko zerbitzua eta Debagoienetik bertatik eskainia




www.bertan.eus | info@bertanigogailuak.eus
Garaia. Goiru 1A - 20500 Arrasate • Tel.: 943 90 34 50 | 691 64 79 65




Gobernua osatzen duten alderdietako ordezkariak, aurrekontu proposamena aurkezteko saioan. | TXOMIN MADINA

# "Kultur ekipamendurako" milioi bat gehiago, permuta aldatuta

UNED ez doa Arrizuriagara, Gobernuaren aurrekontu zirriborroaren arabera

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

23.128.185 euro; horixe da Udal Gobernuak 2016rako prestatu duen aurrekontu proposamenaren zenbateko osoa. 2015ekoa baino milioi eta erdi handiagoa izango litzateke aurtengo aurrekontua; Elena Lete alkateak proposamena aurkezteko atzo egindako agerraldian azaldu zuenez, igoera, neurri handi batean, Arrizuriagaren eta Errege Seminarioaren inguruko hitzarmena aldatzetik etorriko litzateke: "Akordio hori aldatzeko asmotan gaude eta, horren bitartez, Udalak berreskuratuko du lehen ipinitako milioi bat, eta berreskuratuko du bere ekipamendu kulturaletan erabiltzeko".

Hain zuzen ere, Kultura Saila izango da, aurreikusitakoa betez gero, aurrekontuan igoera handiena izango duena, iazkoarekin alderatuta %49koa. Jaitsierei dagokienez, hezkuntzara eta ikastetxeetara bideratutako kopuruak izango luke handiena, ia %41ekoa.

Inbertsioetara 3.269.501 euro bideratzea da, berriz, Udal Gobernuaren asmoa. Hala, 100.000 euro Ipintzan estalitako harmailak jartzeko erabiliko lituzkete, eta Labegaraieta berritzeko proiektua lantzeko, 72.000.

Eta sustapen ekonomikora zuzendutako inbertsiorik ere egongo da. Batetik, baserri auzoetan, Haziren plan estrategikoaren araberako lanak egiteko asmoa iragarri zuen alkateak; bestetik, industrialdeetarako asmoak ere badituzte: "Guk ditugu industriagune batzuk, batzuk zaharrak, beste batzuk berriak, eta beste batzuk hutsik. Larramendikoa lur-gordailu moduan ikusten dugu guk; Sprilurrekin eta Sprirekin hartu-eman estuak dauzkagu, hor garatzeko eta gauzatzeko hainbat pabiloi, pertsona eta enpresa ekintzaileek aukera bat izan dezaten", zioen alkateak.

**Igoerarako beste arrazoi bat**

Zerga arloan egindako aldaketa da, alkateak azaldutakoaren arabera, aurrekontuak izango lukeen igoeraren beste arrazoi bat. Ondasun Higiezinen Gaineko Zergak aldaketa nabarmena izango du, orain arteko errekargua ezabatuta: "Aurrekontu hauetan, dagoeneko, ez dago errekargua sartuta, gure programan azaldu genuen bezala. Eta hori egin dugu uste dugulako herrirako ona dela; horren bitartez ez da lortu etxebizitza gehiago erabiltzea, baina bai lortu dugu gure biztanle batzuk hemendik kanpora joatea", azaldu zuen alkateak.

Elena Letek gaineratu zuen, era berean, Udalaren zorpetze maila jaitsi egingo dela, eta horrek interes gutxiago ordaindu beharra ekarriko duela.

**Hilaren 29ko osoko bilkuran**

Partaidetza, gardentasuna, bizikidetza, herritarrak, kohesio soziala eta garapen ekonomikoa dira, Gobernuaren arabera, 2016ko udal aurrekontua lantzeko orduan aintzat hartu dituzten zeharkako irizpideak. Alkateak adierazi zuen, baita ere, dagoeneko helarazi dietela aurrekontu proposamena oposizioko alderdiei, egoki ikusten dituzten iradokizunak eta emendakinak egiteko. Horiek denen artean lantzeko "konpromisoa" ere hartu zuen. Otsailaren 29ko osoko bilkuran bozkatuko dute aurrekontua.

# Mikel Askasibar kalean, 25 urte preso eginda

Atzo goizean irten zen Herrerako kartzelatik, eta 40 lagun inguruk egin zioten lehen harrera

**J.I.** | BERGARA

Iragarritako egunean, 09:50ean irten zen Herrera de la Manchako espetxetik Mikel Askasibar. Zain zituen *Aska*-k Bergaratik eta Zarauztik –familiak bertan du bizitokia– kartzelaraino lehen harrera egitera joandakoak, lagunak eta senideak, 40 lagun inguru denera.

Kartzelatik irtenda, muxuz eta besarkadaz hartu zuten 25 urte preso egin dituen Askasibar –1991n atxilotu zuten, poliziarekin enfrentamendu bat izan eta gero; ETAko kide izateagatik zigortu zuten–.

Askasibarrek azaldu zuen, irten aurretik ordu erdi egin zuela patioan gainerako euskal presoekin –dozena inguru dira Herreran–, eta "gogorra" egin zitzaiola haiek agurtzea. Harrera egin ziotenen artean, berriz, berarekin kartzelan egondako beste bi lagun zeuden, horietako bat Pablo Gorostiaga, Laudioko alkate ohia. Erredakzio hau itxi ostean, 19:30ean ziren Bergaran harrera egitekoak.




Mikel Askasibar –erdian–, senideekin, kartzelatik irten berritan. | GOIENA

### Hilaren 14ra arte eman daiteke izena otsailaren 21eko Domeka Azokan postua jarri ahal izateko

Trukea, berrerabiltzea eta artisautza bultzatu nahi dituen azokan postua jartzeko, lehentasuna izango dute bigarren eskuko materiala saltzen dutenek eta trukerako aukera ematen dutenek. Artisauei dagokienez, lehentasuna izango dute Bergarakoek, eta gero bailarakoek. Azokan eskainiko diren produktuen aniztasuna zainduko du Udalak, eta horren arabera onartuko dute ze artisau onartu. Izena Udalaren webgunean eman behar da.

NIRE USTEZ

**IGOR OIARBIDE**



## Noizko genero indarkeriaren amaiera?

Joan den asteko Gasteizko 17 hilabeteko haurtxoaren heriotza bortitzak hunkitu egin nau eta gaiaren inguruan pentsarazi dit.

Nahiz eta azken urteetan aurrerapenak egon, hartu diren neurriek ez dute ezabatu oraindik gure gizartean txertatuta dagoen arazoa. Oraindik falta da: baliabide gutxiago dituzten pertsonek zailtasunak dituzte justizia duin bat izateko; aurrekontua falta da; kontzientzia aldaraziko duten kanpainak ere bai; eta gizartearen arlo guztietan gai honi buruzko kulturan sakondu beharra dago.

Ondorioek adar anitz dituzte, eta biktimaren inguru osora zabaltzen dira. Genero indarkeriaz kutsatutako ingurune batean hazten diren haurren kasuan, portaera eta emozio nahasteak oso sarri izaten dira, heldutasun arora ere luzatuz.

Horregatik da hain beharrezkoa erakunde eskudunek areagotu ditzaten genero diskriminazioa borrokatuko duten eta hura jasaten dutenak babesteko programak, berdintasuna sustatuz eta arau kultural adeitsu eta bakezaleen moldaketa aldarrikatuz. Behar-beharrezkoa da gai honen inguruan heziketa goiztiar bat, eta behar bezalako garrantzia ematea, aldaketa kulturala eta arazo hau erauztea ahalbidetzeko.

Airean dagoen galdera da: zenbat urte falta dira, XXI. mende bete-betean, gaitz hau errotik kentzeko?

**"Gai honi buruzko kulturan sakondu beharra dago"**

## Alecopekin, 'Elkarrekin ikasten'

KOMUNITATEA GOIENA
MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA | BERGARA

Miguel Altunak bultzatutako programaren barruan, Alecopeko ordezkari batek Fabrikazio Mekanikoko Diseinu zikloko ikasle eta irakasleekin jardun du hainbat azalpen ematen.



MIGUEL ALTUNA

# 4.883 kilo elikagai batu dituzte sahararrentzat

Udalak 1.200 eurorekin lagundu du Bubisher, batutakoaren garraiorako

JULEN IRIONDO | BERGARA

Gabonen bueltan egin zuten oraingoan ere elikagai bilketa –pixoihalak eta bestelakoak ere batu dituzte– Bubisher elkartekoek. Herriko denda eta supermerkatuetan egin dute bilketa, eta baita ikastetxeen bitartez ere. Eta Bergaran bakarrik ez, Antzuolan, Elgetan eta Soraluzen ere gauzatu dute kanpaina –azken bietan eskoletan bakarrik batu dute–.

Guztira batutako ia 5.000 kiloetatik 3.950 Bergaran jaso dituzte –Antzuolan, 649; Elgetan, 54; eta Soraluzen, 230–. 2014 urtetik 2015era asko hazi zen bildutako kilo kopurua –1.000 kiloren bueltan, bai Bergaran eta bai herri guztiak aintzat hartuta–, eta orain apur bat behera egin du zenbatekoak –400 kilo Bergaran eta 300 denera–, baina Bubisherretik azaldu dute "bikaina" izan dela herritarren erantzuna. Jaitsieraren arrazoiak "sakonean aztertzea" falta arren, azalpena "beste herrialde bateko errefuxiatuen egoera larriari eta emergentziazkoari laguntza eskaini behar izana" izan daitekeela azaldu dute elkartetik.

Bergaran eta inguruan jasotako elikagaiak Bilbon dira dagoeneko, eta hil honetan irtengo da elkartasun karabana saharar kanpalekuetarantz –euskal herritan jasotako denarekin–. Premia handia dute han, basamortuko ohiko baldintza gogorrei iazko urriko uholdeen ondorioak gehitu behar zaizkie-eta: "Inoiz ezagutu gabeko uholdeak egon ziren, eta milaka familiak dena galdu zuten: etxea, janaria, arropak...". 25.000 lagunek galdu zituzten etxea eta elikagaiak, Acnur erakundearen datuak aipatuz Bubisherretik azaldu dutenez.

Elkarteak eskerrak eman dizkie aurtengo kanpainan era batera edo bestera lagundu duten guztiei.

**Eta Udalari ere eskerrak**

Udalak 1.200 euroko laguntza eman dio Bubisherri, elikagaien garraioan laguntzeko. Laguntzarekin, "boluntarioen lana", "herritarren ahalegina" eta Udalaren "konpromisoa" agerian utzi nahi dituztela azaldu du Elena Lete alkateak. Bubisherko Marcos Gabilondok eskerrak eman dizkio Udalari, honetan eta beste proiektuetan ematen dien laguntzagatik.



Jasotako elikagaiak kamioira igotzen. | BUBISHER



Barrenetxea, Gabilondo eta Lete. | J.I.



San Blas eguneko elizkizuna, Buruñaon. | IÑIGO ZIARRETA

## San Blas eguna ospatuta, jaiei jarraipena asteburuan Buruñaon

J.I. | BERGARA

Gaur –egubakoitza–, 19:00etan, San Blas ermitako ermandadeko kideen bilkura egingo dute. 20:30ean, berriz, auzo afaria, eta jarraian erromeria.

Bihar, mus txapelketa egingo dute –zortzi erregetara–, 16:00etan hasita. Sariak: garaikurrak eta 120 euro, irabazleentzat; 80 euro, bigarrenentzat; 50, hirugarren bikotearentzat; eta sari berezia, laugarren sailkatuentzat. 15:30ean hasiko da izenematea –15 euro bikoteko–.

Domekan, azkenik, meza izango da 11:00etan, eta salda, ondoren, auzo elkartean. 12:00etan, Aranzadi ikastolakoek eta Moises Azpiazu dantza taldekoek ekitaldia egingo dute, eta haurrentzako kukainak egongo dira jarraian. Bergarako Musika Eskolako soinujoleek alaituko dute goiza. Antolakuntzatik azaldu dute jaietara mozorrotuta doazenek "detaile bat" jasoko dutela.



EGUNEKO ZENTROA

## Erretiratuak santa eskean

San Joxepeko abesbatzakoak kantuan ibili ziren atzo goizean. Mizpirualden hasi, handik Mariaren Lagundiko mojengana, Bidekurutzetara, plazara, Iralara, eta eguneko zentroan amaitu zuten.



LARRAITZ ZEBERIO

## Martin Aranari omen

Nagusilango kide legez azken 27 urteetan Mizpirualde egoitzan egindako boluntario lana eskertu zioten Aranari. Nagusilango presidentea eta alkatea izan ziren, besteak beste, omenaldian.

## Ikastaro aukera zabala datozen asteetan: joskintza, Wordpress eta nutrizioa

J.I. | BERGARA

Nutrizio ikastaroa Jardunek antolatu –izena, bertan: 12 euro; bazkide ez direnek 15– eta Mireia Alberdi dietistak emango du, hilaren 16an, 18an, 23an eta 25ean –19:00-20:00–.

Beste bi ikastaroak Bizikasik antolatu ditu. Otsailaren 16tik martxoaren 3ra, martitzen eta eguenetan –18:00-20:00–, oinarrizko joskintza irakatsiko dute Anezkan. 15 euro kostako da.

Wordpress ikastaroa –web eta blog diseinua–, berriz, astelehen eta eguaztenetan izango da, otsailaren 22tik martxoaren 22ra –17:00-19:00–, Miguel Altunan, Rosa Baenak emanda eta elebitan –20 euro–. Izena: *info@bizikasi.com*.

## OHARRAK

**ODOL EMATEA**

Eguaztenean izango da hurrengo odol ematea, 18:00etatik 20:00etara, osasun zentroan.

**BASERRITARREN AZOKA**

Eguaztenetako baserritarren azokan, bertako eta sasoiko produktuez gain, makrame tailerra ere egongo da, 18:00etan. Pintxo-potea, berriz, Kai tabernak eskainiko du.

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

# Aratusteei ongietorria itsasontzi gaineko bidaian

## Egun bakar batean agortu ziren gaur gaueko 'The Love boat' kontzertu-ikuskizunerako sarrerak

**MAITE TXINTXURRETA** | BERGARA

Urtero moduan, kontzertu berezi batekin hasiko dira Aratusteak Bergaran. Aurten, *The love boat* edo *Maitasunaren itsasontzia* 80ko hamarkadako telesail famatua oinarri izango dute ikusleak musikaz gozarazi eta barrez leherrarazteko. Hitzordua Udal Pilotalekuan izango da, 22:30ean, eta ordu eta erdi inguruko iraupena izango du.

Salgai jarri zituzten 902 sarrerak egun bakar batean agortu ziren; beraz, gaur ez dituzte ikuskizunaren aurretik frontoiko leihatilak irekiko.

Beti bezala, bi zatitan banatuta egongo da gaurko ikuskizuna. Lehenik, bandak hogei minutu inguruko kontzertutxoa eskainiko du, eta horren ostean emanaldi luzea etorriko da.

Bergarako Udal Bandak, Bergarako Orkestrak, Aritzeta abesbatzak, Debako Kulunka dantza taldeak eta norbanako boluntarioek hartuko dute parte gaur gaueko ikuskizunean. Guztiak mozorrotuta joango dira, itsasontzi batean oporretan baleude bezala.

Beste behin ere, Manu Diaz arduratu da antzezpenen gidoiaz eta Javier Burgos, berriz, eszenografia prestatzeaz.

**Musikarekin bidaiatuz**

Bandako eta Orkestrako zuzendari Alfredo Gonzalez Chirlaquek azaldu duenez, istorioan itsas bidaia bat kontatuko dute, eta herrialde desberdin batera iristen diren bakoitzean bertako musika joko dute. Hala, lehenik Irlandara joango dira, ondoren New Yorkera, gero Jamaika aldera, eta bukatzeko, Venezuelako Isla Margaritara. Telesaileko sintonia ere joko dute, noski.

Zuzendariak azaldu duenez, aurtengo gaiak "zailtasun berezia" dauka, gag bakoitzak jende eta arropa aldaketa eskatzen duelako, eta horretarako azkar ibili beharko dutela, asko dira eta: "hogeita hamar eta berrogei pertsona artean izango dira momentu oro eszenatokian".

Gaur gauean, 2015ean zendu zen James Horner konpositore estatubatuarrari "omenaldi txiki bat" egingo diotela azaldu du Gonzalez Chirlaquek. Hornerrek pelikula famatu askotako soinu bandak konposatu ditu, eta Bergarako Bandak eta Orkestrak lan horien adaptazio ugari interpretatuko dituzte; horien artean ezagunena, *Titanic* filmeko *My heart will go on*.

**Mozorrotzeko deia**

Alfredo Gonzalez Chirlaquek kontzertua ikustera joango diren bergararrak animatu nahi izan ditu gaur gauean ere Aratusteetako mozorroa jantz dezaten.

# Otsailean hasiko dira entrenatzen Lokatzakoak

**M.T.** | BERGARA

Hasi berri dugun hilabete honetan Lokatza ziklismo eskolako taldeak martxan jarriko dira datorren denboraldira begira, eta entrenamenduei ekingo diete.

2016ko lehen lasterketa 42. Gorlara Igoera Peugeot Etormobil saria izango da, martxoaren 20an.

Aurten, Bergarako txirrindulari taldean momentuz ez dute kadete eta jubenil mailetan talderik lortu, eta infantil eta alebin mailetan talde bana daukate. Hala ere, Jon Unamuno presidenteak gogorarazi du oraindik ere badagoela izena emateko aukera, edozein kategoriatan.

**Bizikleta festa**

Hurrengo zapaturako, otsailak 13, Bizikleta Festa antolatu du Lokatzak. 11:00etan hasita, bizikletan ibiltzeko zirkuitu bat jarriko dute Seminarioko patioan. Aurrez ere egin izan dute ekimen bera, eta horren helburua "txirrindularitza neska-mutikoei gerturatzea" da. Han ere Lokatzan apuntatzeko aukera izango da.





Ezkerrean, EIO Txikin arituko direnak; eskuman, Moñux. | MUSIKA ESKOLA

# Lau bergarar Euskadiko Ikasleen Orkestran izango dira aurten

**M.T.** | BERGARA

Probak egin ostean, Bergarako Musika Eskolako ikasle diren Ekain Olaziregi eta Uxue Garitano biolontxelo joleak eta Maitane Suinaga biolin jolea aukeratu dituzte Euskadiko Ikasleen Orkestra Txikiaren parte izateko. EIO Txiki Eusko Jaurlaritzak aurten sortutako proiektua da, hamahiru urtetik beherako neska-mutikoentzat.

Miriam Moñux biolin jolea azken hiru urteetan aritu da Euskadiko Ikasleen Orkestrako gazteen taldean, eta aurten, EIO Gazten aritzeaz gainera, EIOn ere arituko da, probak gainditu ostean. Lehenengoan, bederatzi eta hamabost urte bitarteko gazteak aritzen dira eta bigarrenean, berriz, hamalau eta hamazortzi urte bitartekoak.

**Asmo berriak**

Aurten EIOk Kataluniako Gazte Orkestrarekin batera egonaldia eta kontzertuak egingo ditu udan. Euskaldunak Vic-eko seminarioan izango dira ekainean programa prestatzen, Katalunian eta Euskal Herrian kontzertu bana eskainiko dute. Bestalde, zuzendari berria daukate: Juanjo Mena, egun BBC orkestrako zuzendaria dena.

Txikiek entseguak egingo dituzte lau domekatan, eta EOI Gazterekin kontzertuak emango dituzte apirilaren 2an eta 3an.

# Abiarazi dute Koldo Eleizalde literatura lehiaketa

**M.T.** | BERGARA

Abian da 31. Koldo Eleizalde literatura lehiaketa. Azken urteotan bezala, aurten ere idatzizko generoak eta ahozkoak daude aukeran. Lehenengo multzoan bi sail daude: ipuin idatzia eta komikia; eta bigarrenean beste bi: bertsoa eta kontaketa/interpretazioa. Azken horretara hainbat lan mota aurkeztu daitezke: antzerkiak, ipuin-kontaketak, umorezko pasadizoak, txiste-saioak…

Egile bakoitzak nahi adina lan aurkeztu ahal izango ditu. Epea martxoaren 17ra artekoa da. Lehiaketaren oinarriak Bergarako Udalaren webgunean ikus daitezke.



AMAIA AGIRREZABAL

# Beti Bustikoak bolada onean

Eslalomean, kadete mailako Euskadiko Kopako lehen txapelketa jokatu zuten zapatuan Irunen. K1H kategorian, Unai Otaduik eta Julio Narbaizak bigarren eta hirugarren egin zuten. C1D kategorian, berriz, Miren Murgizu txapeldun izan zen, eta C2H binakakoan, Manso eta Otadui. Taldekako sailkapenean, Beti Bustik hirugarren egin zuen.

## LABEGARAIETA

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Arrano Zabalik-America | **4-3** |
| Poteo Izarrak-River City | **6-4** |
| Komando Piperrak-Vodka Juniors | **13-1** |
| Estrella Coja-Errefuxa | **4-6** |
| Birgerias-Sanpe United | **7-5** |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| **1** | Estrella Coja | **30** | **11** |
| **2** | Errefuxa | **27** | **11** |
| **3** | Komando Piperrak | **21** | **11** |
| **4** | River City | **20** | **11** |
| **5** | Poteo Izarrak | **20** | **11** |
| **6** | America | **17** | **11** |
| **7** | Birgerias | **12** | **11** |
| **8** | Arrano Zabalik | **11** | **11** |
| **9** | Vodka Juniors | **10** | **11** |
| **10** | Sanpe United | **9** | **11** |
| **11** | H.I.S | **9** | **11** |
| **12** | SVC | **6** | **11** |

**PARTIDUAK**

Otsailak 16, Egubakoitza
**22:00** K.Piperrak-Arrano Zabalik / **America**
**23:00** America-Poteo Izar. / **K. Piperrak**
Otsailak 6, Zapatua
**15:45** HIS-Birgerias / **Errefuxa**
**16:45** Errefuxa-SVC / **Vodka Juniors**
**17:45** River City-Vodka Juniors / **SVC**

### Bigarren itzulia

Labegaraietako futbito txapelketako bigarren itzulia hasiko dute asteburu honetan. Joan den astean bigarren doan Errefuxaren aurka galduta ere, Estrella Coja lider iritsi da ligaren erdialdera.

### Futboleko infantil txikiak, jardunaldiko onenak Radio Marcaren ustez

Bergara Kirol Elkarteko infantil txiki taldeak jardunaldiko Gipuzkoako talde onenaren saria jaso du. Lurraldeko futbol talde guztien artean 5 puntu banatzen ditu astero Radio Marcako *Gipuzkoa futbol* irratsaioak, eta asteon bergararrek irabazi dute sari nagusia. 0-3 galtzen hasita, 6-4 irabazi zioten Kostkas indartsuari domekan Ipintzan.

### Domekan jokatuko dituzte asteburuko pilota partiduak

11:30ean hasita, errendimendu txapelketako alebinek jokatuko dute lehenik: Pereira-Etxaniz, Legazpikoen aurka. Jarraian, Udaberri txapelketako nagusien 2. mailan, Aristik eta Rezustak Iparraldekoak izango dituzte aurkari. Bukatzeko, nagusien Euskal Ligan, Eneko Muguruza Urdulizko pilotariaren kontra.

### 'Ayer gauean' antzezlana Ipintza institutuko aretoan

Urtero legez, Aratusteei ongietorria emateko antzezlan bat egingo dute gaur Ipintzako ikasleek. Pello Lezertua irakasleak "zer gertatzen da Ipintzan euskeraren erabilerarekin?" galdetu zien ikasleei, eta, hortik abiatuta, istorio bat asmatu zuen. Zumarragatik Bartzelonara doan trenean kokatu du gertakizuna.

### Saskibaloiko taldeak lehen garaipena lortu du liderraren aurka

Bergara Kirol Elkarteko saskibaloiko senior taldeak denboraldiko lehen garaipena erdietsi du asteburuan, orain arteko hamabost partiduak galdu ostean. Gainera, Arri BKL liderraren aurka irabazi zuen kanpoan, 62-68ko emaitzarekin. Bihar, bigarrena, Errotaundi, hartuko du etxean, 19:30ean, Labegaraietan.



Dalmata txakurrak Aratusteetako kalejiran, iaz. | IMANOL SORIANO

# Euri edo elur, jantzi mozorroa eta Aratusteak ospatu!

Balkoiak apaintzea eskatu du Udalak eta dotoreenak 200 euroko txartela jasoko du Aretxarten erabiltzeko

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Azken orduko ukitutxoak egiten dabiltza herriko kuadrillak Aratuste-domekako mozorroei, eta Azbe lantegiko eraikinean karroza gehienak gertu daude. Izan ere, aretxabaletarrak Aratusteak noiz hasiko zain daude, joan den zapatuan Txapel Txinek horiek iragarri eta gero.

Kuadrillek girotuko dute, beste behin, Aratuste-domeka, eta, euria izan edo elurra egin, ez ditu ezerk etxean geraraziko. Udalak, berriz, balkoiak apaintzera gonbidatu ditu herritarrak, eta originalenak saria izango du: 200 euro Aretxarteko dendetan gastatzeko.

Goizeko kalejiraren ostean bazkaltzera erretiratuko dira guztiak, eta askok kiroldegira joko dute. 600 lagun elkartuko dira herri bazkarian –txartelak bi ordutan agortu ziren– giro ezin hobean, gainera, DJ Mikelek lagun egindа. Arratsaldean mozorro lehiaketako sariak banatuko dituzte. 160 euroko bost sari izango dira, eta honako hauek jasoko dituzte: originalenak; kale animazio onenak; muntaia onenak; bikote nahiz bakarkako mozorro onenak; eta adin ezberdinez osatutako talde onenak. 16 urtetik beherakoen artean ere bost sari banatuko dituzte.

**Martitzenean umeak**

Aratuste-martitzena ikastetxeetako neska-mutikoek girotuko dute. Plazan elkartu eta dantzan egingo dute, batetik, 2 urtekoek, eta, bestetik, 5 urtekoek.

Arratsaldean buruhandiek eta txarangak hartuko dute lekukoa, eta Aratusteak agurtzeko Txinen hileta izango da Santa Ageda neska-mutilen eskutik.

## ARATUSTEETAKO EGITARAUAK

**DOMEKA**

- **10:00** Diana txistulariekin.
- **11:45** Txino dantza Mitarte eta Durana kaleetan.
- **12:00** Kuadrillen desfilea.
- **13:00** Kalejira Akelarre txarangarekin.
- **14:30** Herri bazkaria kiroldegian Mikel DJak girotuta.
- **18:00** Kalejira txarangarekin kiroldegitik Herriko Plazara.
- **18:45** Mozorro lehiaketaren sari banaketa.
- **19:00** Santa Ageda neska–mutilen dantza saioa.

**MARTITZENA**

- **10:30** Ikastetxeetako neska–mutikoak Herriko Plazan elkartuko dira.
- **11:00** Kalejira Irulitza txarangarekin eta Lehen Hezkuntzako neska–mutikoen dantza.
- **16:00** Kalejira txarangarekin.
- **17:30** Buruhandien kalejira txarangak lagun eginda.
- **20:00** Txinen hileta*. Santa Ageda neska–mutikoek zerraldoa eramango dute Mitarte kaletik Herriko Plazaraino.

* Hiletara lutoz jantzita joatea eta kandelak eskuetan eramatea gomendatu dute.

Balkoiak apaintzea eskatu dute eta originalenak saria izango du.

## 50en bat neska-mutil dabiltza Santa Ageda kantuan eta eskean

1997an jaiotako neska-mutilak ibili ziren atzo, Santa Ageda bezpera, baserriz baserri kantuan eta eskean. Ia 50en bat dira, eta gaur, otsailak 5, kalerik kale eta etxerik etxe jardungo dute. Ilunkaran, ostera, 19:00etan, aurtengo lehen dantza saioa eskainiko dute Herriko Plazan. Hurrengo saioa, eta aurtengoz, azkena, etzi izango da, Aratuste-domeka.

Urtarrilean entsegu asko egin dituzte, eta dotore dantzan egingo dutelakoan daude aurtengo kintoak.

## Agin Laburu eta Iker Zubeldiarekin bertso afaria otsailaren 26an

Loramendi elkarteak Lekaixoka bertso eskolarekin batera bertso afaria antolatu du, beste urte batez. Hilaren 26an izango da, Hibai Gain elkartean, eta Agin Laburu (Astigarraga, 1985) eta Iker Zubeldia (Zegama, 1981) bertsolari ezagunek girotuko dute.

Afarirako txartelak dagoeneko salgai daude: Loramendiren bulegoan eta Gurea eta Urbaltz tabernetan. Bazkideek ordainduko dute 18 euro eta gainerakoek, 20 euro. Erosteko azken eguna otsailaren 25a da.



# Galdeketarako pausoak ematen hasi da GED

## Martitzeneko batzarrean lantaldeak eratu zituzten; bihar, zapatua, kriseiluak bidaliko dituzte zerura



Jendetza martitzenean egindako batzarrean. | GED

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Gure Esku Dago dinamikaren Aretxabaletako taldeak batzarra egin zuen martitzenean, herri galdeketaren antolaketan lehen pausoak emateko hasteko. 64 lagun elkartu ziren, Arkupen, eta lantaldeak eratuta geratu direla jakinarazi dute GEDko kideek. Hala ere, laguntza jasotzeko gertu daude: "Edozein ekarpen egin gura izanez gero, gure ateak irekita ditugu; horregatik, dei egiten dugu laguntzeko gertu dagoen edonor gurekin harremanetan jartzeko". Hona bideak: Twitter *@GEDatxabalta*, Facebook eta posta elektronikoa: *gureeskudago.atxabalta@gmail.com*.

Bestetik, bihar, otsailak 6, kriseiluak bidaliko dituzte zerura Ibarra kiroldegi aurreko zelaitik, 18:30ean. Urtarrilean atzeratu beharrean izan ziren *Argitu erabakia* izeneko ekitaldia da.

### EMAKUMEEN II. FRONTENIS TXAPELKETA

## Giro ezin hobea txapelketa hasieran

**LEHEN JARDUNALDIKO EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Amaia Gastañaga - Jasone Garzia-Etxabe / Marina Retolaza - Elena Egino | 14-25 |
| Lore Martinez - Rosa Ojuel / Leire Valle - Maite Fraile | 25-23 |
| Larraitz Iñurrategi - Aitziber Kintanilla / Eli Berridi - Ane Aspe | 3-25 |
| Anabel Aranzadi - Marijo Bastardo / Naiara Alonso - Maite Otxoa | 11-25 |
| Naiara Amezua - Anais Fernandez / Lur Delgado - Dorleta Elkorobarrutia | 10-25 |
| Rebeka Ubera - Miren Argi Zeziaga / Amaia Gastañaga - Jasone Garzia-Etxabe | 25-17 |
| Idoia Elkoro - Iratxe Bravo / Ainara Muga - Amaia Retolaza | - |
| Rebeka Ubera -Miren Argi Zeziaga / Amaia Bolinaga - Maite Txintxurreta | 17-25 |
| Lore Martinez - Rosa Ojuel / Idoia Elkoro - Iratxe Bravo | 25-10 |
| Amaia Bolinaga - Maite Txintxurreta / Marina Retolaza - Elena Egino | 25-24 |
| Leire Valle - Maite Fraile / Ainara Muga - Amaia Ariznabarreta | 19-25 |
| Anabel Aranzadi - Marijo Bastardo / Ariane Unanue - Ibone Arrieta | 13-25 |
| Eli Berridi - Ane Aspe / Lur Delgado - Dorleta Elkorobarrutia | 14-25 |
| Naiara Alonso - Maite Otxoa / Eneritz Ollobarren - Yaiza Cid | 25-2 |

**BIGARREN JARDUNALDIKO PARTIDUAK-OTSAILAK 6**

| | |
|---|---|
| 9:00 | Larraitz Iñurrategi - Aitziber Kintanilla / Lur Delgado - Dorleta Elkorobarrutia |
| 9:30 | Naiara Alonso - Maite Otxoa / Ariane Unanue - Ibone Arrieta |
| 10:00 | Rebeka Ubera -Miren Argi Zeziaga / Marina Retolaza - Elena Egino |
| 10:30 | Leire Valle - Maite Fraile / Idoia Elkoro - Iratxe Bravo |
| 11:00 | Ariane Unanue - Ibone Arrieta / Eneritz Ollobarren - Yaiza Cid |
| 11:30 | Amaia Bolinaga - Maite Txintxurreta / Amaia Gastañaga - Jasone Garzia-Etxabe |
| 12:00 | Eli Berridi - Ane Aspe / Naiara Amezua - Anais Fernandez |
| 12:30 | Anabel Aranzadi - Marijo Bastardo / Eneritz Ollobarren - Yaiza Cid |
| 13:00 | Larraitz Iñurrategi - Aitziber Kintanilla / Naiara Amezua - Anais Fernandez |
| 13:30 | Lore Martinez - Rosa Ojuel / Ainara Muga - Amaia Ariznabarreta |



ODILO VAZQUEZ

## Vazquez anaiak Gipuzkoako txapeldunak

Hondarribian jokatutako txapelketan eskuratu zituzten lehen bi postuak Vazquez anaiek: Oxelek lehenengoa eta Odeik bigarrena. Senior mailan jardun zuten norgehiagokan, 67 kiloz azpikoen artean.

### NIRE USTEZ

MARTIN ANTXIA



## 'Poste-gol'

Atxabaltak emun dau bere hitze eta nagusittasun osoz 5. edukiontzixe eukiko dogu, bertsio barrixen, barriro be kalietan, noiz ez dakitteten arren. Herriko paisaiaren parte bihurtu dien poste horreik zentzue galduko daue, edo beste bat irabazi, imaginazino eta sormen apur bat botaten badutzau.

Postie, futbolzaliek garenok, badakigu, bertako elemento zilindriko bat dala, garaipenaren eta porrotaren arteko muga, arrakastaren eta hutsaren arteko elementu garrantzitsue. Gainera, golak, postien jo ostien sartzen badie ba oso polittek izeten die, *poste-gol* edo *langa-gol* moduen ezagunak die. Eta holaxe ikusten dot herrixek hartutako erabaki hau. Erosotasunien eta sistemaren merketasunien (nahiz eta tasakin ikusiko dogun zer gertatzen dan) aurrera eginaz, helburu bardine mantentzeko gai dan sistema batera goiez.

Baine gauza bat ez dau argi, herrixek poste ondora egin dauen jaurtiketa hau, postera egin douen azkeneko jaurtiketa, postien jo ostien sareetara fango dan edo ez. Hau da, atez atekuaz irabazitteko emaitza onak mantentzeko gai izengo garen ala ez.

Niri, egixe esan biher badot, atez atekuek emun eusten zabor banaketa maila, egunero sailkatzera derrigortute, izugarrixe izen da eta atxabaltarrondako *Masterclass* gogaikarri baine eraginkorra izen da, zalantza barik. Hor daz datuak.

Eta helburua bittartekuen gainetik dauen kasu hontan, egunero entrenau dauen herri honek ez dauko arrazoirik hau ez lortzeko, atez atekuak garatutako kontzientzia eta jakinduria aplikatuaz. Intentzinue eta borondatie (nahiz eta txiparen kontrola izen) jarten jarraiketan badou postien jo ostien (orduen ia birtualak izengo die) gol eder bat sartzen jarraittuko dogu egunero, baine, bestalde, okertzen bagare apur bat postien jotakuen baloia kanpora fango da. Eta orduen akabo gure erosotasun, merketasun, e.a... sortutako poztasuna, niregan, behintzet. Gauza askoz zailauek egin dittugu herri mailan, baina ez iguel halako txingurri lana eskaketan dauienak.

Bukatzeko, bi ohartxo: herrixendako animo mezu haundi bat, sailkapenien fina izeten jarraiketiek asko merezi dauelako herri mailan eta badakigula erakutsi dalako (atzetik datozen prozesamentuetan sartu barik, lokatzara haundixegixak niretako); eta agintarixei bigarrena: ea herrixan motibazinua goixen mantentzeko gai zarien, motibazio pertsonalaz gain, adierazle esanguratsuenak sarri plazaratuz eta sailkatze kultura errotu dein ekintza-plan bat eratuz.

## Mus ikastaroa egingo dute Basotxon otsailaren 15etik 26ra artean, eta apirilean Benidormera doaz

Musean jokatzen irakatsiko die erretiratuei Roman Lopez Rubiok. Saioak izango dira otsailaren 15etik 19ra eta 22tik 26ra (17:30-19:00) Basotxon, eta bazkideek debalde izango dute ikastaroa.

Bestetik, Benidorm eta inguruak ezagutzera joango dira erretiratuak apirilaren 4tik 11ra. Prezioa da 383 euro bazkideentzat. Batean zein bestean izena emateko epea zabalik dago eta horretarako Basotxoko bulegotik pasatu behar da (11:00-12:00).


# ARATUSTEAK

GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENEKO ARATUSTEAK
ASTELEHENEAN / OTSAILAREN 8AN 20:00ETAN, 21:00ETAN ETA 22:30EAN / DEBAGOIENA ZUZENEAN
ASTEAZKENEAN / OTSAILAREN 10EAN, 22:00ETAN / ARATUSTEAK 2016

BILDAL IEZAZKIGUZU ARGAZKIAK ETA GOIENA.EUS-EN ARGITARATUKO DITUGU
WHATSAPP: 688 69 00 17 E-POSTA: BERRIAK@GOIENA.EUS

BABESLEA:
ARETXARGI
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# Gaur hasi eta martitzenera arte iraungo dute Inauteriek

▶ Bihar 212 lagun ibiliko dira kalez kale dantzan eta antzezten

▶ Martitzenean pailazoak eta DJ festa egongo dira ume eta gaztetxoendako

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Modu batera edo bestera eta batek edo besteak antolatuta, baina Inauteri jaiak gaurtik martitzenera bitartean ospatuko dira Oñatin. Bihar, zapatua, izango da ekitaldi jendetsu eta herrikoienetako bat. Oñatiko Inauteriak taldeak antolatuta, 212 lagun ibiliko dira kalez kale Aratusteak ospatzen. "Horietatik 22 musikariak dira, 23k pertsonaiak antzeztuko dituzte eta gainerakoak dantzan ibiliko diren herritarrak dira", zehaztu du taldeko kide Arkaitz Bengoak.

Aurreko urteetan bezala, 11:30ean elkartuko dira Olakua auzoko jolasgunean eta 14:00ak arte kalejiran ibiliko dira, tarteka geldiuneak eginez. "Gelditzen garen tokietan antzezpena egingo dute pertsonaiek, eta bizpahiru dantza dantzariek", argitu du Bengoak. Arratsaldeko saioa 17:30ean hasiko dute Zubikoa parean eta 20:00etan egingo dute, Foruen plazan, eguneko azken ekitaldia.

Domekan, Luzaideko dantzak egingo dituzte herriko kaleetan, 18:30ean, Oñatz dantza taldekoek.



Herritarrak Inauterietako dantzak egiten Olakua auzoan. | IMANOL SORIANO

### Patxin eta Potxin

Martitzenean, berriz, ohi bezala pailazoak egongo dira Zubikoan, eta kalean, berriz, elkartasun txokolate-jana, txorimaloak eta DJ festa. Ikastetxeek ere euren Inauteriak prestatu dituzte. Gaur Txantxiku ikastolan eta Urgain-Errekalden ospatuko dituzte eta martitzenean, Elkar Hezin.



Ardurak banatzeko bileran. | ANTIXENA GAZTETXEA

## Topaketa antolatzeko ardurak banatu dituzte Antixeneko kideek

O.E. | OÑATI

Otsailaren 19tik 21era egingo dute Oñatin Euskal Herriko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa, eta Antixena gaztetxeko kideak ari dira topaketa antolatzeko lanak lotzen.

Egitaraua dagoeneko prest dute eta antolaketa lanerako ardurak banatzeko bilera ere egin dute. Arrasateko gaztetxeko kideen laguntza izango dute Antixenekoek antolakuntzan. Bestalde, herriko beste hainbat norbanako eta elkarteren laguntza ere jaso dute gaztetxekoek; bazkaria antolatzeko edo tabernako barra muntatzeko lanak egiteko, adibidez.

Gipuzkoako hainbat herritako gaztetxeek esan dute topaketa honetan izango direla, baita Laudio, Santurtzi eta Durango aldekoek ere. Oraindik, baina, badago tartea asistentzia konfirmatzeko.

### Sukaldaritza

Gaur, egubakoitza, bestalde, Saharako jakiekin prestatuko afaria izango dute Antixena gaztetxean, 21:30ean. Kuskusa oilasko eta berdurekin, datilekin egindako pastela eta tea prestatuko dute, besteak beste. Aurrez izena ematea ez da beharrezkoa, nahikoa da ordurako gerturatzea.

## Martxoaren 8a nola ospatu adosteko batzar irekia egongo da

O.E. | OÑATI

Martxoaren 8a ospatzeko prestaketa lanak egiten hasi dira Andraitz talde feministako kideak. Zer egin adosteko, baina, batzarra egingo dute hilaren 16an. Ekarpenak jaso gura dituzte, ideiak, eta, horregatik, herritar guztiendako zabalik egongo den bilera deitu dute.

### Egitaraua

Azkeneko urteetan egin den bezala, aurten ere Zotzintxika lasterketa antolatzeko asmoa du Andraitzek. Zineklubeko arduradunekin ere egotekoak dira, Martxoaren 8aren aldarrikapenekin lotura duen film bat botatzeko datorren hilabetean. Herriko emakume artisauen azoka egitea ere pentsatu dute.

Egitaraua ari dira osatzen, baina Andraitzeko kideek jakin gura dute beste zer egin daitekeen edo herritarrek zer ikusi, entzun edo egin gura duten Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira.

Ospakizun eta aldarrikapen egunerako ideiak eta ekarpenak jasotzeko bilera irekia otsailaren 16an egingo dute, 18:30ean, Andraitzek San Juan kalean duen egoitzan.

## Haurrak janaria probatu gura ez duenean nola jokatu jakiteko hitzaldia

O.E. | OÑATI

Neofobiari –jaki berriak probatzeko beldurra– buruzko hitzaldia antolatu du Txantxiki familia elkarteak. Edurne Maiz tolosarra izango da hizlaria, haurrengan elikagaiekiko mizkintasuna aztertu duen EHUko ikertzailea. Haurrak mizkinak zergatik diren, jatera behartu behar diren edo ez, jokaera mizkina era egoki batean nola kudeatu daitekeen, zer eta zenbat jan behar duten haurrek osasuntsu hazteko eta antzerako kezkak argitzen saiatuko da Maiz. Eta hitzaldira doazenen galderak erantzungo ditu.

Hitzaldia eguaztenean da, hilak 10, 17:30ean, Eltzian. Txantxikiko bazkide ez direnek bost euro ordaindu beharko dute.



Txarangak alaitu zituen kaleak udako *outlet*–ean. | IMANOL SORIANO

## Neguko 'outlet'-a hilabete honetan edo hurrengoan egingo du Txandak

O.E. | OÑATI

Eguaztenean egin zuen Txanda elkarteak urteko batzar orokorra, eta, aurreko urteko balantzea egiteaz gain, 2016ko ekintzak zehaztu zituzten bilerara joan ziren kideek.

### Egutegia

Ekintzak zehaztu arren, datak erabakitzeko daudela adierazi du elkarteko presidenteak, Juan Carlos Aranburuk: "Adostu dugu ikastaroak egingo ditugula, Txanda Eguna ospatuko dugula, *outlet*-a egingo dugula eta Errege Kabalgata antolatuko dugula berriro, esaterako. Hala ere, noiz egingo ditugun ez dugu zehaztu. Gainera, ideia berriak ere egon daitezke eta horiek sortu ahalaz joango gara egutegia finkatzen".

*Outlet*-a da, oraingoz, data duen ekintza bakarra: otsailaren amaieran edo martxoaren hasieran egingo dute. "Bailarako gainerako herrietan ere egiten dute ekintza hori, eta noiz egingo duten jakin gura dugu, denak egun berdinetan egin ez daitezen", argitu du Aranburuk.

Bestalde, zuzendaritzako kide berriak izendatu zituzten eguazteneko bileran. Hain zuzen, zortzi lagun daude Txandako zuzendaritzan eta datorren astean egingo duten bileran zehaztuko dituzte karguak.

## Kirola egiteko eta sustatzeko diru laguntzak ditu udalak

O.E. | OÑATI

Aurreko urteetan bezala, 2016an ere herriko kirol elkarte eta taldeek antolatzen dituzten kirol ekintzen antolaketan laguntzeko bi diru laguntza lerro zabaldu ditu Oñatiko Udalak. Hala, batetik, Oñatiko udalerriko kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzak lagunduko ditu diruz udalak (4.000 euro), eta bestetik, kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak (14.000 euro).

Diru laguntza eskatzeko eskaera-orriak bete behar dira. Bost agiri dira guztira eta udaletxean zein kiroldegian eskura daitezke orri horiek. Hala ere, kirol teknikariak gogorarazi du eskatzen den dokumentazio guztia ez dagoela entregatu beharrik baldin eta joan den urtean ere diru laguntzaren eskaera egin bazuten. Bestalde, azpimarratu du udaletxean lehen eranskinari eman diezaiotela sarrera, han daudelako eskatzailearen datuak.

Eskaerak egiteko azken eguna otsailaren 29a da.



Euskal Ligarako igoera ospatzen Aloña Mendiko neskak. | SUSANA ARRESE

# Gaur jokatuko dute Euskal Ligako lehen partidua

Etxeberriko Kukuiaga taldearen kontra jokatuko du eskubaloiko gazte mailako taldeak, 20:30ean; euren aurretik kadeteak lehiatuko dira

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Gaur, egubakoitza, jokatuko du Aloña Mendiko gazte mailako nesken taldeak Euskal Ligako lehen partidua, 20:30ean, Bizkaiko Etxeberri herriko Kukuiaga taldearen kontra.

Jokalariak "gogotsu" eta aldi berean "urduri" doazela aitortu du entrenatzaileetako batek, Nerea Morenok: "Beste maila bat da hau, eta alde horretatik urduri daude neskak. Hala ere, sekulako gogoarekin doaz partidura. Ez dakit emaitza zein izango den, baina pozik goaz denok".

**Zubikoan**

Lau taldeko bi multzo daude lehian Euskal Ligan. Aloña Mendirekin batera dauden beste taldeak dira: Zarautz, Zuazo eta Kukuiaga. Asteburu honetan hasita, elkarren aurka jokatuko dute multzo bakoitzeko lau taldeek, eta, ligaxka hori bukatutakoan, multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuen artekoak izango dira norgehiagokak; hor erabakiko da ligako irabazlea zein talde den.

Lehen bi partiduak etxetik kanpo jokatuko ditu Aloña Mendik. "Lehena Etxeberrin eta bigarrena Zarautzen. Otsaileko hirugarren asteburuan jokatuko dugu Zubikoan, Zuazoren kontra", azaldu du Nerea Morenok.

Autoetan, gurasoekin, joango dira Nerea Morenok eta Idurre Elortzak zuzentzen duten taldeko hamasei neska Etxeberrira gaur iluntzean. "Kadete mailakoek ere igoera lortu zuten eta herri eta egun berdinetan jokatzen duten egunetan elkarrekin joango gara. Gaur, adibidez, gure aurretik jokatuko dute eurek; 19:00etan da euren partidua", dio Nerea Morenok.

# Zubikoako pilotalekua bete egingo da hilaren 14an

Mendizabal, Irusta, Ezkurdia eta Barriola datoz, besteak beste; oso sarrera gutxi gelditzen dira

O.E. | OÑATI

Aloña Mendiko pilota sailak eskatuta antolatu du profesional mailako pilota partidua Aspek hilaren 14rako. Eskuz binakako txapelketako final-laurdenetako partidua jokatuko dute Ezkurdiak eta Barriolak Artolaren eta Albisturen kontra. Euren aurretik, 17:00etan, Mendizabalek eta Erostarbek Elordi eta Irustaren aurka jokatuko dute.

**Pilota aukeraketa**

Martitzenean, hilak 9, egingo dute, pilota aukeraketa. Ordua, baina, zehazteko dute; astelehenean erabakiko dute goizean edo arratsaldean egingo duten.

Aloña Mendiko pilota saileko zuzendaritzako kideak pozik daude pilota partiduak izan duen erantzunarekin. "Lehen, herriko jaien bueltan antolatzen genuen lehen mailako pilotarien partidua, San Migel jaietan edo Corpusetan. Baina ez zituen herritarrak erakartzen. Herrian pilotazaleak badaudela jakinda eta pilotan gero eta gazte gehiago ari direla ikusita, pentsatu genuen jaien egitarauetatik kanpo antolatzea; bigarren aldia da horrela egiten duguna, eta bietako erantzuna izan da oso ona. Pozik gaude", dio saileko Mikel Tatiegik. 20 eurotan jarri dituzte sarrerak salgai Arrano, Izarraitz eta Aloña Mendi tabernetan eta Txokolateixian, baina ia denak agortuta daude.

Azken hiruzpalau urteetan gora egin du pilotan ikasi gura duten gazte kopuruak eta pilotalekua erabiltzeko erraztasunak izan arren, larri ibiltzen direla aitortu dute Aloña Mendiko pilota sailekoek. Plazako frontoi irekia estaltzeak arazoa konponduko lukeela uste dute.




Aitor Mendizabal antzuolarra. | IMANOL SORIANO

## NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI



# Elkarbizitzaren haziak

Euskal Herrian, aspaldidanik, elkarbizitza hobe bat eraikitzeko haziak ereiten ari gara. Zenbait hazi ale bide-ertzean erori dira eta hankapean hondatu ditugu. Beste zenbait sasi artean erori dira eta ernetzean, arnasa faltan, ihartu egin dira. Bada lur onean erori den alerik ere.

Ikur ezberdineko biktimak sufrimendu eta minean elkarrekin bidea egiten ikusten ari gara; elkar entzunez, zubiak eraikiz eta zauriak ongian landuz. Biktima guztiei omen eta aitortza egiteko aprobetxatzen ditut lerro hauek. Orain argiago ikusten dut jasan duten mina, eta hortik nire miresmena eta barkamen eskaera, batez ere, ETAren indarkeriaren aurrean isilegi geratu nintzelako.

Espetxetik etxerako bidean jarri da zenbait herritar ere, alde biek adostutako akordioari esker. Hauei bezala, beste askori ere irekiko al zaio gaur bertan etxera itzultzeko bidea! Jose Luis Alvarez de Santa Cristinari, bereziki, eskerrak ematen dizkiot, eskaintzen duen testigantzagatik (*Arantzazu* aldizkaria – 979. zenbakia).

Aurten, Donostiatik abiatuta, elkarbizitzaren ikurrina daramagu Europa osoan zehar. Gutako bakoitzaren ardura da Xabier Leteren *Euskalerri nerea* abestiko hitzak betiko lurpean uztea: *Anaien aurpegian begirada hotza, ezpainetan iraina, harrizko bihotza*…

**"Elkarbizitzaren ikurrina daramagu Europa osoan"**

## Dagoeneko 200 lagun inguruk eman dute izena aurtengo Aloñako igoerarako

O.E. | OÑATI

Maiatzaren 1ean egingo da aurtengo Aloñako igoera, eta astelehenetik eguenera, izen-emate epea zabaldu zutenetik, 200 lagun inguruk bete dute inskripzio orria. Izena eman dutenen artean oñatiar asko daude, baita bailarako beste herri batzuetako lasterkariak ere. Hala ere, Lugo, Algorta, Gasteiz, Iruñea, Zegama, Elgoibar eta Uharte Arakilgo parte-hartzaileak ere badaude izena eman dutenen artean. Igoera baino bi egun lehenago, apirilaren 29an, Butreaitzeko igoera bertikala egingo dute, gauez.

Batean edo bestean izena emateko, *www.sailkapenak.com* helbidean sartu behar da.

## Diazek, Ugartek eta Redinek Espainiarako sailkatzea lortu dute

Nerea Diazek, Eric Ugartek eta Ainhoa Redinek Espainiako txapelketarako gutxieneko markak lortu zituzten asteburuan Euskadiko txapelketan. Guztira, zortzi domina lortu zituzten Aloña Mendiko igerilariek: bi urrezko, hiru zilarrezko eta beste horrenbeste brontzezkoak.

## Oier Alberdi hirugarren karatean

Urtarrilaren 31n, Hondarribian, karateko Gipuzkoako senior mailako txapelketa jokatu zen eta han parte hartu zuen Aloña Mendiko Oier Alberdik. Parte hartu eta domina lortu zuen; hirugarren sailkatu zen 21 urte baino gutxiagokoen kumite kategorian, 84 kilo azpikoetan.



ALOÑA MENDI



Urtarrilaren 31n izan zen ikuskizuna, parrokian. | IMANOL SORIANO

## Gure aurreikuspenak ere gainditu ditu 'Argiaren hotsa'-k

KOMUNITATEA GOIENA | AITOR BIAIN
GANBARA ABESBATZA | OÑATI

Sekulakoa izan da *Argiaren Hotsa* ikuskizuna, ikusgarria.

Ikuskizunak egin ditugu aurretik ere, baina ikusi arte ez zara benetan konturatzen nolakoa den antolatu duzun hori. Oraingoan ere berdina gertatu zaigu. Buruan dituzu mila egoera eta, gutxi gorabehera, irudikatzen duzu nolakoa izango den produktua, baina egin arte, pasatu arte, ez duzu emaitza benetan neurtzen. Orduan konturatzen zara zer egin duzun eta nolakoa izan den, eta oraingoan sekulakoa izan da. Ideia bat izan arren, aurreikuspen denak gainditu ditu: argiztapena, muntaia, elkarlana, soinua, etorri diren entzuleen jatorria eta kopurua...

Uste dut ikusleei ere asko gustatu zaiela. Inpresio horixe jaso dugu guk, behintzat, eta, beraz, oso pozik gaude, bai.

Ikuskizuna prestatzeak denbora eskatu du. Bezperan, zapatuan, goizeko hirurak arte egon ginen Mikel Goiaingeruaren parrokian. Hango eserlekuak mugitu behar genituen, ezohiko moduan jartzeko, argiztapena probatu beharra zegoen, erlojua bere tokian jarri... Orain, argazkiak ikusita, ez dirudi parrokian egin genuenik. Hartutako lana hori ere ikusten da. Ederra izan zen.

Eskerrik asko parte hartu zenuten guztioi.

## Disko fisikoaren salmentarekin batera bira hasiko du Lenaok

O.E. | OÑATI

Taldearen izen bera du Lenao taldean lehen lanak eta dagoeneko salgai dago. Udan grabatu zuten eta irailean sare sozialen bidez jarri zuten eskuragarri. Aste honetatik aurrera disko fisikoa ere eros daiteke ohiko musika dendetan. Oñatin, Aker eta Boga tabernetan ere eskura daiteke. Edizio fisikoaren diseinua, gainera, Ander Etxaniz taldekidearen pinturetan oinarrituta dago.

### Gaztelekuan

Iker Martinez de Zuazo (Latzen, Potemkin, Amonal...), Egoitz Olalde (Sharon Stoner, Sorkun...), Joxeba Aranburu (Bitz...) eta Ander Etxaniz (Gas...) oñatiarrak dira Lenaoko partaideak. 2015eko uztailean Andoaingo Garate estudioan Kaki Arkarazoren gidaritzapean konposatutako materialaren erakusle diren hamaika abesti bildu zituzten disko batean.

Disko fisikoaren salmentarekin batera, taldeak aurkezpen bira bat egingo du. Bira horretan Zingira talde oñatiarra izango du lagun. Birako lehen kontzertua hilaren 12an egingo dute Iruñeko Infernu tabernan. Martxoaren 12an, berriz, Oñatin joko dute, gaztelekuan. Bonberenean, Deustuko gazte lokalean eta Legazpiko gaztetxean ere joko dute.



Lenao taldeko kideak. | LENAO

# Luiziko lurrak erretiratzeko premia, hodiak arriskuan egon litezkeelako

KZgunea itxi eta bertako ordenagailuak kultura etxera eramango dituzte, Jaurlaritzarekin adostuta

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Aparkaleku berriak egiteko orubean izandako luiziko lurrak noiz erretiratuko zain segitzen du Leintz Gatzagako Udalak. "Bagabiltza enpresari –Zubieder– presioa egiten, lehenbailehen etor daitezen; ze, gainera, pareta horretan ur hodiak-eta ere badaude, eta euri asko egiten badu eta lur gehiago erori, hodiak apurtzeko arriskua ere badago", esplikatu du Eneka Zankada alkateak.

Izan ere, aparkaleku berria estrategikotzat du Leintz Gatzagako Udal Gobernuak, eta hala dago jasota 2016rako aurreikusitako inbertsioen atalean: inbertsioetara bideratutako 22.500 euroetik zatirik handiena aparkaleku berria egokitzeko erabiliko dute, besteak beste, eta Leintz Gatzitzen egitasmoaren barruan, turismoa erakartzeko, Gatz Museoak izaten dituen bisitei –autobusei, bereziki– lekua egiteko. Zentzu berean, 2016ko aurrekontutik –452.779,98 euro– gastuetarako gordetako partidarik handiena ondasun arrunten erosketara bideratuko du Udalak: "Aparkalekuaren bigarren faserako lursailak erosi egin behar dira", jakinarazi du alkateak.

### Iazkoa abiapuntu

Bestalde, aurrekontuarekin segituz, Hirigintzara, Ogasunera... hau da, Udal Gobernuaren ohiko sailetara bideratutako partidak iazko aurrekontuan zeudenen antzerakoak izango dira: "Gure lehen urtea izanda, nahiago izan dugu hura oinarri hartuta lan egin; gero, beharren arabera, joango gara egokitzen edo aldaketak egiten", esan du Zankadak.

### KZgunea kendu

Horrekin batera, alkateak jakinarazi du KZgune zerbitzua kendu egingo dutela, oso erabilera txikia duelako. Edozein modutan, bertako hiru ordenagailuak kultura etxera eramango dituzte. "Bi ludoteka-gaztelekuan jarriko ditugu eta bestea lehen solairuan, herriko taldeendako, eta, akaso, hitzaldietan-eta erabiltzeko". Internet zela jarri aztertzen dabiltza, wifi bitartez edo bestela.

**GASTUAK: 2015-2016**

| URTEAK | 2015 | 2016 |
|---|---|---|
| **Pertsonal gastuak** | 125.000 | 128.181 |
| **Ondasun arrunten erosketa** | 236.511 | 237.971 |
| **Finantza gastuak** | 300 | 300 |
| **Inbertsio errealak** | 47.483 | 22.500 |
| **Transferentzia arruntak** | 53.456 | 59.047 |
| **GUZTIRA** | **467.299** | **452.779** |

ITURRIA: LEINTZ GATZAGAKO UDALA

**ENEKA ZANKADA** | ALKATEA

## "Pilotalekuarengatik erdia ordainduko dute bertakoen"

Herritarrei hainbat eskaera edo jakinarazpen egiteko bi bando atera ditu azken hilabeteotan Leintz Gatzagako Udalak.

**Azkena pilotalekuaren erabileari dagokio...**

Bai. Udalak jakinarazi du udal pilotalekua erabiltzearren kanpotarrek baino gutxiago ordaindu beharko dutela bertakoek. Hain justu, bost euro ordaintzen dute pilotalekua erabiltzeko fitxa bakoitzeko Gatzagatik kanpo erroldatutakoek; aldiz, herritarrendako finkatu dute 3,5 euro ordaindu beharko dutela. Hori bai, bertakoek fitxak udaletxean eskatu behar dituzte. Gainontzekoek, Labidean.

**Bigarren bandoarekin, berriz, txakur-jabeei eskatu diezue animalien kakak jaso eta errefuserako ontzietan uzteko; betetzen da?**

Bai. Oraingoz, jarritako seinaleak errespetatzen dira, eta asko jaitsi da ikusten zen kaka kopurua. Lehen, adibidez, erdigunean ikusten ziren, plaza erdian... gurasoak etorri ziren kexuka esanez jolasgunea –udaletxe ondokoa– kakaz beteta egoten zela... Horregatik atera genuen, hain justu, bandoa. Abenduan jarri genuen. Pentsa, astean birritan jaso behar izaten zuten udal langileek txakurren kaka. Orain, ja ez. Beraz, Udal Gobernutik eskerrak eman gura dizkiegu txakur-jabeei erantzunagatik, eta eskatu hartutako konpromiso horrekin segitzeko. Azken batean, guztion arteko elkarbizitza hobetzeko neurria da.

### Aurten ere antolatuko dute Gatzaren Eguna udalerrian

Oraingo astean, Debagoieneko Mankomunitatean landu duten gaietako bat izan da Leintz Gatzagan Gatzaren Eguna ospatzeko aukera; are gehiago, Mankomunitateak berak proposatu du egun hori ospatzea berriro ere. Eta erabakia izan da baietz, Udalak proposamena onartu eta aurten ere egingo dutela udalerriko ikur nagusia aldarrikatzeko eguna. Oraingoz, baina, zehaztu barik dago noiz egingo duten.

### 'Beldurgarri' aterako dira eskolakoak Eskoriatzako plazara

Beldurra eragiten duten gaiak abiapuntu hartuta dabiltza lantzen aurtengo mozorroa eskolako neska-mutikoak. Txapelak erosi eta erratzak eta jantziak eskolan bertan prestatzen dihardute; izan ere, sorginez mozorrotuko dira. Hori bai, oraingoan Eskoriatzara jaitsiko dira Aratuste-martitzena ospatzera; 10:30ean egingo dute ikuskizuna, Eskoriatzako eskolakoekin batera. Mozorroarekin bat datorren abesti eta dantza bana ere egingo dute neska-mutikoek.

### Gaztainuzketako mendi etxeen gaineko webgune berria

Hilabete bukaeran martxan egongo da Gaztainuzketako mendi etxeen bueltan lantzen diharduten webgunea. Bertako eskaintzaren berri jaso ohi du webgune horrek, eta aurten berritzea erabaki dute. Zerbitzua bera ere berrituta dago joan den udaz geroztik. Besteak beste, kudeatzaile berriak dabiltza bertan lanean: Ane Zubillaga gatzagarra eta Alex Gorosarri eskoriatzarra. Azken kudeatzaileek euren kabuz erabaki zuten lan hori lagatzea.

# Udal gobernuak aurrekontuen zirriborro "errealista" aurkeztu du

## 2016ko udal aurrekontuaren proposamena 2.629.343 eurokoa da

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Antzuolako Udal gobernuak 2016ko aurrekontuaren zirriborroa aurkeztu zuen martitzenean osoko bilkuran. Izan ere, haren asmoa da aurtengo aurrekontuak EAJ eta PSE alderdien proposamenekin osatzea eta, hau landun ostean, otsailaren 29ko osoko bilkuran onartzea. Beñardo Kortabarria alkateak aurrekontu "errealistak" direla azpimarratu zuen: "Bi hilabetez 200 ideiatik gora jaso ditugu auzo alkateekin, erretiratuekin, elkarteekin, herritarrekin... batu ostean. Modu horretan, herritarren beharrak jaso, aztertu eta lau urterako plangintza egin dugu". EAJko bozeramaile Basili Ormazabalek, ordea, aurrez aurrekontuen berri ez izatea leporatu dio Udal gobernuari.

**Inbertsio nagusiak**

Aurtengo inbertsioei dagokienez, nobedade eta proposamen ugari aurkeztu zituen EH Bilduk. Besteak beste, seinale programagarriak jarri gura dituzte eta trafiko araudia landu. Eta modu horretan, aguazilari isunak jartzeko eskumena eman.

Herri eskolan aldaketak egingo dira eta hau handitzea ere bada asmoa. Erreka ondoko bost kilometroko baranda konpondu gura dutela eta Beheko auzoan dauden hezetasun arazoak konpondu gura dituztela ere azaldu zuten.

Baina, zalantza gabe, aurtengo inbertsioaren zatirik handiena Sagasti auzoan jarri gura den jolas egiteko ur parkea da (133.000 euro). "Ez da igerilekua, eta, beraz, ez du soroslerik behar; ezta ere igerileku batek behar duen mantenua. Eskuz sakatuta martxan jarriko diren ur-jolasak dira".

Antzuolako baserrietako ur-sarea berritzen segituko du Udalak (40.000 euro). "Ur tratatua eraman gura dugu baserri guztietara. Aurten, beste fase bati helduko diogu eta ea Txangala auzoraino iristen garen". Lur azpiko argiteria sarea ere hondatuta dagoela aurreratu zuten eta aurten Ondarren hasiko direla berritze lanak egiten: "Hondatuen dagoen auzotik hasiko gara argiteria sarea konpontzen aurten; Ondarretik, alegia; eta gero, Antiguan eta Kalebarrenean egingo ditugu konpontze lanak".

**Bestelako ekimenak**

"Inbertsio gutxikoa baina garrantzitsua" dela azpimarratu zuen alkateak Antzuolaren eta Aiherraren arteko harremana sustatzeko gaztetxoen artean martxan jarri nahi den ekimena. "Udalekuen laguntzarekin, uztailean, Aiherrako gaztetxoak gure udalekuetara etorriko dira harremana indartzeko; asmoa da herritarrek euren etxeetan ere jasotzea".

Lehen sektorea indartu gura du EH Bilduk. Hala, proiektu pilotua jarriko da abian Antzuolan. "Hazirekin, eskualdeko Landa Garapenarekin eta Diputazioarekin, Antzuolan lehen sektorea indartzeko ekimena martxan jarri gura dugu", zioen.

Eta Uemarekin elkarlanean beste proiektu jarriko da abian laster: "Antzuolako gazteen artean euskararen erabilera jaitsi egin zela detektatu genuen. Horregatik, gazteriak dituen ohiturak aztertuko ditugu", azaldu zuen Euskara zinegotzi Jon Ugarteburuk.

# Festa giroa eta umorea nagusi Aratuste-domekan

## Herri bazkariaren ostean herritarrak izango dira protagonistak, lehenengoz, agertoki gainera igota

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA



Hartza da Antzuolako Aratusteetako pertsonaia nagusienetako bat. | GOIENA

Mozorro festak hartuko ditu Antzuolako kaleak Aratuste-domekan. Oinarinek antolatuta, goizean, Hartza, Tximinoa eta Hezitzailea lagun dutela, herriko dantzarien eskutik dantzak izango dira protagonista.

Hala, goizeko hamarretan, dantzarien kalejira abiatuko da. Bi talde ibiliko dira kaleetan zehar: bata plazan gora eta bestea plazan behera. Talde batek sorgin dantza egingo du eta talde horrekin batera ibiliko dira Hartza, Tximinoa eta Hezitzailea. Esan behar da Tximinoa Antzuolan soilik irteten den pertsonaia dela. Beste taldeak, aldiz, Zuberoako makil dantza egingo du.

12:30ean, saio nagusia egingo da plazan (patioan, euria eginez gero). Bertan, askotariko dantzen emanaldia egingo dute.

**Herritarrak protagonista**

14:30ean herri bazkaria egingo dute, pilotalekuan. Baina aurten mozorro festako giroa borobiltzeko protagonista herritarren artea izango da. Hala, bertan dauden kuadrillek aukera izango dute agertoki gainera igo eta nahi dutena egiteko. "Mozorro jaia egingo dugu aurten lehenengoz. Nahi duenak har dezake parte eta nahi duena egin dezake: desfilea, koreografia… Talde onenarentzako saria egongo da. Helburua da ondo pasatzea eta giroa borobiltzea", azaldu du Kultura teknikari Jone Larrañagak. Bazkalostean, musikak alaituko du mozorro-festa Irulitza txarangaren eskutik.

# EH Bilduk batzar irekia egin zuen eguaztenean

## Hobetu beharrekoaz eta komunitatea osatzen joateko pausuez hausnartu zuten, besteak beste

**M.A.** | ANTZUOLA

Eguazten arratsaldean hamazazpi lagun –hamabost gizonezko eta bi emakumezko– batu ziren EH Bilduk deitutako Olaranen egindako batzar irekira. Hiru zatitan banatu zen.

Lehen zatian, hauteskundeen gaineko balorazioa egin zuten eta Kongresuko balizko inbestiduretan hartu beharreko erabakiez jardun zuten.

**Antzuolako komunitatea**

Batzarraren bigarren zatian, Antzuolako komunitatea osatzen joateko pausuen inguruan hausnarketa ere egin zuten. EH Bilduk hobetu behar lituzkeen kontuez berba egin zuten bigarren zatian herritarrek.

**Lan ildoak**

Hirugarren zatian, EH Bilduko udal taldearen aurtengo lan ildo nagusien inguruan hitz egin zuten: Uemarekin elkarlanean egingo den euskararen gaineko diagnosiaz, lehen sektorea indartzeko ekimenaz, ur parkeaz eta kale garbiketaz, besteak beste.



Olaranen egin zuen EH Bilduk herri batzarra eguaztenean. | AITZOL ITURBE

## OHARRAK

**PILOTA PARTIDUA**

Gaur, egubakoitza, jubenil mailako euskal ligako banakako partida jokatuko du Olaldek. Burlatako Zugarraldeko pilotariaren aurka neurtuko ditu indarrak antzuolarrak. Partidua arratsaldeko zortzietan hasiko da.

**MERIENDA**

Erretiratuek aratuste-martitzenean, otsailak 9, mozorro festa egingo dute, urtero legez. 17:00etan hasiko da festa, eta mozorrotuta joateko dei egin dute Landatxopetik. Hiru mozorro dotoreenek saria izango dute.

**TORRADAK**

Gaur, egubakoitza, guraso taldeak antolatuta, txokolate beroa eta torradak banatuko dituzte txikitxoen mozorro festa eguna borobiltzeko. Arratsaldeko lauretan hasiko dira txokolatea banatzen eskolako patioan.

### San Blas eta Santa Ageda ospatuko dituzte asteburuan

San Blas egunaren ospakizuna zapatuan, otsailak 6, egingo dute Basalde auzoko San Blas ermitan. Mezaren ostean, salda eta txorizoa banatuko dute. Santa Ageda ospakizuna, aldiz, domekan, otsailak 7, egingo dute Galartzako auzotarrek. 12:00etan Santa Ageda ermitan meza izango da, urteroko ohiturari eutsiz.

### Tomax eta Muxugorri pailazoek bi emanaldi eskainiko dituzte gaur

Torresoroan, *Tomaxen abenturak. Txipli-txapla* izeneko pailazo emanaldia izango da, txikitxoen gozamenerako. Bi saio eskainiko dituzte, 17:00etan eta 18:30ean. Tomax eta Muxugorri pailazoak, abentura honetan, hondartzara joango dira. Han, itsasoan bizi diren animalien lagun egingo dira. Bizipen ugari izango dituzte.

### Euskal presoen eskubideen alde martxa Herrerara

*Abian* prozesuaren baitan, Zurrategin pintxoak banatuko dituzte domekan, 19:00etan. Borondatea emateko aukera izango da. Presoen eskubideak aldarrikatzeko, otsailaren 20an Herrera de la Manchara joango dira antzuolarrak. Aitz Garbin edo *antzuolakoezkerabertzalea@gmail.com* helbidean eman daiteke izena.


Indiar kuadrilla, iaz, tipi eta guzti Elgetan. | L.Z.

# Festa eta zalaparta gaur mozorroaren babesean

## Eskolako neska-mutikoen kalejirak zabalduko ditu Inauteriak, eta gauera arte izango da festa giroa

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Goiz, oso goiz datoz aurten Inauteriak... Jarraian eta bata bestearen atzetik etorri dira San Blas, Santa Ageda eta Inauteriak, aspaldiko partez. Hala, ospakizunez beteriko astea izan da azken hau, esate baterako, Herri Eskolan. San Blas opilak egiten eman zuten eguazten goiza, eta etxera eraman zuen nork berea labean sartu eta jateko. Biharamun arratsaldean Santa Ageda bezperako koplak abestu zituzten, entzun nahi izan zituzten guztiendako. Hori guztia Inauterietako mozorroa prestatzeko lanak alde batera utzi barik, garrantzitsua baita mozorroa ondo aukeratzea.

Gaur 15:00etan egingo dute urteroko kalejira. Ikasleek eta irakasleek hainbat dantza prestatu dituzte, eta mozorroak soinean kalera irtengo dira Inauterien berri ematera. Dantza saioa eginda amaituko dute: eguraldi onarekin plazan eta txarrarekin frontoian. Ondoren etorriko dira Udalak Maala Guraso elkartearen laguntzarekin antolatutako ekintza bereziak. 16:30ean txokolate-jana eskainiko dute gurasoek, eta 17:00etan neska-mutikoendako jokoak dinamizatuko dituzte. 18:30ak baino minutu batzuk lehenago abiatuko da berriz kalejira. Kasu honetan, Espaloia kafe antzokian izango du helmuga, bertan hasiko baita disko-festa Mariskal Dejairen eskutik. Hiru orduko iraupena izango du.

Gauerako afaria antolatu dute gaztetxean, eta karaokea iragarri dute gauerdirako.

### Erretiratuak martitzenean

Xalbadorpe elkarteko erretiratuak Inauterietako martitzenean, hilak 9, egingo dute urteroko txokolate-jana. 17:00etan elkartuko dira Ozkarbi elkartean. Lehenengo, txokolate-jana egingo dute, eta ondoren, bingoan egingo dute arratsalde-pasa. Bazkide guztiak daude gonbidatuta.

### EGITARAUA

**BARIKUA, HILAK 5**

**15:00** Eskolako umeen mozorro kalejira eta dantzak.

**16:30** Txokolate-jana.

**17:00** Umeendako jokoak.

**18:30** Mariskal Dejai, Espaloian.

**22:00** Inauteri afaria, gaztetxean.

**MARTITZENA, HILAK 9**

**17:00** Erretiratuek txokolate-jana, Ozkarbin.

# Sailkatuta bildu da iaz herrian sortutako hondakinen %77,56

L.Z. | ELGETA

Elgetako Udalak eman du datua eta jakinarazi du 2014ko batez bestekoa %43,65 izan zela. Herritarrak zoriondu ditu Iraitz Lazkano alkateak: "Oraindik badugu zer hobetu, baina bide onetik goaz!". 2015eko sailkapen tasa handiena martxokoa izan zen (%80,18), eta txikiena uztailekoa (% 75,11). 2014ko abenduan ezarri zuten Elgetan txipdun edukiontzien sistema, eta berehala nabaritu zen eragina.

### Aldaketak bilketa zerbitzuan

Bilketa sisteman herritarrendako inolako aldaketarik ekarriko ez duten egokitzapenak iragarri ditu Udalak. "Errefusaren eta organikoaren edukiontziak aldatu beharko ditugu (...) Espero dugu txiparen sistemak hobeto funtzionatzea egindako aldaketa teknikoekin. Herritarren txipak berdin funtzionatuko du", eman dute aditzera. Egokitzapen horiek martxorako aurreikusi dituzte.

## OHARRAK

**BISITA LUBAKIETARA**
Domekan, 10:00etan, Espaloitik abiatuta. Izen-emateak: 943 79 64 63 edo 943 71 89 11.

**IKASTAROAK KZGUNEAN**
Dinamizatzailearen eskutik hilaren 10ean, 09:00etatik 10:30era.

**IPUINEN ORDUA: BILERA**
Ipuin kontalari boluntarioendako bilera, eguaztenean, hilak 10, 19:00etan, udal liburutegian.

**SORMENING ESPALOIAN**
Familia osoarendako sormen tailerra, hilaren 14an, 11:30ean. Prezioa: hiru lagun 15 euro, lau lagun 20 euro.

**HITZALDIA ESKOLAN**
Guraso elkarteak antolatuta, bizkarreko minaren inguruko hitzaldia hilaren 22an, 18:00etan. Interesatuek izena eman behar dute: *elgetakogurasoelkartea@gmail.com*.

**XILOGRAFIA TAILERRA**
Hilaren 27an, 10:00etatik 14:00etara, Maite Barrainkuaren Rmateria tailerrean, doan. Talde mugatua 18 urtetik gorakoendako. Izen-emateak udaletxean: 943 72 80 22.

# Elgetako EH Bilduk "oso balorazio positiboa" egin du

## Agintaldiaren lehen hilabeteen errepasoa egin dute

L.Z. | ELGETA

Udal jardunaren gaineko balorazioa egiteko batzar irekia egin zuen, domekan, Elgetako EH Bilduk. Bertan, besteak beste, 2015eko ekainaren 13a ezkero hartutako erabakien eta gauzatutako ekimenen inguruko balorazioa egin zuten. "Oso balorazio positiboa egiten dugu Udal Gobernuko hilabete hauetan egindakoaz. Hauteskunde programa lantzen ibili ginenean 40 lagunek inguruk egin zituzten ekarpenak. Alor guztietan egin ditugu aurrerapausoak, batzuk handiagoak eta beste batzuk xumeagoak", eman dute aditzera.

### Orain arte egindakoak

Agintaldiaren lehen hilabeteotan hartutako neurrien artean Elgetako EH Bilduk nabarmendu ditu, besteak beste, udako kanpainako hezitzaileei zazpigarren mailako soldata onartzea, udal kirol eskaintza bikoiztea, ordenantza fiskaletako hobarietan sistema progresiboagoa ezartzea, *Danon artian danon herrixa* parte-hartze prozesua, Elgetan Berbetan programa, udal webgunearen edukiak eguneratzea eta harrera protokoloa zein presoen familiartekoentzako laguntzak onartzea. Horiekin batera aipatu dituzte Espaloiaren inguruko egoerari zein hondakinen bilketa sistemari egindako jarraipena, eta baita herriko kultura eremuen erabileraren inguruko hausnarketa abiaraztea ere.

Hilabeteotan egindako irisgarritasun eta garbiketa lanak ere kontuan hartzekoak dira, Elgetako EH Bilduren ustez. Hala nola herriko arketak, poligonoko zangak edo baserri bideetako arekak garbitu izana, horietako batzuk auzolanean. Horrekin batera irristakor zeuden hainbat gune egokitu dituztela esan dute.

Elgetako EH Bilduk jakinarazi du, bestalde, berrikusi egin dituztela zerbitzu guztien defizitaren kalkuluak, Udalaren jabegoko armen legeztatze egoera, Udalaren eraikinen inbentarioa eta baserri bide guztien egoera.

Udal Gobernu berriaren egitekoa, besteak beste, lehentasunak finkatzea izan da, eta, aditzera eman dutenez, irisgarritasun planean eta inbertsioetan markatu dituzte, gehienbat. "Lan asko dugu hurrengo urteetan egiteko, baina prest eta gogotsu gaude. Jakitun gara, bestalde, jaso dugun Udalak erronka potoloak dituela aurretik, aparejadorearekin dugun auzia tarteko", adierazi dute.

Debagoieneko Lanbide Heziketako esperientziak

GOIAZ! Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

GOIAZ! 2016
*Lanbide Heziketaren Azoka*
Martxoaren 15ean eta 16an;
Kulturaten, Arrasaten.

Prestakuntza arloko eskaintza
Enplegu zerbitzuak
Ekintzaileentzat zerbitzuak
Tailerrak eta hitzaldiak
Aparatuak eta esperimentuak

*Debagoienean kalitatezko 7 ikastetxe dauzkagulako...*
*Aukera ezazu LANBIDE HEZIKETA*

*goiazdebagoiena*

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
ikasmina:

Xabier Gesalaga oñatiarra Gizarte Integrazioko goi-mailako teknikari ikasketak egiten ari da, Mariaren Lagundia Ikastolan (Bergara), egun erdiz lan egiten duen bitartean. Horraino heltzeko, ordea, ikasketa bide luzea egin du, baina etxekoen eta ingurukoen laguntzari esker guztia errazagoa izan dela dio:

**Nolatan heldu diezu ikasketei, Ulmako bazkide izanda?**
Ez neukan behar urgenterik. 17 urterekin lanean hasi nintzen, ikasketak alde batera utzita, eta han eta hemen lanean ibili naiz, azken 9 urteak txapa-margolari Ulman, baina aspaldi piztu zitzaidan zerbait ikasteko gogoa. Eta zer ikasi nahi nuen argi ez baneukan ere, familian, alabak hazi zirenean, orduan zela momentua erabaki nuen eta informatzen hasi nintzen.

**Ikasketak hain gazte utzita, zein ibilbide egin duzu goi-mailako heziketa ziklo batera heltzeko?**
Lehenengo eta behin, DBHko titulua lortu behar izan nuen, urtebetean, Helduen Eskolan (EPA), neukan eskola graduatuarekin ez nuelako ikasketak jarraitzeko nahikoa. Eta ondoren, zer ikasi erabakitzen nuen bitartean, goi-mailako heziketa ziklorako sarbide-proba prestatzen egon nintzen beste urtebetez. EGA titulua ere atera nuen sasoi hartan, euskaltegiaren laguntzarekin.

**Ikasketak eta lana bateratu dituzu 3 urte hauetan. Zein izan da horretarako giltza?**
Alde batetik, etxekoen aldetik jaso dudan laguntza, ikasten ari zaren bitartean etxean uzten duzun hutsunea sumatzen da eta. Bigarren, enpresaren aldetik ere,



**"Beteko ninduen zerbait ikasteko momentua zela erabaki nuen, eta Lanbide Heziketa aukeratu dut."**

malgutasuna izan dut, eta horrek ere laguntzen du. Eta azkenik, Helduen Eskolako eta Euskaltegiko irakasleen lana azpimarratu nahiko nuke, gu motibatuta mantentzea lortu dutelako.

**Nola erabaki zenuen Gizarte Integrazioa ikasi nahi zenuela?**
Helduen Eskolan orientatzaileak laguntza ematen du horretarako, eta, hasiera batean, industriarekin edo enpresako jarduerarekin lotutako arloren baten heztea pentsatu nuen arren, azkenean, benetan motibatzen nauen arlo bat aukeratu dut: Gizarte Integrazioa.

**Nola doa lehen ikasturtea?**
Konturatu naiz Gizarte Integrazioak kolektibo eta arlo asko batzen dituela: gazteak, nagusiak, elbarrituak, etorkinak, drogazaleak, eta abar. Eta oraindik ez daukat garbi zein arlo den gehien gustatzen zaidana. Baina oso aberasgarria izaten ari da.

# Proiektu ugari egon arren, lehentasunak zehaztuko ditu Udalak aurrena

Bost milioi pasatxoko aurrekontua dago 2016rako Eskoriatzan

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

2016ko ekitaldiko aurrekontu orokorra jendaurrean egoteko arauzko epea igarota, eta aurkeztutako alegazioak ikusita eta erabakita, Eskoriatzako udalbatzak urtarrilaren 21ean hartutako erabakiz behin betiko onartu zituen aurrekontuak. Hala, 2016ko aurrekontua 5.325.435,85 eurokoa da, 2015ean baino %1,08 handiagoa, eta aurrekontu osotik %22 inbertsioetarako erabiliko da, dirua hainbat partidatan banatuta.

Iaz, zazpi batzorde zeuden, eta aurten, aldiz, bost batzordetan ari da lanean Udala. Honen harira, Hirigintza eta Mugikortasun eta Garapen Ekonomiko Jasangarri batzordeetan aurrekontu handiagoa dago aurten, 2015eko aurrekontuekin konparatuz, eta Gobernu eta Finantza, Integrazio eta Gizarte Zerbitzuetan eta Kultura, Kirola eta Euskaran, aldiz, jaitsi egin da. Diferentzia oso nabarmena ez den arren, aldaketa honen arrazoi nagusia hiri -berritze planean jasotako ekarpenak kontuan hartu izana da.

### Hiri-berritze plana

Aurrekontuak egiteko garaian Udalak kontuan hartu duen faktore bat hiri-berritze plana da. Hainbat ekarpen egin dituzte herritarrek, eta, guztiak jasota egon arren, ezingo dira herritarren eskaera guztiak bete, aurrekontua mugatua delako. "Hiri-berritze planeko ekarpenek dute lehentasuna, eta horien arabera jokatuko dugu. Hori da oinarria, eta hortik abiatuko gara", azaldu du Joserra Zubizarreta alkateak.

Herrian zein elizate guztietan egindako bilerez gain, hainbat kutxa jarri zituen Udalak herritarrek mugikortasunaren inguruan dituzten ideiak azaleratzeko. Dagoeneko jarri dira martxan hainbat proiektu, baina beste batzuk atzera bota dira.

### Proiektuak atzera eta aurrera

Jose Arana kalea, esaterako, Udal Gobernuak lehen moduan jarri nahi zuen ibilgailuentzat, bi noranzkokoa, baina, herritarren iritziak kontuan hartuta, atzera bota du alkateak bere proposamena. Hala, dagoen moduan jarraituko du.

Bestalde, herriko azken berritasuna herriko sarreran, San Pedro auzoan, egin berri den berdegunea da, landare eta zuhaixkak jarri dira herri sarrera apaintzeko asmoz. "Baztertuta zegoen txokoari irtenbidea eman zaio, eta orain loreak bakarrik ikusi arren, zuhaixkak ere badaude".

**JOSERRA ZUBIZARRETA** | ESKORIATZAKO ALKATEA

## "Aurrekontuekin oreka mantentzea da gure asmoa, ez dugu zorpetzerik nahi"

2016ko aurrekontua 5.325.435,85 eurokoa da, 2015ean baino %1,08 handiagoa.

**Iazkoekin alderatuta nolakoak dira aurtengo aurrekontuak?**
Antolatu ditugun aurrekontuak izan dira azken hiru urtetan izandako gorabeheren araberakoak. Uste dugu egoera gordinenetik ateratzen ari garela. Gauza ikusgarririk ez dugu egingo aurten, eta kontuan izan behar da gure lehen aurrekontuak direla eta egiten ari garen lanarekin oso gustura gaudela, nahiz eta oraindik kontzeptuak... ikasten ari garen.

**Nolakoa da Udalaren egoera ekonomikoa?**
Orokorrean, ona da. Kontuz ibili behar da, zaindu egin behar da dirua, eta ezin gara edozein gastutan sartu. Zeuden kredituak likidatu egin ditugu. Ez bagara zorpetzen eta oreka mantentzen badugu, ondo ibiliko gara.

**Zein irizpide hartu dituzue kontuan aurrekontuak banatzeko?**
Oreka mantentzea izan da gure irizpide nagusia, hasiera batean zorpetzerik ez dugulako nahi. Aurrekontutik %78 gastu finkoa da, eta %22rekin jokatu beharko dugu. Departamentu bakoitza aztertu dugu, partida batzuk ez zirelako erabiltzen, eta aldaketa filosofiko bat egin dugu. Esate baterako, orain arte elizateetako partida aparteko partida bat zen, eta guk eskaera horiek obra eta zerbitzuetako partidan sartu ditugu.

**Hirigintza eta ekonomian gora, besteetan behera; zergatik?**
Hirigintzan, hiri-berritze plan bileretatik irten diren beharrei erantzuteko. Baina aldaketak egon arren,


GOIENA

ez dago diferentzia handirik. Proiektu ugari daude erantzuteko, eta oinarriak ipini nahi ditugu etorkizunean beste proiektu batzuk gauzatzeko. Kirolean, Emakumeen Bira daukagu arten, kirol elkartean igoera txiki bat izan du, musika eskolak ere berdin, igoera bat dauka, Amuskak ere igoera dauka, Axtroki kultur elkarteari ere diru laguntza jarri nahi diogu...

**Zeintzuk dira inbertsio nagusiak?**
Bi proiektu nagusi daude: bata da Dorleta eta Tesa arteko zatia konpontzea. Eta bestetik, Aranburuzabala kalea konpontzea. Aurten, uste dugu Dorletakoari helduko diogula, dugun aurrekontua pentsatzen genuena baino txikiagoa delako. Dorletan hoditeria konpondu beharra dago, espaloia... Bestalde, San Pedro kalea bukatu beharra dugu... Hiri altzarietan, 60.000 euroko partida bat dago, eta horrekin haurren parkeak egokitu, margotu... nahi ditugu. Gerora egin nahi ditugun lanen ikerketa lana egingo dugu aurrena. Bestalde, aspalditik datorren beste gai bat kanposantuarena da. Bertan dagoen kaperatxoa monumentu gisa dago, eta konponketa bat behar du. Irisgarritasuna ere kontuan hartu behar da. Bi mailatan dago kanposantua eta edozein elbarritasun duena ere ezin da batetik bestera pasa... Kiroldegian ere egokitu beharra daukagu bertan dagoen materiala. Denboraren poderioz, eta erabileraren ondorioz, hondatu egiten dira. Garatu nahi dugu proiektu bat, kiroldegia nola berregokitu daitekeen... aurten proiektua garatuko dugu, eta aurrerago gauzatzea pentsatu beharko dugu.

**Beste alderdien emendakinez zein iritzi duzu?**
Aztertu genituen eta ezetza eman genien. Aldaketa esanguratsu bat dator kulturan, adibidez. Lehen, kulturan diru laguntza nominatibo asko zeuden, eta horiek kendu egin ditugu. Partida gehitu dugu, eta deialdi ireki bat egingo dugu jendeak bere proiektuak aurkeztu ditzan. EH Bildu ez dator bat horrekin, baina uste dugu zabaltzea hobeto dagoela; agian, hanka sartuko dugu, baina uste dugu halako aukera eman behar zaiola herriari.

UDAL TALDEEN BALORAZIOA

**Aitor Zubizarreta** | EH Bildu



## "Prozedura itxia eta inposatzailea izan da"

"Eskoriatzako Udalaren 2016ko ekitaldirako onartutako aurrekontuaren balorazioa egiterakoan bi dira bereizi behar diren aspektuak: alde batetik, aurrekontu hauen onarpenerako jarraitutako prozedura; eta beste aldetik, aurrekontuen edukia bera. Lehendabiziko aspektuari dagokionez, prozedura itxia eta inposatzailea izan da. Sail ezberdinetako teknikariek egindako aurreikuspenak ez dira egiaztatu; hau da, ez dute idatziaz gain beste baloraziorik izan eta bere gordinean irakurriak izan dira. Horrez gain, aurrekontuen proposamenaren atalak dagozkien batzordeetan ez dira aldez aurretik ezagutzera eman eta, beraz, eztabaidatzeko edo baloratzeko ez da aukerarik eman. Horrela, proposamenik egiteko aukera ukatu egin da eta emendakin bezala aurkeztu diren proposamen guztiak baztertuak izan dira. Bestalde, edukiari dagokionez inprobisazioa eta zehaztapen falta nabaria da. Aurrekontua bost ataletan edo eremutan bana daiteke. Horietako bat Integrazioa eta Gizarte Zerbitzua da. Atal honetan % 11ko murriztapena onartu da. Horrekin batera, higiezinen zergan bigarren etxebizitzagatik ezarrita zegoen errekargua kendu egin da. Hau da EAJren politika sozialaren ildoa: gehien daukanari lagundu eta gutxien daukanari kendu. Baina gizarte arloan murriztapena aurreikusten bada hirigintza eta mugikortasunean %8ko gehikuntza onartzen da, egitasmoak zeintzuk diren apenas definituta daudelarik. Atal honetan, hiri altzariak kontzeptupean aurreikusten den kopurua deigarria da: 65.000 euro. Hemen ere zehaztapena ez da inon ageri. Kultura, kirola eta euskara atalean ere murriztu da aurrekontua, eta euskara eta gazteria, batik bat, kaltetuenak gertatzen dira. Kultura esparruan aurreko urteetan Udalarekin elkarlanerako elkarte ezberdinekin sinatuta zeuden hitzarmenak bertan behera utzi dira eta izan daitezkeen diru laguntzak banatzeko, ezagutzen ez ditugun irizpide eta araubide berriak erabiliko omen dira. Arau edo irizpide berriek aldez aurretik ezarrita behar zuten izan. Parte-hartzean eta elkarlanean landutako aurrekontuak onartzeko aukera ezin hobea galdu da, eta aldi berean inprobisazioari bidea eman zaio".

**Iñaki Kerexeta** | Elizateak



## "Jakinekoa da aurrekontuak mugatuak direla"

"Bizi dugun egoerarekin bat datoz aurrekontuak. Adituek diote gogorrena pasa dela, eta zuhurragoak izan behar dugu. Zergek eta tasek (ura izan ezik) ez dute gehikuntzarik izan aurreko ariketatik, eta honek dakarren emaitza 5,3 milioi eurokoa da. Orokorrean, ez da izan partiden jaitsierarik; batzuetan, aldiz, doikuntza bat izan da, beste behar batzuetan erabiltzeko.

Hiri-berritze planaren inguruan egin diren deialdiek —10 izan dira, gutxi gorabehera: elizate bakoitzeko bat eta Lete auzoan eta herri barruan beste bi— herritarrak erakarri dituzte parte hartzera, eta bizilagunen beharrak lehen eskutik ezagutzeko aukera eman du. Bilera horietan esan direnak aurrekontuetan islatu dira, nahiz eta guztietan ez izan horrela; izan ere, jakinekoa da aurrekontuak mugatuak direla".

**Rafa Bernal** | Irabazi



## "Aurkeztutako eskaera guztietatik ez zen bat ere onartu"

"Udal Gobernuaren aurrekontuek ez dutenez kontuan hartu bizi dugun krisi ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa, Irabazi Eskoriatza alderdiak hamabost proposamen aurkeztu zituen aldaketa horretarako. Langabezian eta babes barik daudenei bultzada bat ematea proposatu zuen, aldi baterako lan ordainduak eskainiz. Bestalde, laguntza premia handia duten pertsona eta herriko elkarteei baliabideak bermatzea eskatzen zen.

Diru laguntzak eskatu ziren eskola publikorako, eta beharrezko errekurtsoak egokitzea ingurumenaren arloan, izaera testimoniala izateari uzteko. Aurkeztutako eskaera guztietatik ez zen bat ere onartu, eta, horregatik, ezetza eman behar izan diegu 2016ko aurrekontuei".



I.B

**KANPOSANTUA BERRITZEA** Kanposantuko kapera konpondu nahi du Eskoriatzako Udalak. Horrez gain, elbarrientzat irisgarriagoa egin nahi da, kanposantua bi mailatan dagoelako.



I.B

**DORLETATIK TESARAKO BIDEA** Hoditeria eta espaloia konpontzea, errepide zati horretan noranzko bikoitza jartzea... eskatu dute bertako bizilagunek.



I.B

**HERRIKO SARRERA BERDEA** Lore, zuhaixka eta egurrekin egindako loragetia jarri da Eskoriatzako sarreran, herriko sarrera politagoa egiteko lur zatia aprobetxatuz.

### AURREKONTUEN BANAKETA BATZORDEKA

| BATZORDEAK | EUROAK |
|---|---|
| **Hirigintza, eta Mugikortasuna** | 2.499.607,06 |
| **Gobernu eta Finantza** | 886.029,74 |
| **Integrazio eta Gizarte Zerbitzua** | 412.048,78 |
| **Kultura, Kirola eta Euskara** | 1.350.975,56 |
| **Garapen ekonomiko jasangarria** | 176.774,72 |
| **GUZTIRA** | **5.325.435,86** |

*Aurrekontu laburtua da.

ITURRIA: ESKORIATZAKO UDALA

# Jose Arana kaleak noranzko bakarrekoa izaten jarraituko du

Orain arte bezala, itxi egingo da ordu batzuetan

**I.B** | ESKORIATZA

Eskoriatzako Jose Arana kaleko errepideak noranzko bakarrekoa izaten jarraituko du, orain dagoen moduan. Udal Gobernu berriak adierazi zuen lehen zegoen bezala jarriko zuela, bi noranzkokoa, baina kontuan hartuta hiri-berritze bileretan jasotakoa eta mugikortasunaren inguruko gutunontzietan herritarrek egin dituzten ekarpenak, iritziz aldatzea pentsatu dute.

Ordu jakin batzuetan oinezkoek lehentasuna izango dute, eta ibilgailuak ezingo dira bertatik pasa. Errepidea itxita egongo den ordutegiak gaur egun dagoen moduan jarraituko du, oraingoz, baina aldaketak egon daitezkeela adierazi du alkateak: "Dendariekin eta autobusen arduradunekin bilera egingo da hori zehazteko, baina, hasiera baten, berdin jarraituko du".

**Egurrezko posteak**

Egurrezko posteak ere eztabaidagai izan dira herrian: batzuek diote estetikoki itsusiak direla; beste batzuek, ordea, errepidea eta espaloia banatzeko ondo ikusten dituzte... Dena den, alkateak adierazi du apirilerako kenduko direla; izan ere, Emakumeen Bira dela-eta lasterketa herriko plazan amaituko da.

**Mugikortasuna herrian**

Jose Arana kaleaz gain, herriko mugikortasunari, orokorrean, hainbat buelta eman behar dizkiotela adierazi du alkateak, baina denboraz hartuko dutela.

Aranburazabala kalea, Dorleta auzoko ingurua eta Arbiñoste dira, batez ere, lehentasuna duten lekuak, eta leku horietan aldaketak edo konponketak egiteko garaian herriari galdetuko diotela azaldu du alkateak.

## Inauterietako desfilea zapatuan egingo da 13:30ean hasita

Urtero moduan, Inauterietako desfilea egingo da Eskoriatzan. Normalean, taldeetan egiten da mozorro desfilea, baina bakarka egiteko aukera ere badago. Batzuek karroza prestatzen dute egunerako; beste batzuek, aldiz, dantzak egiten dituzte desfilean zehar. Dena den, originalarentzat saria egongo da.

## Zuhaitz Egunean haritzak eta urkiak sartu zituzten Elorretan

Urtarrilaren 31n Zuhaitz Eguna ospatu zen Eskoriatzan. Ibarraunditik Elorretara hainbat haur gurasoekin lagunduta joan ziren, eta haritzak eta urkiak landatu zituzten. 2015ean 45 haur jaio ziren, eta kopuru horren herena landatu zuten: hamabost landare. Iaz baino landare handiagoak ziren, aurrera egiteko aukera handiagoa izan dezaten.

# Etxebizitzak errentan jartzeko deia

Otsailaren 26ra arte egin daiteke eskaera Udaleko erregistro nagusian

**I.B** | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalaren jabetzakoak diren etxebizitzak errentan emateko deialdia egin du Udalak. Hauek dira Udalak errentan jarri nahi dituen etxebizitzak: San Pedro auzoa 9, 5.a ezkerra (80 m2), San Pedro auzoa 9, 5.a eskuina (80 m2) eta Intxartxueta auzoa 26, 2.a eskuina (79,90 m2). Bada, eskaerak aurkezteko azken eguna otsailaren 26a izango da, 13:30ak arte. Interesa duenak udaletxeko erregistro nagusian egin beharko du eskaera, eta kontratistak hainbat betekizun bete beharko ditu; esaterako, adinez nagusia izatea eta emantzipatua izatea, Eskoriatzako Udalean erroldatuta egotea...

Bestalde, errentaren prezioa 130 eurotik hasita izango da.

**Informazio gehiago**

Etxebizitzen inguruko informazio gehiago nahi duenak udaletxeko sarrera erregistroan egin dezake, Gizarte Zerbitzuetan edo *www.eskoriatza.eus* webgunean.

## Hasi dira kintoak kantu-eskean

Santa Ageda bezperan baserriz baserri aritu ziren, kantu-eskean, 1998an jaiotako kintoak. Gaur, berriz, dantzak egingo dituzte, 19:00etan, herriko plazan, eta domekan ere ordu eta leku berean egingo dituzte.



I.B

## Bikain ibili dira haurrak Urdelarderon

Eguen Gizenean, Urdelardero egunean, kalejira egin zuten gaztetxoek baserritar jantzita eta eskuan ziria zutela. Kantuan ibili ondoren, indarrak hartzeko txistorra jateko aukera izan zuten herriko plazan.



I.B

# Euskararen erabilera neurtuko dute, hutsuneak non dauden zehazteko

Soziolinguistika Klusterrak aurten egingo du kale neurketa, Ibarran, Udalak horrela eskatuta

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Euskararen jarraipen batzordeak bilera irekia egin du. Helburua izan da Txirritolak eta Udaleko euskara sailak antolatzen duten urteko programa adostea. "Elkarren artean adostu nahi izan dugu aurten indarra non ipini", azaldu du Rosa Mondragonek, Udaleko euskara teknikariak.

**Ekintzekin aurrera jarraitu**

Urtero egiten dituzten ekintzekin aurrera egitea adostu dute: ikastaroekin, Uemak eskaintzen duen zerbitzua berdindu edo indartu eta Txirritolaren ipuin lehiaketarekin, besteak beste.

Aurten indarrak non ipini behar dituzten erabakitzerakoan, bat etorri dira elkartutako guztiak. Bi arlo jorratuko dituzte: sentsibilizazioa eta elkarlana.

**Egoera neurtuko dute**

Sentsibilizazioa jorratzeko euskararen erabileraren kale neurketa egitea erabaki du Udalak. Modu horretan, egoera zein den eta hutsuneak ze taldetan dauden ikusiko dute: "2012an egin zen azkena; aurtengo neurketarekin tendentzia zein izan den ikusiko dugu", dio Mondragonek.

Horrez gain, Udalak bere esku dituen baliabideak erabiliko ditu euskararen inguruko mezuak zabaltzeko, "tantaz tanta". Asmoa "erabilera indartzea" izango da. Gainera, herriko eragileekin batzarrak egingo dituzte,


ARANTZAZU EZKIBEL


IMANOL SORIANO

## Santa Agedaren omenez

Atzo, eguena, Santa Agedaren omenez kantuan irten ziren eskolako neska-mutikoak. Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urtekoak kalera irten ziren eta Lehen Hezkuntzakoak auzoetan ibili ziren. Kaleak girotzen, baina, zapatuan hasi ziren. Santa eske herrikoia egin zuten. 55 bat lagun elkartu ziren herriko plazan eta bi taldetan banatuta auzoetan ibili ziren abesten.



Iazko Aratuste-zapatuan hirukotea mozorrotuta. | GOIENA

# Mozorroak jantzi eta festara irteteko aitzakia

Aratuste-zapatua ospatuko dute bihar

A. E. | ARAMAIO

Mozorroak gertatzeko azkeneko eguna izango dute gaur aramaioarrek. Izan ere, bihar, Aratuste-zapatua ospatuko dute. 17:00etan elkartuko dira frontoian eta kalejira egingo dute plazaraino. 18:00etan mozorro lehiaketa izango dute, eta gero txokolate beroa eta txiki jaia.

Mozorro lehiaketako sariak bi mailatan banatuko dituzte: haurren maila eta 14 urtetik gorakoena. Bietan sariak berdinak izango dira: lehenengoari 90 euro emango diote; eta bigarrenari 36 euro.

Originaltasuna ere sarituko dute. Musika jartzen Nemux Sonido taldea ibiliko da.

**Martitzenean eskolan**

Aratuste-martitzenean eskolakoek egingo dute ospakizuna. 14:00etan eskolatik irten eta desfilean joango dira herriko plazaraino. Han, Sastiña aurrealdean, gela bakoitzak bere aurkezpena egingo du. Ondoren eskolara itzuliko dira desfilean, eta txokolatea hartuko dute eskolako aterpean. Eguraldi txarrarekin, frontoian egingo dituzte ekitaldiak.

# Alegazioen erantzunekin osatuko dute berriro ere plan jenerala

A.E. | ARAMAIO

Aramaioko Udalbatzak hiri antolamendurako hasierako onarpenaren gainean jarritako alegazioak erantzun zituen joan zen eguenean egindako ohiko osoko bilkuran. Modu horretan, proiektua osatuko dute eta zehaztuko dute auzoetan non eraiki daitekeen eta non ez.

Alegazioan, erantzunak eman zituen Udalbatzak joan zen egunean egindako ohiko osoko bilkuran. 18 alegazio jaso zituzten. "Plan jeneraleko auzoei eta Oletari dagozkien alegazioen erantzunak onartu ditugu. 2015eko uztailean erakusgai egon zen proiektua, Diputazioak aldaketa batzuk egiteko eskatu ostean. Alegazio-epe bat zabaldu zen; alegazioak landu dituzte Stoa enpresak –2006tik plan jenerala daraman enpresa– eta udaleko arkitektoak. Hirigintzan landu genuen gaia; alegazio ia gehienak irizpide teknikoekin erantzun ditugu, eta beste batzuk bestelako irizpideekin ebatzi ditugu", dio Lierni Altuna alkateak.

**Prozesu geldoa**

Stoa enpresak proiektua erantzunen aldaketekin osatzen duenean, Eusko Jaurlaritzara eta Arabako Diputaziora bidaliko dute. Eta behin proiektua onartzen dutenean, miniplanak egingo dituzte; hau da, kotatu den lekua antolatu. "Oraingo fasean zehaztuko da non eraiki daitekeen eta non ez", gaineratu du alkateak

## Aramaioko Udalak '.eus'-era egingo du salto, eta egunotan dabiltza atarian aldaketak egiten

Aramaioko Udaleko ataria *.eus* izango da aurrerantzean. Aldaketa gauzatzeko lanean ari dira informatikariak, eta horregatik egunotan ez dago ikusgai Udaleko ataria. Uste dute laster izango dela berriro ere martxan eta ikusgai. Horrez gain, udaleko helbide elektroniko guztiak ere *.eus* izango dira aurrerantzean, eta, ez orain arte bezala *.org*. Informazio edota eskaera orokorretarako helbidea *udala@aramaio.eus* izango da, adibidez.

GIMNASIA AEROBIKOA

**Maialen Gallardo eta Maite Oliden** | Arrasate Dragoiko gimnasia aerobikoko taldekideak

# "Taldean giro ona izatea ezinbestekoa da emaitza onak lortu ahal izateko"

- Iaz Espainiako txapelketan lortutako podiuma berretsi gura dute
- Lehenago Euskadiko Txapelketan izango dira, apirilean, Iturripen

**XABIER URZELAI** | ARRASATE

Maialen Gallardok, Maite Olidenek, Leire Ugartek, Maialen Diazek eta Araitz Altubek osatzen dute Arrasateko Dragoi gimnasia talde barruan aerobikoko boskotea. Iaz Espainiako Txapelketan lortutako emaitza errepikatzeko gogor dabiltza entrenatzen; hirugarren sailkatu ziren. Aurten apiril amaieran izango dute hitzordu handia, minutu gutxitan hilabeteetako lana erakutsi beharko dute epaileen aurrean, baina lehenago gurean lehiatuko dira, apirilaren 9an Arrasaten izango da-eta Euskal Herriko Txapelketa, Iturripen. Bide batez, animoak orain arte taldeko kide izan eta lesio batengatik gimnasia aerobikoa alde batera utzi behar izan duen Kimi Lopez de Aretxagari.

**Ezustea izan zen Espainiako Txapelketan podiumera igotzea?**

**Maialen Gallardo:** Bai, sorpresa izan zen, txapelketako araudia aldatu eta, esaterako, Espainiako selekziokoen kontra neurtu genituelako indarrak. Gauzak ondo egiteko esperantza izaten duzu, baina podiuma... itzela izan zen.

**Maite Oliden:** Maitek esandako moduan, podiumera igotzea ez –hamar talde ziren guztira–, baina bagenuen gauzak ondo egiteko esperantza.



Dragoi taldeko ordezkariak, aste barruan, Arrasaten. | X.U.

**Apiril amaieran izango duzue ostera ere aurtengo edizioa. Zenbat denbora daramazue entrenatzen?**

**M.G.:** Bada, iazko txapelketa amaitu eta gutxira hasi ginen ostera ere aurtengoa prestatzen. Hasteko, urrian Espainiako Kopa izan genuen, eta horrako egindako lanak balio izan digu aurtengorako oinarri moduan. Horrenbestez, hilabete askotako lana dago atzean.

**M.O.:** Eguaztenetan, egubakoitzetan eta zapatuetan izaten ditugu gimnasia aerobiko entrenamenduak, bost bat orduz, baina gehiago egin gurako genituzke.

**M.G.:** Izan ere, entrenatzeko leku faltan ibiltzen gara, eta hori igarri egiten da gero txapelketetan. Arrasateko Institutuan entrenatzeko leku bat uzten digute, baina ordu gehiago entrenatu gura genituzke. Aerobikoa beharrean futbola izango balitz...

**Eta hori, aerobikoa eta gimnasia erritmikoa egiten dituzuela. Bateragarri dira?**

**M.G.:** Gimnasia erritmikoan txikitatik hasi ginen, eta guretako oso lagungarria da gimnasia erritmikoko eta aerobikoko entrenatzailea pertsona berbera izatea, batera entrenatzen garelako. Hala, gimnasia erritmikoko oinarria oso lagungarria izan da aerobiko barruan maila honetara iristeko.

**"Ez dugu gura beste entrenatzeko lekurik; hau futbola izango balitz..."**

**"Gimnasia erritmikoko oinarria lagungarria da maila honetara iristeko"**

**M.O.:** Gimnasia aerobikoan gehiago lantzen da indarra eta erresistentzia, eta erritmikoko balleta eta bertako dotorezia oso lagungarri da.

**Zelan aukeratzen dituzue koreografiak, musika...?**

**M.O.:** Gure entrenatzaileak egiten du aukeraketa ia osoa, Elena Lanuzak. Gure ezaugarriak kontuan hartuta egiten du aukeraketa, eta ikusten badugu pausoren batekin ez garela ondo konpontzen, bada, entrenatzaileak moldaketak egiten ditu.

**Bost lagun zarete. Garrantzitsua izango da taldean ondo konpontzea.**

**M.G.:** Ezinbestekoa da, oso garrantzitsua. Hasierako egunetan ez genuen gure artean konfiantzarik, baina hasieratik ederto konektatu genuen denok, eta oso ondo konpontzen gara.

**M.O.:** Eta txapelketetan igarri egiten da gero. Taldean giro ona baldin badago, denean igartzen da, zalantza barik.

**Zer behar da Espainiako Txapelketan parte hartzeko?**

**M.G.:** Puntuazio kopuru bat bete behar da. Hasteko, Gipuzkoan gu gara bakarrak taldeka gimnasia aerobikoa egiten dugunak. Baina Euskadiko Txapelketan gutxieneko puntu kopuru bat bete behar da Espainiakora sailkatu ahal izateko.

**Joan den astean GOIENA paperak batu zuen bailarako gimnasia erritmikoko taldeen egoera, eta osasuntsua da, neska mordoa daude talde guztietan. Eta zergatik horren gutxi gimnasia aerobikoan?**

**M.G.:** Nik uste dut ezjakintasunagatik dela; hau da, jendeak ez du kirol modalitate hau ezagutzen. Ez da kirol olinpiarra, eta horrek ere ez du laguntzen. Baina kuriosoa da; izan ere, Espainian, esaterako, Sara Moreno munduko txapeldun izan da hainbatetan. Gimnasia erritmikoan baino emaitza hobeak jaso izan dituzte aerobikoan.

**Iaz Espainiakoan horren lan ona eginda, aurten posible da gorago iristea?**

**M.O.:** Gauzak ondo egin ditzakegula uste dugu, baina oso zaila da lehenengo edo bigarren sailkatzea. Iaz irabazleak Espainiako selekzioko ordezkariak izan ziren, eta onenak direlako daude selekzioan, eta bigarrenak Gasteizko lagun batzuk izan ziren.

**M.G.:** Bai, lehenengo bi postuak nahiko seguruak dira. Izan ere, selekziokoak eta Gasteizko Biribildu taldekoak Espainiako Txapelketaren ondoren Koreara joango dira, Munduko Txapelketara. Horrenbestez, uste dugu dagoeneko oso maila onean egongo direla.

**M.O.:** Daukagun esperantza da federazioak hainbat modalitate bereiztea, esaterako, Biribildukoek ez dutelako gure modalitate berbera egiten. Hori egiten badute, ea aurrean ibil gaitezkeen.

TRIATLOIA

## Antxintxikakoak protagonista, taldeka eta bakarka

**X.U.** | ARRASATE

Joan den domekan Euskal Herriko duatloiaren eta triatloiaren jaia ospatu zuten Irungo Atalaia hotelean. Modalitate eta maila bakoitzeko 2015. urteko kirolari onenak saritu zituzten bertan, eta bailarako hainbat ordezkarik aparteko protagonismoa izan zuten. Eta taldekako sari potoloena ibarrera ekarri zuten.

**Taldeka eta bakarka**

Izan ere, Antxintxika Triatloi taldearendako izan ziren saririk potoloenak, duatloian eta triatloian 2015eko talderik onena izan delako.

Bakarkako sarietan Antxintxikako Lourdes Oiartzabal izan zen protagonista: duatloi zirkuituko urteko atletarik onena izendatu zuten. Gizonezkoetan, berriz, Mikel Mujika eta Mikel Ugarte –triatloian– eta Xabier Luis eta Iker Arkauz –duatloian– podiumera igo ziren.

Maila absolutuan, Mujika bigarren izan da, eta Ugartek hirugarren postua eskuratu du euskal zirkuituan; oñatiarra, gainera, bigarrena izan da 23 urtez azpikoen kategorian. Beste oñatiar batek, Iker Arkauzek, hirugarren postuan amaitu du 23 urtez azpikoen duatloi sailkapena. Eta beteranoen mailan, aipamena merezi du Alejandro Altunak, Arrasatekoa bigarren izan da-eta.



ESKUBALOIA


Bergarako infantil mailako eskubaloi taldekoak, aste barruko entrenamendu-saio batean | X.U.

# Hilabeteak entrenatzen egon ostean, iritsi da saria

## Kopa txapelketa hasiko dute hil honen amaieran

XABIER URZELAI | BERGARA

Azken boladan, Bergarako eskubaloi taldeko lagunek zerotik hasi behar izan dute arlo askotan. Senior mailako gizonezko taldeak, esaterako, mailaz jaisteko erabaki gogorra hartu behar izan zuen, talde gaztearekin Euskadiko Txapelketan lehiatzeak ekarriko lukeenagatik.

Albiste ona, berriz, emakumezko koadrila baten eskutik etorri da; izan ere, hilabeteak entrenatzen egon ostean –eskubaloian jokatzen ikasteko helburu bakarrarekin–, hil honen amaieran Xabier Iñurrietak zuzentzen duen taldeak Kopan egin ahal izango du estreinaldia: "Ilusioz hartu dugu albistea, pozik gaude", azaldu du Mireia Sebalek, baina ez da ausartzen esatera taldea zer egiteko kapaz izango den: "Ez da erraza izango, gainontzeko taldeak –48 talde izango dira guztira– liga jokatzetik etorriko dira, eta guk ez dugu txapelketarik sekula ere jokatu, baina ahaleginduko gara gauzak ondo egiten", gehitu du Alazne Mujikak.

**"Oinarritik hasi gara"**

Iñurrieta entrenatzailea pozik dago neskek hilabete hauetan egin duten aurrerapenekin: "Oinarritik hasi behar izan genuen, baloia ondo botatzen ikasi eta halakoak. Baina badoaz aurrerapenak egiten. Liga irailean hasi zen, eta urrian sortu genuen guk taldea; Kopan izango dugu jokatzeko aukera, eta datorren denboraldia prestatzeko balioko digu".

FUTBOLA

# Oiartzuni irabazi eta bolada onari eutsi nahi dio Aloña Mendik etzi

JOKIN BEREZIARTUA | OÑATI

Azken partiduetan lortutako emaitza onekin jarraitu gura du Aloña Mendik (33 puntu) Oiartzun (25) menderatuta (Domeka, Azkoagain, 16:30). Ohorezko Erregional Mailan ez dago partidu errazik, eta badaki hori Igor Serrano entrenatzaileak: "Ohi bezala, intentsitate handiarekin irtetea izango da agindua. Eta irabaz dezakegula sinistea, hori da garrantzitsuena", dio.

Aurkaria azpian dago sailkapenean, baina ezin da ahaztu iaz Hirugarren Mailatik jaitsi zirela: "Lehen itzulian kostatu egin zaie, baina orain ikusten da gorantz datozela, eta uste dugu partidu gogorra izango dela". Hala ere, bolada onean dator Aloña Mendi, azken sei partiduetatik bost irabazita: "Oso dinamika positiboa da eta horrela jarraitu beharra dago. Zazpitik sei irabaztea lortu behar dugu orain. Jokalariak sekulako lana egiten ari dira".

**UDA, puntu beharrarekin**

Aretxabaletak irteera zaila izango du bihar (17:00). Zallaren aurka jokatuko dute, eta, sailkapen erdialdean egon arren, denboraldiari goian egoteko asmoz ekin zion. Gorka Valleren mutilek hiru puntuen beharrarekin doaz; izan ere, jaitsiera postuetan dago UDA, azken hirugarren –aurten lau talde jaitsiko dira, seguruenik–, eta "luzea" izango den borrokan ahalik eta lasterren hasi beharra dago puntuak batzen: "Denboraldi osoa daramagu beheko postuetan, baina orain talde gehiago gaude borrokan. Horrela izango da amaierara arte".


Asier Ugarte aurrelari oñatiarra baloiarekin, artxiboko irudi baten. | GOIENA

KROSA


Imanol Cruz eta Yeray Varela taldekideak domekan Lasarten, . | EGOITZ ARRUTI

# Aloña Mendiko atletak Espainiakorako sailkatu dira

## Lasarten egindako Euskadiko Txapelketan bigarren sailkatuta lortu dute txartela

X.U. | OÑATI

Domekan Lasarteko krosean egindako lan onari esker, Aloña Mendikoek urteko helburu nagusia lortu zuten, hil honen amaieran egingo duten Espainiako Txapelketarako taldeka sailkatzea. Senior mailako taldeak iaz lorturiko txapela defendatzea zuen helburu, baina hutsune garrantzitsuak izan zituzten eta ezin izan zuten iazkoa errepikatu: "Alberto Revuelta lasterketan egon ez izana igarri egin genuen, zalantza barik. Eta, egia esan, besteok ondo jardun genuen, baina ez bikain. Aurreko egunetan ez zuen euri askorik egin, eta bazirudien ez zela lokatz askorik pilatuko. Baina ondoren, zirkuituko zona batzuk oso astun zeuden", adierazi du Yeray Varelak. Dena dela, nahiz eta iazko txapela defendatu ez, Oñatiko taldekoak pozik daude aurten ostera ere Espainiakoan izango direlako.

Aurreratu moduan, hutsune nabarmenak izan zituen taldeak, baina lokatz gainean lehiatu zirenek txukun jardun zuten: Imanol Cruz (17.), Yeray Varela (19.), Sergio Garcia (39.), Tasio Gomez (42.), Mikel Ugarte (83.), Jon Otermin (110.) eta Juan Señok (114.) egindako lanari esker lortu zuen taldeak txapeldunorde izatea.

**Kadeteak Euskadiko txapeldun**

Eguneko ezuste pozgarria, ostera, kadete mailako atletek eman zuten, talde oso indartsuak gainditu eta Euskadiko Txapelketa irabazi zuten eta. Eritz Campok, Beñat Guridik, Gexan Anduagak, Beñat Madinak, Ander Biainek, Aitor Monasteriok, Arkaitz Fraguak eta Jon Señok osatu zuten taldea.

HERRI KIROLAK

# Urrezko Aizkorako saioa Oñatin hilaren 14an

X.U. | ARRASATE

Hil honen amaieran jokatuko dute Azpeitian Urrezko Aizkorako finala, baina oraindik dena dago erabakitzeke. Gaur, egubakoitza, Beasainen egongo den saioan askotxo argituko dira finalera begirako aukerak, baina gaur kale egiten duenak otsailaren 14an Oñatin beste aukera bat izango du.

Dagoeneko segurua da Errekondo eta Saralegi Oñatin egongo direla, baina ikusteko dago ze bikote izango duten aurrean. Izan ere, Laurence O'Toole eta Iker Vicente izan daitezke, edo, bestela, Lopez eta Otaegi. Eta, aurreratu moduan, gaurko Beasaingo zeingehiagoka erabakigarria izango da Oñatiko saioa definitzeko.

SASKIBALOIA

# Azken sailkatu La Flecharen kantxan du MUk partidua

X.U. | ARRASATE

Joan den astean ligako oilarretako baten kantxan zigor gogorra jaso ostean (83-48), MUk La Flecharen kantxan jokatuko du bihar, zapatua (19:00etan Donostian). Larreategiren mutilak Estela taldea estutzeko gauza izan ziren lehenengo bi laurdenetan, baina hori dute maila oneko taldeek, kalitatea soberan, eta nahikoa da momentu konkretu batean apur bat estutu, markagailuko aldea handitu eta kontrarioa partidutik ateratzeko. Neurri handian, horixe gertatu zitzaien zuri-moreei, eta, bigarren astez jarraian kanpoan jokatuko badute ere, bihar ez dute maila horretako jokalariekin topo egingo. Baina laurden guztiak egin beharko dituzte maila onean.



Amaia Txintxurreta
Kantariko aurkezlea.

5. ALDIA

# Kantari

## Ikuskizunak Oñatin

Otsailaren 13an eta 14an Gaztelekuan

**Instagram* argazki lehiaketa:**
Oñatiko ikuskizuneko argazkiak bidali #goiena eta #kantari etiketak erabilita.

**Saria: Tableta bat.**
*Instagramek gomendatzen du bere aplikazioa 13 urtetik gorako umeek erabiltzea, Adingabeak Babesteko Pribatutasun Legearen arabera.

## Aretxabaletako saioak Goiena Telebistan!

**Lehen saioaren emisio egunak:**
Otsailak 6, zapatua, 10:30 eta 20:00
Otsailak 7, domeka, 16:30
Otsailak 8, astelehena, 19:00
Otsailak 11, eguena, 13:30

Bigarren saioaren emisio egunak:
Otsailak 6, zapatua, 16:30
Otsailak 7, domeka, 10:30 eta 20:00
Otsailak 9, martitzena, 13:30
Otsailak 12, egubakoitza, 19:00

**Informazio gehiago:** 943 25 05 05
http://blogak.goiena.eus/kantari/

goiena

# KULTURA

# Askotariko filmak pantaila handian ikusteko aukera ugari eskualdean

- Pelikula estreinatu berriak erakusten dituzte astero udalek kudeatutako zinemetan
- Kalitatezko eta digitalizatutako aretoak daude Debagoieneko udalerrietan

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Helduentzako eta haurrentzako zinema komertziala, zirkuitu horretatik kanpo dauden filmen zineklubak, gaikako zine saioak; horiek guztiak eskaintzen dituzte Debagoieneko zinema aretoek. Zinema kontsumitzeko erak aldatu egin dira, eta, ondorioz, herri askotakoek ateak itxi dituzte. Ez da hori, baina, Debagoieneko errealitatea; gaur egun, maiztasun ezberdinarekin bada ere, herri guztietan dago filmak pantaila handian ikusteko aukera.


Asier Altunaren 'Amama' filma izan zen iaz Debagoieneko zinema aretoetan film ikusiena. | TXINTXUA FILMS

### Herrietan ere estreinaldiak

Teknologia berriek asko laburtu dute estreinaldiak herrietako zinemetara heltzeko epea. Digitalizatutako zinema aretoak dira Debagoienekoak. Herrietako zinema aretoak plaza onak dira. "Zinemen digitalizazioak abantaila handiak ekarri ditu. Programazioari dagokionez, errazagoa da orain filmen kopiak eskuratzea; eta irudiaren eta soinuaren kalitateari dagokionez, zer esanik ez", azaldu du hainbat zinema aretotako programatzaile Usoa Urbieta bergarararrak gaurko *Puntua*-n. Era berean, Urbietak gaineratu du ikusleak zorrotzak eta informatuak direla, eta, horregatik, estreinaldiez gainera, bestelako film interesgarriak ekartzeko ahalegin handia egiten dutela.

Debagoieneko kultura teknikariek emandako datuek argi erakusten dute herritarrek asko estimatzen dutela norberaren herrian zinema aretoa izatea. "Urtarrilean, asteburuko 500 ikusletik gora izan ditugu helduen saioetan", esan du Karmelo Alberdik, Arrasateko Kultura teknikariak. "Iaz 11.608 ikusle izan genituen", diote Oñatiko Kultura arduradunek. "Aretxabaletan, helduentzako, besteak beste, astelehen arratsaldeetan eskaintzen dugu, 16:00etan. Inguruko herrietatik ere zale asko etortzen da, bereziki, emanaldi horretara", kontatu du Kultura teknikari Inma Miguelek.

### Kudeaketa, herriaren arabera

Debagoieneko zinema areto guztiak Udalarenak dira, nahiz eta Oñatiren, Arrasateren eta Aretxabaletaren kasuetan espresa bati esleituta daukaten kudeaketa. Enpresekin adosten dituzte programazioak, eta udalek dute, berriz, ekipamenduaren mantenua eta, kasuan kasu, langileen kontratazioaren ardura.

**DATUA**

**789**

AULKI

Arrasatekoa da handiena. Ondoren: Eskoriatzakoa (139), Oñatikoa (127), Bergarakoa (120) eta Aretxabaletakoa (99).

### Zine komertziala asteburuRO

Arrasaten, Aretxabaletan, Bergaran eta Oñatin astero dago –egubakoitzetik astelehena bitartean– helduentzako eta haurrentzako zine komertziala. Orokorrean, domeketan eta astelehenetan batzen da ikusle kopururik handiena herri guztietan. Film komertzialen emanaldiez gainera, zineklubak ere antolatzen dituzte: Arrasaten martitzenetan (20:00); Bergaran eguaztenetan (20:00); eta eguenetan Oñatin (20:00) eta Aretxabaletan (19:30). Film horien aukeraketa Udalaren, esleitutako enpresaren eta herrietako hainbat eragileren artean egiten dute.

Antzuolan eta Eskoriatzan hasi berriak dira helduentzako pelikulak eskaintzen. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Filmazpit programarekin egin dute bat eta pozik daude emaitzarekin: "Hamabost urtetan ez da izan helduentzako zinema eskaintzarik herrian, eta Udalak hutsunea bete gura izan du. Aurreko astean hasita, aurrerantzean hileko azkeneko egubakoitzetan askotariko filmak ikusteko aukera izango dugu Torresoroan", azaldu du Jone Larrañagak, Antzuolako Kultura teknikariak. Arantza Unzueta eskoriatzarrak, berriz, honakoa hau dio: "Zinema jaialdi handietan saritutako film laburrak jatorrizko bertsioan ikusteko aukera eskainiko dugu, hilean behin, eguaztenetan. Migrazioari buruzkoak izan ziren lehenengoan eta homosexualitateari buruzkoak, berriz, otsailaren 24an". Eskoriatzan haurrentzako hilean bitan eskaintzen dituzte, domeketan.

### 'Amama', ikusienen artean

Asier Altunaren azkeneko film luzea eta *Ocho apellidos catalanes* dira azkeneneko hilabeteetan Debagoienean ikusle kopuru handienak batu dituztenak. Bergaran diferentzia handiarekin nagusitu zen *Amama*, eta Oñatin 600 ikusle izan zituen. Arrasaten eta Aretxabaletan ere harrera ona izan zuen, baina Emilio Martinez-Lazarorena gailendu zen.

Haurrentzako saioetan, berriz, ez dago *irabazle* garbirik, honako hauek aipatu dituzte, besteak beste: *La Oveja Shaun, El Viaje de Arlo* eta *Bran Barrabas*.


Zorionak Ana!

Goiena Klubeko abenduko bazkidetza kanpainaren zozketetako irabazlea



**Tableta baten irabazlea**
Ana San Vicente Bengoa (Bergara)




**Eroski Hipermerkatuan izan genuen gunera etorri zineten guzti-guztioi, eskerrik asko!**

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



Opera 2001 taldea *Rigoletto* antzezten. | OPERA 2001

# 'Rigoletto' opera ikusteko ehun sarrera eguaztenean ipiniko dituzte salgai

- Ozenki elkartearen eskutik antzeztuko da Arrasaten otsailaren 24an
- Opera 2001 konpainiak egingo du, nazioarteko abeslariekin

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Giuseppe Verdiren *Rigoletto* opera ezaguna Arrasateko Amaia Udal Antzokira ekarriko du Ozenki elkarteak hilaren 24an; opera ospetsuenetako bat da, "edozein operazalek ikusi behar duenetako bat, *La donna è mobile* bezalako aria ezagun-ezagunekin", Ozenkiko arduradun Manu Gallardoren esanetan. Sarrerak salgai daude eguaztenean hasita, hilak 10, ohiko kanaletatik: Kutxabanken bidez, Amaia Udal Antzokiko txarteldegian, Arrasateko Udalaren webgunean eta elkarteari mezu elektronikoa bidalita (*ozenkielkartea@hotmail.es*).

Elkarteko kideendako gordeta zeuden sarrerak lehenengo hiruzpalau egunetan saldu dira, eta 100 sarrera inguru ipiniko dituzte salgai. 30 euro kostatuko dira. Antzokiaren bi hereni dagozkien sarrerak dira orain arte saldutakoak, baina zale askorendako lekua dago oraindik.

**Ezinbesteko titulua**

Ozenkiren ohiko kolaboratzaile Opera 2001 konpainiak antzeztuko du *Rigoletto* Arrasaten, aurretik beste opera batzuekin egin duen bezala. Ozenkiren opera guztiak ez ditu talde horrek egin: "*Tosca* eta *Marina* operak guk geuk ekoiztu genituen. Gogoa genuen opera geuk egiteko, jende berriarekin kolaboratzeko, abeslari berriekin proba egiteko. Baina, era berean, oso adi gaude opera programazioari eta oso kontuan hartzen dugu hura, eta ekarri gura ditugun tituluei begira egoten gara. Azken baten, opera bat aurrera eramatea oso ekoizpen-lan handia da, diru aldetik eta lan aldetik. Gure helburua da ezinbesteko tituluak Arrasatera ekartzea, eta *Rigoletto* da horietako bat", azaltzen du Manu Gallardok.

Arrasaten nazioarteko opera abeslarien interpretazioekin gozatzeko aukera izango dute zaleek. Oraingoz behintzat, eta antzezpena arte aldaketarik ez badago, honakoa da antzezle eta abeslarien zerrenda: Giulio Boschetti *Rigoletto*-ren rolean (baritonoa); Sonia Bellusi, *Gilda*-renean (sopranoa); David Baños, *Mantovako dukea*-ren rolean (tenorea); Tihomir Androlov, *Monterone* gisa (baritonoa), eta Liliana Mattei, *Maddalena*-ren rolean (mezzo-sopranoa). Martin Mazik izango da zuzendaria, eta Pleven-Bulgariako orkestrak joko du musika.

**Opera polemikoa**

Opera horren inguruan, honako hau dio Gallardok: "Futbolzale batendako Bartzelonaren eta Real Madrilen arteko partidua ikustea bezala da; ezinbestekoa da, klasiko bat".

Giuseppe Verdi konpositore italiarrak 1851n idatzi zuen opera hori, Veneziako La Fenice antzokiaren enkarguz. Inspirazio gisa, Victor Hugo idazle frantsesaren *Le roi s'amuse* delako drama hartu zuen. Hasieratik polemika handia piztu zuen, drama horrek errege bat gizaki ziniko eta immoral gisa aurkezten zuelako. Horregatik, drama hori Frantzian zentsuratutakoa zen eta gauza bera gertatuko zitzaion beldur zen Verdi. Garai hartan, Austriako erresumaren mendean zeuden Italiako iparraldeko lurraldeak, eta Austriako zentsoreei aurkeztu zien Verdik bere proposamena, baina ez zuen baimenik jaso. Azkenean, hainbat pertsonaia, titulu eta leku-izen aldatu zituen eta horrela lortu zuen operarekin aurrera egitea eta azkenean hura estreinatzea: erregearen ordez dukea zen pertsonaia immoral hura, eta istorioa Mantovako dukerrian –ordurako existitzen ez zena– girotuta zegoen.

Operaren alderdi garrantzitsuenetako eta erakargarrienetako bat protagonistaren, *Rigoletto* lepomakurraren, pertsonaia da. Pertsonaia konplexua da eta alabarenganako maitasuna eta nobleenganako gorrotoa dario.

**Oso harrera ona espero dute**

Manu Gallardok azpimarratzen duen moduan, "benetako luxua" da Arrasaten lan hori Opera 2001 bezalako talde baten eskutik ikusi ahal izatea. Izan ere, Opera 2001 taldearen muntaia Valentzian estreinatuko da laster, eta, horren ostean, Espainiako probintzia hiriburu nagusietatik pasatuko da. Arrasaten ere geldialdia egingo du, nahiz eta hiriburu bat ez izan.

Harrera "oso ona" espero duela dio Gallardok, orain arte Ozenkiren antzezpenek izan duten moduan. Taldearen eskutik ikusi ahal izango den zortzigarren opera da hau.

# Umeei ipuinak kontatzen ikasteko saioak Bergaran

Pello Añorga irakaslearen esanetan, ikastaroak balio du "umearekin hobeto komunikatzeko"

L.K. | BERGARA

Haurrei ipuinak kontatzen ikasteko moduak eta estrategiak erakutsiko ditu Pello Añorga kontalariak, otsailaren 11n hasita, Bergarako liburutegian. Bi txanda izango dira: 15:00etatik 17:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Ikastaroa eguenetan emango da.

Oinarrizko ikastaroa da eta, batez ere, ume txikiei kontatzen ikastekoa da. Batik bat, gurasoei zuzendua dago, eta baita haurrekin egoten den eta interesa duen heldu orori ere: hezitzaileak, aitaita-amamak... Horiek guztiak parte hartzera animatu nahi ditu Añorgak.

**Ingurune egokitik abiatuta**

Añorgak dio "oinarrizko pautak" emango dituela. Lehenengo, ingurua aukeratzeko pistak emango ditu: espazioa –normalean, umearen ohe inguruan izaten da kontaketa– eta denbora –Añorgaren hitzetan, "orain eta hemen haurrarekin egoteko" gomendioak.

Ipuinak aukeratzeko aholkuak ere emango ditu, "haurrak identifikatuta senti daitezen" eta "emozioak transmititzeko".

Hirugarren atal baten, kontatzeko estrategiak erakutsiko ditu: "Kontatzea komunikatzea da eta haurrarekin harremana hobetu dezakegu horrela. Beraz, ikastaroak balio du haurrarekin hobeto komunikatzen ikasteko", esaten du Pello Añorgak. Izan ere, bere esanetan, "ipuina non eta noiz kontatu, eta kontatzeko jarrera, kontakizuna bera bezain garrantzitsuak dira".



Kandido Uranga, Jose Ramon Soroiz eta Ramon Agirre oholtza gainean. | TXALO

# Agirre, Soroiz eta Uranga, hiru 'heroi' Arrasaten

Sari asko jaso dituen 'Heroiak' antzezlana egingo dute etzi, domeka, Amaia Udal Antzokian

L.K. | ARRASATE

Euskal antzezpen munduko hiru izen handi –Jose Ramon Soroiz, Kandido Uranga eta eta Ramon Agirre– taula gainean ikusteko aukera paregabea dago etzi, domeka, Amaia Udal Antzokian, 19:30ean hasita. Hain zuzen, Txalo antzerki taldeak *Heroiak* lana antzeztuko du. 90eko hamarkadan dago girotuta, gerrako beteranoendako zaharren egoitza baten. Hantxe daude Gustav (Agirre), Rene (Soroiz) eta Fernand (Uranga). Rene herrena dago, Gustavek agorafobia du eta Fernandek zorabioak izaten ditu sarri, buruan duen metraila pusketaren erruz. Halako baten, hiru heroiek zaharren egoitzatik ihes egitea erabakitzen dute. Nora, ordea? Indotxinara? Aldameneko herrira? Edo haizeak lizarrak inarrosten dituen tontorrera?

**Komedia sentimentala**

Gerald Sibleyras frantsesak 2003an idatzitako lana da *Heroiak*; jatorrizko izenburua *Le Vent des peupliers* da, eta I. Mundu Gerrako beteranoak dira protagonistak. Tom Stoppard ingelesak itzuli zuen Britainia Handian antzezteko, eta horren egokitzapena da *Heroiak*. Londresen, Wyndham Theatre antzokian estreinatu zen arrakasta handiz 2005ean, Richard Griffiths, John Hurt eta Ken Stott aktore ospetsuekin. Laudorioak jaso ditu lan horrek bai Britainia Handian bai Frantzian ere, eta komedia onenaren sariak irabazi ditu bi herrialdeetan.

Txaloren esanetan, "komedia sentimentalaren generoan" sar daiteke *Heroiak*, eta 13 urtetik aurrerakoendako egokia da.

# Pailazoak bueltan datoz Bergarako Aratusteetara

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 'Amalur' ikuskizuna eskainiko dute bihar

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Aratusteetan urtero hitzordua izaten dute bergararrek Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo hirukote famatuarekin, eta aurtengoetan ere hala izango da. Bihar, zapatua, pailazoek bi saio eskainiko dituzte, arratsaldez, Udal Pilotalekuan. Lehena 15:30ean hasiko da eta bigarrena, berriz, 18:00etan. Ume zein gurasoek arratsalde dibertigarria igarotzeko aukera paregabea izango dute bihar, beraz.



Azaroan Eskoriatzan izan ziren pailazoak. | GOIENA

**Amalur**

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berria, *Amalur* izenekoa, udazkenean estreinatu zuten, eta, herririk herri ibili ostean, bihar lehen aldiz ekarriko dute Bergarara. *Amalur*-en, baserriaren eta naturaren gaia landuko du pailazo hirukote famatuak; izan ere, Marimototsek baserritar izan nahi duela erabaki du, eta Ilargi lagunaren ondoan dihardu ikasten.

Hala, hiru pailazoek baserriko bizitza eta lana ezagutuko dute Ilargiren eskutik, eta Amalurra zein garrantzitsua den ikasiko dute. Era berean, euren lagun Ilargi haurdun dago, eta umea izango du aurki. Hori dela eta, Pirritx, Porrotx eta Marimotos alboan izango ditu, ahal duten guztiarekin laguntzen.

Ikuskizun honetan ere, beti bezala, pailazoek abesti eta dantza ugari tartekatuko dituzte istorioaren kontaketan zehar, eta, hain zuzen ere, neska-mutikoek ere ederki pasatzeko aukera izango dute haiekin batera abestuz eta dantzatuz.

Nola ez, pailazoek Inauteriak ospatzeko eta emanaldira mozorrotuta joateko dei egin diete Bergarako zein inguruko ume guztiei.

**Sarrerak**

Gaur, egubakoitza, arratsaldeko zazpiak arte izango da pailazoen ikuskizunerako sarrerak Internetez erosteko aukera *www.bergara.eus* helbidean.

Bestalde, arratsaldeko seietatik zortziak bitartean Zabalotegi aretoko leihatilan ere izango dituzte salgai. Emanaldiaren egunean, berriz, 14:30ean irekiko dituzte Udal Pilotalekuko leihatilak, betiere, sarrera guztiak aurrez saltzen ez badituzte; kasu horretan, ez dute leihatila irekiko. Sarrera guztiek sei euroko prezioa izango dute, bai aurretiaz erositakoek, baita leihatilan erositakoek ere. Pertsona bakoitzak gehienez sei sarrera erosi ahal izango ditu.

# 'Azpitituluak.com' Internet atariak Argia saria jaso du

Sariketaren 27. edizioan Interneteko komunikazioaren arloan saritu dute proiektua

M.T. | DEBAGOIENA

*Azpitituluak.com* webguneak jaso du Interneteko komunikazioaren arloko aurtengo Argia saria. Helbide horretan hainbat pelikularen azpitituluak doan deskargatzeko moduan eskaintzen dituzte. "Euskarari egindako ekarpenagatik" erabaki dute proiektua saritzea.

Euskarazko komunikazioaren sariak dira Argia sariak, eta, hain zuzen, 27. edizioa izan da aurtengoa. Hiru Damatxo kolektiboa (Ikus-entzunezkoak), Gora Gasteiz! ekimena (Sustapen ekintza), Joxerra Senar (Prentsa idatzia), Goiz berri saioa (Irratia) eta *Loreak* filma (Merezimenduzkoa) izan dira gainontzeko sarituak.

2008an sortu zuen *Azpitituluak.com* Luistxo Fernandezek, eta dagoeneko 700 film luzeren euskarazko azpidazkiak daude eskuragarri; horietako asko, boluntarioek proiektu horretarako espresuki itzulitakoak.

*Azpitituluak.com*-eko kolaboratzailea da Joxe Arantzabal arrasatearra, eta Luistxo Fernandezekin batera izan zen pasa den egubakoitzean saria jasotzen Usurbilgo Atxega jatetxean ospatutako ekitaldian.

Goiena Komunitateko kide aktiboa da Arantzabal, eta Jon Salaberri ekimena dela-eta parte hartze zuzena izan du azkenengo Rikardo Arregi sari nagusian ere. Hura izan zen-eta, gerora, saritu zuten ikus-entzunezko dokumentalaren bultzatzailea.



Saritu guztiak. | ARGIA



Irazaneko kideak zapatuko agerpenean. | BERTSOZALE ELKARTEA

# Xabi Igoa eta Irazan taldeko kideak Donostiako Bertso Egunean

M.T. | DEBAGOIENA

Pasa den zapatuan, urtarrilaren 30ean, Bertso Eguna ospatu zuten Donostian. Goizean bertso saio bat egin zuten hiriko garagardotegi batean, eta ekitaldi nagusia Kursaal aretoan egin zuten; bertan, arratsaldean saio bat egin zuten eta gauean beste bat. Debagoieneko ordezkaritzarik ere izan zen aurtengo Bertso Egunean.

Xabi Igoa aramaioarrak afalosteko saioan hartu zuen parte, beste hamar bertsolarirekin batera. Saio entretenigarri batekin eta festa giroan itxi zuten egun berezia.

**Irazanekoen antzerkia**

Ekitaldian zehar talde desberdinen ikuskizun txikiak eta esketx erako agerpenak tartekatu zituzten. Hala, Oñatiko Irazan antzerki-guneko taldetxo batek ere parte hartu zuen, eszenatoki gainean kirolari talde bat antzeztuz.

# Sorkun musikaria zuzenean ikusteko aukera izango da otsailaren 27an Oñatiko gaztelekuan

M.T. | OÑATI

Hileko azken zapatuan, otsailaren 27an, Sorkunde Rubio –Sorkun izenez ezagunagoa– musikari beteranoak kontzertua eskainiko du Oñatiko gaztelekuan. Gaueko hamar eta erdietan izango da hitzordua.

Kashbad taldeko abeslaria bakarlari moduan dator Oñatira. *Ziklomorphosia* izena du bere lan berriak, eta horixe aurkeztuko du gaztelekuan. Lan berri horretan, estilo aldetik jauzi handia eman du errenteriarrak, orain arte eskainitakoaren oso desberdina baita. Rock estiloa neurri batean alboratu egin du eta erritmo dantzagarriagoak jorratu ditu oraingo honetan.

Testuei dagokienez, disko horretan, bere hitzez gain, Eider Rodriguezek edota Harkaitz Cano idazleak idatzitakoak daude.

**Sarrerak**

Sarrerak datorren astean jarriko dituzte salgai, bost eurotan, Oñatiko Boga eta Ona eta Arrasateko Jai Zale tabernetan. Aldiz, egunean bertan leihatilan salduko dituzten sarrerek zazpi euroko prezioa izango dute.

# Bailarako piano jole gazteak bikain aritu ziren Arrasaten

Debagoieneko musika eskoletako 56 piano ikasle gaztek euren gaitasunak erakutsi zituzten eguaztenean Arrasateko Amaia antzokian. . Banaka edota binaka, gaztetxoek pieza bana jo zuten. Askok Andoaingo piano jaialdian hartuko dute parte otsailaren 20an eta 21ean.



MAITE TXINTXURRETA

**Nerea Diaz** | Igerilaria

# "Esperientzia eta aukera izugarria da; zortea izan nuen Euskadiko selekziorako aukeratu nindutenean"

IRATI ELORTONDO | ARRASATE

Nerea Diaz (Oñati, 2000) igerilari oñatiarra txiki-txikitatik ibili izan da igeriketan. Gipuzkoako selekzioan egon eta gero, Euskadiko selekzioarekin batera astebukaera honetan Oviedora joateko deia jaso du. Beti urduri egoten dela dio, baina amaitzean berehala lasaitzen dela.

**Zergatik eta noiz jo zenuen igeriketara?**
Txikitan hasi nintzen; nire lagun guztiak apuntatu ziren eta gurasoek erabaki zuten ni neu ere apuntatzea.

**Nolakoa izaten da entrenamendua?**
Egunero-egunero astelehenetik ostiralera entrenatzen naiz goizeko seietan. Klasera joan baino lehenago, ordu eta erdiko entrenamenduak izan ohi ditugu.

**Gipuzkoako selekzioan egon zara orain arte. Nolakoa izan da esperientzia?**
Bai, Gipuzkoako selekzioan egon naiz orain arte eta oso esperientzia ona izan da, lagun asko egin ditut. Ikasteko aukera ere izan dut. Azken finean, jende ezberdin askorekin egon nintzen, eta pozgarria da. Orain, Euskadiko taldera joateko eskatu didate. Aste bukaera honetan Oviedora joango naiz haiekin.

**Zer sentitu zenuen aukeratua izan zinela jakin zenuenean?**
Oso urduri jarri nintzen, eta alde batetik pena ere sentitu nuen. Aste bukaera honetan herriko Inauterietan dantza egiteko apuntatu nintzen, eta, txapelketa daukadanez, ezingo dut parte hartu. Baina ez dut kexatu nahi, esperientzia berri bat da. Aukera izugarria eta zorte handia izan nuen Euskadiko selekziorako aukeratu nindutenean.

**Hasi zara entrenatzen Oviedorako?**
Ez naiz hasi oraindik. Aste honetan ez dut entrenatzeko denborarik izan eta ez dut uste prestatzeko aukerarik izango dudanik. Baina lasai nago, oraingoz; ondo pasako dudalakoan nago.

**Zer sentitzen duzu uretara salto egitean?**
Urduritasuna beti. Oso urduri jartzen naiz igeri egin behar dudan bakoitzean. Amaitzerakoan lasaiago egoten naiz, normalean, ondo egin dudala ikusten badut, eta izugarrizko adrenalina sentitzen dut. Gaizki egin badut, ordea, nire buruarekin haserre sentitzen naiz.

**Nolakoa da emakumeen egoera igeriketan? Garrantzi txikiagoa ematen zaiela igartzen al da?**
Nik ez dut desberdintasun askorik igartzen, ez dut arazorik izan horri dagokionez. Egia da gizonezkoei ematen dieten garrantzia handiagoa dela igeriketan eta askotan ez gaituztela gizonak besteko aintzat hartzen. Baina ni nagoen lekuan, zorionez, behintzat, ez dut ezer igarri.

**Ba al duzu momentu gogokorik? Igeri egiten zeundela pentsatu al duzu inoiz momentu hura ez duzula ahaztuko?**
Bai; Tarben igeri egin nuen momentua gogoan dut oraindik. Beste klub batzuetako lagunekin joan nintzen bertara. Hotelean eta bertako geletan oso ondo pasa genuen denok batera. Txapelketa ere oso polita izan zen, oso ondo igeri egin bainuen. Momentu ahaztezin bat bezala deskribatuko nuke.

**Non ikusten duzu zure burua hemendik urte batzuetara?**
Ez dakit zer egingo dudan, egia esan. Normalean, klubeko jendeak, batxilergoko bigarren mailara iristean, kluba utzi izan ohi du. Unibertsitatea hastean kanpora joan behar dutenez, igeriketa bertan behera uzten dute askok. Nik, oraingoz, ez dakit zer egingo dudan, oraindik denbora luzea falta da-eta horretarako. Igeriketan jarraituko dut eta aukera guztiak aprobetxatuko ditut. Unibertsitatera iristean, nagoen lekuan entrenatzeko aukera izaten badut, bertan jarraitzeko aukera ez nuke baztertuko.

**Nola ikusten duzu igeriketaren etorkizuna?**
Haur asko apuntatzen dira urtero eta nabari da jendea gustura etortzen dela. Etorkizun ona izango du, nire ustez. Jendea gustura apuntatzen da eta uste dut ez dugula arazorik izango.



Nerea Diaz oñatiarra, goizetako entrenamendua bukatu eta gero.

NEREA DIAZ

### MARRA AZKARREZ

**Igerilari gogokoena:** Markel Alberdi.
**Igeri egiteko leku bat:** Tarbe.
**Txapelketa bat:** Espainiakoa Bartzelonan.
**Domina gogokoena:** Lehenengoa.
**Telebista-saio bat:** *Irrikitown.*
**Janari bat:** Txokolatea.
**Amets bat:** Espainiako txapelketan domina bat irabaztea.
**Bizitzeko leku bat:** Oñati.
**Oñatiko txokorik gogokoena:** Mendia.

## ZORION AGURRAK


ARRASATE
**Joseba Santa Cristina Milan**
Otsailaren 11n, 15 urte. Zorionak, Manny! Zu zara onena, momentuz!


ARRASATE
**Ane Enbeita Ezpeleta**
Otsailaren 10ean, 10 urte. Ze neska handi egin zaren! Ondo-ondo pasatu eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.


BERGARA
**Jon Aranzabal Elkoroberezibar**
Otsailaren 8an, urtebete. Zorionak zure lehen urtebetetzean! Muxu handi bat familiako txikienari aitita eta amamaren, osaba-izeben eta lehengusuen partetik.


ESKORIATZA
**Luken Gomez Barquero**
Otsailaren 7an, 7 urte. Zorionak, Luken! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat, zure familiaren partetik!


ARRASATE
**Xabier eta Oxel Roo Gardoki**
Otsailaren 7an, Xabik 5 urte eta otsailaren 10ean, Oxelek 3 urte. Zorionak, *pototito* txikixak! Segi oin arte moruen, alai eta finak izaten!


ARRASATE
**Nerea Losa Herrera**
Otsailaren 7an, 12 urte. Zorionak, Nerea! Ondo pasatu zure egunean. Patxo handi bat, Alazneren eta Aitorren partetik.


ARRASATE
**Garazi Bragado Alvarez**
Otsailaren 7an, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Oso ondo pasatu zure egunean! Patxo handi bana etxekoon partetik!


ARETXABALETA
**Intza Eraña Larrea**
Otsailaren 6an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Muxu erraldoi bat, etxeko danon partetik!


ARRASATE
**Izaro Urkitza Perez**
Otsailaren 6an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Familiaren partetik, patxo handi bat eta ondo-ondo pasatu zure egunean!


ARETXABALETA
**Manex Urdineta eta Jokin Jausoro**
Manexek otsailaren 10ean, 7 urte eta Jokinek otsailaren 6an, 2 urte. Zorionak gure txorokiltxuei! Milaka patxo zuen lehengusuen partetik! Ondo pasatu!


BERGARA
**June Gonzalez Fernandez**
Otsailaren 6an, 3 urte. Zorionak, pitxin! Primeran pasatu zure eguna. Aurten gainera iñauteriak; Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikustera juango ga!


BERGARA
**Hodei Murgizu Rodriguez**
Otsailaren 5ean, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ibili zure urtebetetze egunean eta muxu handi bat Iraiaren, Unaxen eta etxeko danen partetik.


BERGARA
**Julen Crespo Zubia**
Otsailaren 5ean, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure egunean. Muxu handi bat etxekoen, eta bereziki, Oierren partetik.


OÑATI
**Maialen Mendizabal Altzelai**
Otsailaren 4an, 5 urte. Zorionak, maittia! Patxo handi bat etxekoen partetik. Maite zaitugu!


ARRASATE
**Goiatz eta Xuban Markaida Etxebarria**
Otsailaren 4an, Goiatzek, 9 urte eta Xubanek, 2 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen eguna eta goxatu bizitzaz. Patxo asko aitatxoren eta amatxoren partetik.


ARRASATE
**Ane Hierro Murillo**
Otsailaren 4an, 9 urte. Zorionak, Ane! Muxu handi bat familia osoaren partetik. Ondo pasatu zure egunean.


BERGARA
**Uxue Larrañaga Salaberria eta Malen Arando Salaberria**
Uxuek otsailaren 4an, eta Malenek 8an. A ze parea! Zorionak,sorginok! Jaso patxo bat etxeko guztion eta, Juneren eta Aneren partetik.


OÑATI
**Ane Osinaga Osinaga**
Otsailaren 3an, 6 urte. Zorionak, potxola. Ondo pasatu eta muxu potolo bat, etxekuen partetik.


ARRASATE
**Iraia eta Joritz Isasi Rodrigo**
Otsailaren 3an, Iraiak 7 urte eta 9an, Joritzek 4 urte. Zorionak, bikote handi! Ondo-ondo pasatu zuen egunean eta muxu potolo bat familia guztiaren partetik.


BERGARA
**Maren Fernandez Lopez**
Otsailaren 2an, 2 urte. Zorionak! Jada gure printzesatxuak bi urte! Segi hain maittagarri izaten... Mua, mua eta mua! Etxeko danon partetik.


ARETXABALETA
**Xabier Lazpiur Artabe**
Otsailaren 2an, urtebetetzea. Zorionak, Xabier, familia guztiaren partetik! Patxo erraldoi bat zure egunean!


ARRASATE
**Izaro Zabalo del Fresno**
Otsailaren 2an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu potolo pila Anderren, aitatxoren eta amatxoren partetik.


ARRASATE
**Sua Lamadrid**
Otsailaren 2an, 7 urte. Zorionak, Sua! Maite zaitugu! Nahi duzun txerritxo hori norbaitek oparitzea espero dugu.


ARETXABALETA
**Nahia Berridi Errasti**
Otsailaren 1ean, urtebete. Zorionak, potxoli! Egun ederra pasatu eta segi orain bezain irribarretsu. Muxu handi bana. Inge, aitatxo eta amatxo.


ESKORIATZA
**Iker Vicente Raso**
Otsailaren 1ean, 8 urte. Zorionak, Iker! Oso ondo pasatu zure eguna eta ez ahaztu zure familiak maite zaituela. Muxu asko aitatxoren eta amatxoren partetik.


ARETXABALETA
**Ibai Urkia**
Otsailaren 1ean, 4 urte. Zorionak, Ibaitxo! Ondo pasatu zure laugarren urtebetetzia!


OÑATI
**Hegoi Garcia Calzada**
Otsailaren 1an, urtebete. Zorionak, maittia! Mila kilo zorion aitatxoren, amatxoren, Aneren, Enararen eta familia danaren partetik. Ondo pasatu zure lehenengo merendolan!


OÑATI
**Auritz Aranburu Sologaistoa**
Otsailaren 1ean, 12 urte. Zorionak, Auritz! 12 urte; ze azkar pasatu diren! Oso ondo pasatu zure egunean! Muxu handi bat etxekoen eta, bereziki, Enaitzen partetik.


OÑATI
**Joseba Erle**
Urtarrilaren 31n, 2 urte. Zorionak, maitte! Etxeko danen partetik, muxu pila bat.


OÑATI
**Maren Irazabal Plazaola**
Urtarrilaren 31n, 11 urte. Zorionak, Maren! Ondo-ondo pasatu eguna eta disfrutatu. Besarkada handi bat eta marrubizko muxu pila bat. Garaziren eta Izarren partetik!


ARRASATE
**Eneko Izeta Herranz**
Urtarrilaren 30ean, 4 urte. Aitona-amonen, gurasoen eta Lukenen partetik, ondo pasatu eta muxu pilo bat!


OÑATI
**Unax Egaña Umerez**
Urtarrilaren 30ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Bost urte azkar pasatu dira baina, ze bost urte eder! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxekoen partetik!


ARRASATE
**Zuhaitz Carmona Ubeda**
Urtarrilaren 29an, 5 urte. Zorionak, Zuhaitz! Primeran pasatu eguna familiaren, lagunen eta, bereziki, Haizearen partetik! Muxu erraldoiak!


ARRASATE
**Elene Ezkurra Bragado**
Urtarrilaren 29an, urtebete. Zorionak etxeko printzesa txikienari, lehen urtebetetzean. Oso ondo pasatu, etxeko guztion partetik! Muxuak.


OÑATI
**Maddi Bikuña Barbero**
Urtarrilaren 29an, urtebete. Zorionak zure lehenengo urtebetetzian, polit hori, aitatxoren, amatxoren eta familixa danaren partetik. Patxo handi-handi bat!


BERGARA
**Miren Agirrezabal Lazkano**
Urtarrilaren 28an, 5 urte. Zorionak, Miren! Etxekoen partetik, egun polita pasatu! Besarkada eta muxu handi bat!


ARETXABALETA
**Xabi Gonzalez Gonzalez**
Urtarrilaren 28an, urtebete. Zorionak, Xabi! Zelako aguro pasatu dan; urtetxo bat jada! Patxo handi bat danon partetik!


OÑATI
**Ander Zumalde Altube**
Urtarrilaren 27an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, familia guztiaren partetik.


ARETXABALETA
**Joel Sanchez Cano**
Urtarrilaren 26an, 2 urte. Zorionak, txikitxo! Segi holako alai eta irribarretsu izaten eta ez aldatu inoiz. Bi patxo handi, zure familixaren partetik. Asko maite zaitugu.


OÑATI
**Naroa Legazpia Larrea**
Otasailaren 7an 8 urte. Zorionak, polit hori! Egun on-ona izan eta muxu asko danon partetik!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi:
izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.**

**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Baserria salgai Arraga auzoan. Lursailarekin. 615 71 02 07 edo 615 70 59 96

**Aramaio.** Bi logelako etxebizitza salgai. Guztiz jantzia. Garajea eta trastelekua ditu. Errentan hartzeko aukera ere bai. 679 45 57 62 edo 664 74 90 23

### 102. EROSI

**Baserria erosi.** Baserri bat erosi nahi da. Ez du axola baserriaren egoerak. 663 80 50 14

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 634 14 36 65

**Arrasate.** 3 edo 2 logelako etxebizitza errentan hartuko genuke Arrasate erdialdean. 680 34 29 60

**Arrasate.** Hiru edo lau logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. 631 34 00 17

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. 605 46 19 26

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Ahal bada, erdigunean hobeto. 603 21 91 32

**Arrasate.** Logela bateko apartamentu baten bila nabil. Erdigunean. 400 euro ordaintzeko gertu. Pertsona bakarra. 610 99 42 03

**Baserria errentan.** Baserri bila gabiltza Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza inguruan. 699 28 99 06

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan erdigunean, ahal bada Matxiategin edo San Lorentzon. 605 76 32 72 (Ainhoa)

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan, 2 logela eta berokuntzarekin. 606 82 45 52

**Bergara.** Hiru pertsonarendako modua etxebizitza behar dugu errentan. Bi logelakoa ondo legoke. 632 77 35 38

**Etxea errentan hartuko nuke.** Bergaran edo Deban etxea errentan hartuko nuke denbora luzerako. Pertsona bakarrarentzat. 675 00 93 22

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Erdigunean logela ematen da errentan. Telebistarekin eta sarrailarekin. Wifi konexioarekin. 603 14 28 89

**Arrasate.** Neska langilea logela bila. 688 82 69 68

## 3. LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Lokala ematen da errentan alde zaharrean, Artekale 5ean. Bi solairukoa, guztira 150 metro koadro ditu. Errenta ekonomikoa. Negozioa jartzeko edo 18 urtetik gorako partikularrendako. 645 00 71 46

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate, Aretxabaleta edo Bergara.** Emakumea gertu goizetan lan egiteko: nagusiak zaindu edo kalera laguntzen, etxeko lanak egiten, lisatzen edota aldi baterako zaintza lanak egiten. Autoa daukat. 678 39 38 13

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Etxean bertan bizi izaten umeak eta nagusiak zaintzeko gertu nago. Baita nagusiekin paseoan irteteko ere. Zerbitzari moduan hiru urteko esperientzia dut. Gozoki eta arropa dendatan ere bai. Lan egin beharra daukat eta segituan hasiko nintzateke. 676 44 85 58

**Arrasate.** 48 urteko emakume euskalduna, etxez etxeko zerbitzuko laguntzailea eta arlo horretan esperientziaduna, orduka nagusiei laguntzeko prest. 605 71 50 14 (Maribel)

**Arrasate.** 57 urteko emakume euskalduna gertu orduka edo egun osoz lan egiteko: pertsona nagusiak eta umeak zaintzen, etxeko lanak egiten eta abarrean. 943 79 60 89 edo 688 66 66 91

**Arrasate.** Nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. 634 04 17 30

**Bergara edo Arrasate.** Esperientziadun neska gertu goizetan nagusiak zaintzeko. 696 84 19 51

**Bergara, Arrasate eta Oñati.** Erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

**Bergara.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak egun osoz zaintzeko. Euskalduna eta urte askotako esperientzia. 688 65 30 62 (Arantzazu)

**Bergaran eta inguruan.** Mutila sukalde laguntzaile moduan lan egiteko gertu. Esperientziaduna. 687 69 71 86 (Jesus)

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan formakuntza daukan gizona orduka lan egiteko prest. Goizetan edo gauetan. 629 13 26 76

**Debagoiena.** Andrea prest adineko pertsonak zaintzeko, garbiketak egiteko edo sukaldari laguntzailea izateko. Tel.: 691 03 25 02

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu nagusi eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo egun osoz. 634 94 31 60

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxe, atari eta abarrak garbitzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 77 35 38

**Debagoiena.** Emakumea gertu lan egiteko. Esperientzia handia ostalaritzan. Gertu baita ere bestelako lanetarako. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 663 43 92 53

**Debagoiena.** Emakumea gertu zaintza lanak egiteko: etxean bertan bizi izaten, egunez eta baita gauak egiten ere. eitu zenbaki honetara: 672 98 20 91

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile ikasketak dituen neska arduratsua, nagusiak edota laguntza behar duten pertsonak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 620 23 58 15

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi edo gaixoak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 37 74 21

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile ikasketak dituen neska gertu nagusiak zaintzeko. Orduka edo baita gauez ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile titulua daukan mutil euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbakietara: 622 69 98 13 edo 943 79 63 97

**Debagoiena.** Esperientzia eta erreferentzia onak dituen mutila zaintza lanetarako gertu. Etxeko lanak egiten eta bertako jana prestatzen ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono honetara: 662 43 08 54

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu nagusi eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Autoa daukat. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita baserrietan ere. 697 20 00 86

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono honetara: 631 46 41 76

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 622 59 39 87

**Debagoiena.** Etxeko eta baserriko lanetan, nagusiak zaintzen zein denetariko garbiketak egiten lan egingo nuke. Bertan bizi izaten edo bestela. 608 49 89 95 (Judith)

**Debagoiena.** Garbiketan, nagusi eta umeak zaintzen edo sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. 634 84 41 94

**Debagoiena.** Gizona gertu nagusiak zaindu edo etxeko mantenu zein garbiketak egiteko. Ordutegi arazo barik. Deitu 634 14 36 65 telefonora.

**Debagoiena.** Gizona lanerako gertu: banaketak, garbiketak edo bestelakoak. Autoa daukat. 632 77 35 38

**Debagoiena.** Gizona prest margo lanak egiteko, zerbitzari edota adineko pertsonak zaintzeko. Tel.: 697 88 35 62

**Debagoiena.** Gizona zaintza lanak egiteko gertu. Autoa daukat eta ordutegi arazorik ez. 634 09 55 46

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu nago. Arratsaldetan orduka edo asteburuetan. 622 24 86 64

**Debagoiena.** Iturgintzan lan egingo nuke. Gertu nago beste lan mota bat egiteko ere. Euskara eta frantsesa dakizkit. 615 28 21 52

**Debagoiena.** Lan bila nabil. Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten, baita garbitasun lanak egin ere. 40 urte ditut eta eskarmentua daukat antzeko lanetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 06 80 31

**Debagoiena.** Mutila gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Hiru urteko esperientzia daukat eta agiriak aurkez ditzaket. 678 25 95 46

**Debagoiena.** Mutila gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Umeak zaintzen, garbiketak egiten edo sukaldari laguntzaile ere lan egingo nuke. 685 64 85 64

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 45 97 18

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin eta abarretarako gertu nago. 686 44 70 38

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten. 608 89 32 50 (Dora)

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639 02 00 81 edo 632 98 17 79

**Debagoiena.** Nagusiei laguntzen, umeak zaintzen, tailerrean, lantegiak garbitzen zein bestelako lanetan aritu izan naiz. Ordutegi aldetik arazo barik. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630 85 48 45

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615 06 28 04

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 85 44 78

**Debagoiena.** Neska gertu goizetan nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. Deitu telefono zenbaki honetara: 655 15 36 59

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo gaixoak zaintzeko. Eskarmentu handia dut eta geriatria titulua. Bestela, etxeetan orduka zein jardun osoz ere lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 00 51 60

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko eta baita garbitasun lanak egiteko ere. Ordutegi arazo barik. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639 34 70 53

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Esperientzia daukat zerbitzari moduan. Garbiketan edo tailerretan ere arituko nintzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 09 37 90 (Eva)

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Bizileku-baimena daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 626 44 46 49

**Debagoiena.** Neska zaintza lanetan aritzeko gertu. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672 57 73 13

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen edo etxeko garbiketak egiten lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 71 25 07

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen esperientzia daukan emakumea, orduka edo etxean bertan bizitzen lan egiteko prest. Aurretik lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. 666 07 49 24

**Debagoiena.** Urte askoan jendaurrean lan egindako emakumea lanerako gertu. Dendan edota nagusiak zaintzen, garbiketan eta abarretan ere lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izanda, jardun osoz edo orduka. Ordutegi arazo barik. 665 35 38 11 (Idalma)

**Neska gaztea haurrak zaintzeko.** Neska gaztea haurrak zaintzeko prest. Orduak eta egunak hitz egin behar dira. Udan ere lanerako prest. 634 42 85 11

KOROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Lizaria, 50$m^2$, 2 logela, Eraikuntza berria. Garajea barne. 197.000€. Eguzkitsua.
- Zabalotegi, 79$m^2$, 3 logela, igogailua, eguzkitsua. Ez du obrarik behar. 165.000€
- Artzamendi, 75$m^2$, 3 logela, trastelekua eta garajea. 153.000€ Ez du obrarik behar.
- Aranerreka, 80$m^2$, 3 logela, trastelekua, igogailua. 130.000€. Garajea aukeran.
- Madura, 65$m^2$, 4 logela, bi balkoi. 110.000€ AUKERA ONA.
- Bidekurutzeta, 130$m^2$, 4 log, 320.000€ PREZIO JEITSIERA. Terraza, igogailu, patioa
- Pº Irizar, 93$m^2$, 2 logela, 2 balkoi. Zentroan. 180.000 € PREZIO JEITSIERA.
- Ibargarai, 105$m^2$, 4 logela, balkoia. 420.000 €. Garajea Aukeran.
- Artekale 83$m^2$, 3 logela, trastelekua eta igogailua. 155.000 € AUKERA ONA.
- Ernai, 52$m^2$, atikoa, 2 logela eta terraza handia. Etxebizitza tasatua. 178.000 €
- San Lorenzo 85$m^2$, 3 logela, garajea eta trastelekua. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde, 74$m^2$+30m2 ganbara, duplexa egiteko aukera 170.000 €
- Koldo Eleizalde, 76$m^2$, 3 logela. Terrazarekin. 115.000€ NEGOZIABLEA.
- Koldo Elelizalde 87$m^2$, 3 logela, oso ondo apaindua. Fatxada berriztuta. 210.000 €
- Burdiñate, 93$m^2$, 3 logela, igogailua. 210.000 € PREZIO JEITSIERA. Garajea aukeran
- Masterreka 72$m^2$, duplexa. 150.000 € ESTREINATZERA. AUKERA ONA.
- Simon Arrieta 68$m^2$, 2 logela, 80$m^2$ ko terrazarekin. 132.600 €
- Simon Arrieta 82$m^2$, 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €
- Zubieta 125$m^2$, terraza eta 2 horturekin. Bi etxe egiteko aukera 192.000 €
- San Pedro 90$m^2$, 4 logela. 95.000 € AUKERA ONA
- Zabalotegi, 80$m^2$, 2 logela, berriztua. 156.263 €
- Zabalotegi, 62$m^2$, 3 logela. Berrizteko. 80.000 €
- Artekale 108$m^2$, 3 logela. 120.000 € OSO OSO NEGOZIABLEA.
- San Antonio 86$m^2$. 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €
- Zubiaurre, 60$m^2$, 2 logela, trastelekua eta igogoilua. 98.000 € AUKERA ONA.
- Ibarra, 62$m^2$, 3 logela. Trastelekua. 86.000 € PREZIO JEITSIERA. AUKERA ONA.

**ANGIOZAR:**
- Etxebizitza 60$m^2$, 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €
- Baserria 233$m^2$. Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko permisoarekin. 250.000 €
- Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena ekipatua eta martxan.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85$m^2$. 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 61$m^2$. 3 logela eta trasteroa. BERRIZTEKO. 43.000 €. AUKERA BIKAINA
- Osintxu 70$m^2$. 2 logela eta igogailua. 62.000€ AUKERA BIKAINA

**ANTZUOLA:**
- Buztin-zuri, 65$m^2$, 2 logela. Ez du obrarik behar. 180.000€ Garajea aukeran.
- Errekalde 78$m^2$, 3 logela, Berriztua. 130.000 €. Garajea aukeran.
- Ibarrondo, 90$m^2$, 3 logela. Trastelekua, eguzkitsua. 190.000€ Garajea barne.

**ELGETA:**
- Gudarien Bidea, 75$m^2$, berrizteko. 72.000 € AUKERA BIKAINA
- Torrealdea 77$m^2$. 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150$m^2$ + 45$m^2$ garajea + 90$m^2$ lursaila.

## LAN ESKAINTZA

**Goiena Komunikazio Taldeak pertsona bat behar du**

# Maketagile-diseinatzailea

Eskaintzen da:
· Laneko kontratua.
· Lantaldean lan egitea.

Eskatzen da:
· Euskaraz jakitea (ezinbestekoa da).
· Diseinu arloko ikasketak izatea.
· InDesign programa menperatzea.
· Photoshop programa menperatzea.
· Lantaldean lan egiten jakitea.

Kontuan hartuko da:
· Diseinu lanetan eskarmentua izatea.

Curriculumak bidali behar dira otsailaren 12a baino lehen helbide honetara: *idazkaritza@goiena.eus*

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Ingelesa.** Ingeles eskolak jasoko nituzke Bergaran. 646 36 68 02

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Arrasate.** 2.400 metro koadroko eraikigarria ez den lursaila salgai Makatzena auzoan. 15 metro koadroko zementuzko etxola eta komuna dauka. Ureztatze sistema dauka, frutadun eta basoko zuhaitzekin. Hesidun lursaila eta autoa sartzeko sarbidearekin. 60.000 euro. Deitu 608 66 86 81zenbakira edo idazi mezua honako helbide honetara: joxanaupatu@yahoo.es

### 802. EROSI

**Borda.** Borda erosiko nuke Bergara inguruan. Iristeko bide egokiarekin eta ura badago, hobeto. 646 36 68 02

### 806. GALDU

**Betaurrekoak Arrasaten.** Graduatutako betaurrekoak galdu ditut Arrasaten. Silhouette etxekoak, estutxe gogor beltz baten barruan. Aurkitu badituzu, deitu mesedez zenbaki honetara: 634 40 14 28

## ASTEA GOIENAN



IMANOL SORIANO

### Aratusteak ikusgai astelehenean

Debagoienean asteburuan Aratusteek ematen dutena erakutsiko da asteleheneko *Debagoiena zuzenean* saioan, herriz herri jasotakoa ikusi ahal izango da. Eta eguaztenean 22:00etan Aratusteen gaineko saio berezia eskainiko da Goiena telebistan.

**'Debagoiena zuzenean'**
Astelehena, 20:00



IMANOL SORIANO

### Kantariren saio berriak zapatuan

Aretxabaletako eta Eskoriatzako Kantariko lehenengo bi emanaldiak estreinatuko dira asteburuan: lehenengo saioa zapatuan 10:30ean estreinatuko da eta bigarren saioa, berriz, zapatuan 16:30ean estreinatuko da. Ikus errepikapenak beheko taulan.

**Kantari**
Zapatua, 10:30

## GOIENA TELEBISTA

### EGUBAKOITZA, 5

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Ur eta lur
**13:00** Korapilo
**13:30** Kantari
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Zaindu zaitez
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Lurrean bizi
**17:30** Ikusi irratia
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** kanaldude: Ertzetan
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Kontzertua: Aiama bikotea
**00:30** Debagoiena zuzenean
**01:00** Berriak

### ZAPATUA, 6

**10:00** Korapilo
**10:30** Kantari
**11:00** Debagoiena zuzenean
**12:00** Astea iruditan
**12:05** Muga barik
**12:30** Jaiak: Aratusteak 2015
**13:00** Ertzak
**13:30** Geure altxorrak
**14:05** Zorion Agurrak
**14:10** Onein
**14:30** Sagarrondotik
**15:00** Debagoiena zuzenean
**16:00** Astea iruditan
**16:05** Platopic
**16:30** Kantari
**17:00** Korapilo
**17:30** Amaia DJ
**18:00** Bertso saioa
**19:00** Debagoiena zuzenean
**19:55** Astea iruditan
**20:00** Kantari
**21:00** Amaia DJ
**21:30** Hurbilean
**22:00** Debagoiena zuzenean
**23:00** Astea iruditan
**23:05** Jaiak: Aratusteak 2015
**00:00** Geure altxorrak
**00:00** Debagoiena zuzenean
**01:00** Astea iruditan

### DOMEKA, 7

**10:00** Korapilo
**10:30** Kantari
**11:00** Platopic
**11:20** Zorion Agurrak
**11:30** Bertso saioa
**12:30** Debagoiena zuzenean
**13:30** Astea iruditan
**13:35** Ertzak
**14:00** Muga barik
**14:30** Jaiak: Aratusteak 2015
**15:00** Onein
**15:30** Sagarrondotik
**16:00** Zorion Agurrak
**16:05** Amaia DJ
**16:30** Kantari
**17:00** Korapilo
**17:30** Platopic
**18:00** Zaindu zaitez
**18:30** Muga barik
**19:00** Jaiak: Aratusteak 2015
**19:30** Debagoiena zuzenean
**20:00** Kantari
**20:30** Bertso saioa
**21:30** Debagoiena zuzenean
**22:30** Astea iruditan
**22:35** Amaia DJ
**23:00** Debagoiena zuzenean
**23:30** Amaia DJ
**00:30** Bertso saioa

### ASTELEHENA, 8

**12:00** Debagoiena zuzenean
**13:00** Korapilo
**13:30** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Amaia DJ
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Geure altxorrak
**17:30** Ur eta lur
**18:00** Sagarrondotik
**18:30** Berriak
**19:00** Kantari
**19:30** Amaia DJ
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harmailatik
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Amaia DJ
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak
**01:00** Harmailatik

### MARTITZENA, 9

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Harmailatik
**13:00** Ertzak
**13:30** Kantari
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harmailatik
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Hurbilean
**17:30** Geure altxorrak
**18:00** Platopic
**18:30** Berriak
**19:00** Korapilo
**19:30** Harmailatik
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Aratuste kontzertua
**23:30** Debagoiena zuzenean
**00:00** Berriak
**00:30** Harmailatik
**01:00** Debagoiena zuzenean
**01:30** Berriak
**02:00** Aratuste kontzertua

### EGUAZTENA, 10

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Aratuste kontzertua
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Aratuste kontzertua
**16:30** Berriak
**17:00** Ikusi irratia
**18:00** Harmailatik
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Hurbilean
**19:30** Sagarrondotik
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Jaiak: Aratusteak 2016
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Aratuste kontzertua
**01:00** Debagoiena zuzenean
**01:30** Berriak

### EGUENA, 11

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Sagarrondotik
**13:00** Jaiak: Aratusteak 2016
**13:30** Kantari
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Onein
**15:30** Hurbilean
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Jaiak: Aratusteak 2016
**17:30** Ertzak
**18:00** Ur eta lur
**18:30** Berriak
**19:00** Korapilo
**19:30** Jaiak: Aratusteak 2016
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** EKT
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

## ARRASATE IRRATIA

### Aratusteak berbagai astelehenean 11:00etan

Zapatuan Arrasaten ospatuko diren Aratusteak nolakoak izan diren kontatuko du Iñaki Gurrutxaga *Arristi*-k, eta domekako Aretxabaletako Aratusteen gainean hitz egingo du Ibai Zangituk. Biak ibiliko dira asteburuan Aratusteetan murgilduta eta elkarrizketa astelehenean 11:00etan emango da.

### Fermin Etxegoienen 'Urpekariak' liburua zozketatuko da

Hurrengo egubakoitzean Fermin Etxegoien idazlearen *Urpekariak* liburuaren zozketa egingo da Arrasate Irratian. Bertan parte hartzeko eta saria irabazteko deitu 943 25 05 05 telefonora, edo, bestela, idatzi *irratia@goiena.eus* helbidera mezua. Animatu, parte hartu eta zorte on, entzule!

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 5** | IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Zapatua, 6** | AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Domeka, 7** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Astelehena, 8** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **Martitzena, 9** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea, 38 | 943 77 16 30 |
| **Eguaztena, 10** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea, 1 | 943 79 15 15 |
| **Eguena, 11** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 5** | ALVAREZ MOZOS | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| **Zapatua, 6** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Domeka, 7** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Astelehena, 8** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Martitzena, 9** | OIARBIDE | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Eguaztena, 10** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Eguena, 11** | ALVAREZ MOZOS | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 5** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Zapatua, 6** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Domeka, 7** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Astelehena, 8** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Martitzena, 9** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Eguaztena, 10** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Eguena, 11** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |

**Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA



**Max.** 14º
**Min.** 5º

**ZAPATUA, 6**
Goizean hodeiak agertuko dira. Hego-mendebaldeko haizea oso zakar ibiliko da eta arratsaldean fronte bat iritsiko da.



**Max.** 15º
**Min.** 6º

**DOMEKA, 7**
Zerua lainotuta egongo da, ez da ostarterik zabalduko eta euria egiteko arriskua handia izango da domekan.

### EUSKAL HERRIA




## GAZTE INFORMAZIOA

### GAZTE IKASTAROAK

**Sukaldaritza begetarianoa.** Arrasateko Udaleko Gazteria Saila. Otsailaren 22tik martxoaren 14ra, astelehenetan, **18:30–20:30.** Izena emateko: Gazte Bulegoa, 943 25 20 65 edo *gaztebulegoa@arrasate.eus*.

**Ogia egiten ikasteko ikastaroa.** Arrasateko Udaleko Gazteria Saila. Martxoaren 19an, zapatua, 9:30–**13:30.** Izena emateko: Gazte Bulegoa, 943 25 20 65 edo *gaztebulegoa@arrasate.eus*.

### LANA

**Aholkularitza teknikaria.** Gipuzkoako Foru Aldundiko bulego teknikoa. Gipuzkoako udaletako gazteria arloei aholkularitza teknikoa emateko. Baldintzak: gizarte zientzietan diplomatua edo lizentziatua, euskara maila. Epea: otsailak 8. CV bidaltzeko: *recursoshumanos@fundacionede.org*.

**Haurreskolako zuzendari postua.** Atarrabiako Amalur Haur Eskola. Baldintzak: haur hezkuntzako maisu-maistra gradua, edo haur hezkuntzan aritzeko gaitzen duen gradu titulua; EGA. Azken eguna izango da: otsailak 7.

**Informatikari teknikaria.** Oreretako Udalean. Baldintzak: informatikan ingeniari titulua edo gradua, 4.HE. Azken eguna: otsailak 14.

### LEHIAKETAK

**Martxoak 8.** Arrasateko Berdintasun Saila. Lanak "Martxoak 8" derrigorrezko testua izan behar du. Gaia: Angela Davis. Azken eguna izango da: otsailak 19.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate.eus
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

ESKER ONA

## Alberto Bergaretxe Llodio



2016ko urtarrilaren 30ean hil zen, 82 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.
—
Haren aldeko meza domekan izango da, otsailaren 7an, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.
Bertaratuko zaretenoi, aurrez eskerrik asko.

**Arrasaten, 2016ko otsailaren 5ean.**

ESKER ONA

## Luis Maria Lombide Gisasola



2016ko urtarrilaren 27an hil zen.

Lerro hauen bidez Luis Maria Lombideren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.
—
*Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.*

**Bergaran, 2016ko otsailaren 5ean.**

ESKER ONA

## Jose Maria Lete Lizarralde



2016ko urtarrilaren 29an hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zineten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

**Bergaran, 2016ko otsailaren 5ean.**

ESKER ONA

## Ana Mari Urrestarazu Egaña



2016ko otsailaren 3an hil zen, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, loben izenean.

**Oñatin, 2016ko otsailaren 5ean.**

URTEURRENA

## Maria Madinabeitia Ayaga



2015eko otsailaren 4an hil zen.

Urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 7an, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokian.
—
*Beti izango zaitugu gogoan.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Eskoriatzan, 2016ko otsailaren 5ean.**

## HILDAKOAK

**Antonio Alvarez Fidel.** Arrasaten, urtarrilaren 27an. 90 urte.
**Bizenta Idigoras Agirrebaltzategi.** Oñatin, urtarrilaren 28an. 97 urte.
**Jose Maria Lete Lizarralde.** Bergaran, urtarrilaren 29an. 92 urte.
**Justo Martin Jimenez.** Aretxabaletan, urtarrilaren 29an. 89 urte.
**Pakita Ilzarbe Rekarte.** Bergaran, urtarrilaren 29an. 89 urte.
**Eusebia Rodriguez Delgado.** Arrasaten, urtarrilaren 30ean. 70 urte.
**Alberto Bergaretxe Llodio.** Arrasaten, urtarrilaren 30ean. 82 urte.
**Isabel Rodriguez Chimeno.** Arrasaten, otsailaren 2an. 94 urte.
**Ana Mari Urrestarazu Egaña.** Oñatin, otsailaren 3an. 88 urte.


# OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*



*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*

***maribi 617 44 21 55***
***BERGARA***




**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €
**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**

**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
**BERGARA** Jardun elkartea: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.
**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

## ZINEMA

**ARRASATE**

AMAIA ANTZOKIA

**Palmeras en la nieve**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Yoko eta lagunak (euskaraz)**
Zapatua: 17:00.

**OÑATI**

KULTURA ETXEA

**Sufragistas**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Los Anderson**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**EIBAR**

COLISEO

**La chica danesa**
Zapatua: 17:00. 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Pesadillas**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**El renacido**
Zapatua eta domeka: 16:30.

ANTZOKIA

**Pesadillas**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**El renacido**
Zapatua: 19:15, 22:30.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 20:30.

**GASTEIZ**

BOULEVARD

**El renacido**
Zapatua: 23:30.
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 19:00, 20:30, 22:00.

**Carol**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Truman**
Domekatik eguenera: 17:45.

**La novia**
Domekatik eguenera: 17:45.

**Creed. La leyenda Rocky**
Zapatua: 00:00.
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 19:50, 21:15, 22:25.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 21:15.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 19:50, 22:25.

**Los odiosos ocho**
Egubakoitzetik eguenera: 21:45.

**Palmeras en la nieve**
Egubakoitzetik eguenera: 18:40.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**La chica danesa**
Egubakoitza eta zapatua: 17:40, 20:10.
Domekatik eguenera: 20:10.

**La gran apuesta**
Egubakoitzetik eguenera: 22:25.

**Pesadillas**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15.
Zapatua eta domeka: 15:45.

**La quinta ola**
Egubakoitzetik eguenera: 17:50, 20:10, 22:30.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Embarazados**
Zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 22:35.

**Star wars**
Zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik eguenera: 21:30.

**Ocho apellidos catalanes**
Egubakoitzetik domekara: 17:45.
Zapatua eta domeka: 15:40.

**Carlitos y Snoopy**
Zapatua eta domeka: 15:45.

**Alvin y las ardillas**
Egunbakoitzetik eguenera: 17:30, 19:30.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**El viaje de Arlo**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Spoligth**
Astelehenetik eguenera: 20:00, 22:30.

FLORIDA

**El renacido**
Egubakoitzetik domekara: 16:40, 19:35, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:00.

**Spotligth**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**La juventud**
Egubakoitzetik domekara: 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Pesadillas**
Egubakoitza: 16:30, 18:10.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 18:10.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Embarazados**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 21:00.

**Reverso**
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

**Carol**
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Alvin y las ardillas**
Egubakoitza: 16:35.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:35.

**La gran apuesta**
Egubakoitzetik domekara: 20:05.
Astelehenetik eguenera: 20:50.

**Respira**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Martitzena eta eguena: 19:00.

**Creed. La leyenda Rocky**
Egubakoitzetik domekara: 17:00.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

**El hijo de Saul**
Astelehenetik eguenera: 19:00.

**La chica danesa**
Egubakoitzetik domekara: 19:45.
Astelehenetik eguaztenera: 20:30.

**Palmeras en la nieve**
Egubakoitzetik domekara: 19:45.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Los odiosos ocho**
Egubakoitzetik domekara: 21:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 20:00.

**El gran dia (euskaraz)**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**El viaje de Arlo**
Zapatua eta domeka: 12:00.

## KRITIKA



**MIA MADRE** ★★★★★

**Zuzendaria:** Nanni Moretti.
**Herrialdea:** Italia.
**Urtea:** 2015.
**Aktoreak:** Margherita Buy, Nanni Moretti, John Turturro.
**Iraupena:** 102 minutu.

# Heriotzaren kolpe latzak

Askotan, heriotzari buruz berba egiterakoan, bizitzaren legea aipatzen da. Bizitzari ezaugarri ziklikoa ematen diogu. Suposatzen dugu gauzak aldatzen ez badira, urte gehiago duenak heriotza gertuago izango duela. Baina izaten dira ziklo horien hausturak, eta gazteagoak direnak lehenago joaten dira. Nanni Moretti zuzendari, gidoilari eta aktorea duela urte batzuk *La habitación del hijo*–rekin kasu horretaz aritu zen. Bikote batek semea galtzen du, eta gertakizun mingarri horren ondorioak azaldu zituen. Pertsona bakoitzaren portaera nolakoa zen eta familiaren bizitzan izandako eragina. Orain, Morettik berriz heriotzaren gaia ukitzen du, baina kasu honetan normaltzat har dezakegun kasu bat erabiliaz. *Mia Madre* filmean zinema zuzendaria da Margherita, eta bere anaia Giovannirekin batera euren amaren gaixotasunari egin beharko diote aurre. Ez gaude prest halako kasuak heltzen zaizkigunean, eta jasotzen dugun kolpeak gure eguneroko bizitza eta oreka astintzen du. Morettik ederki daki momentu horiek azaltzen: gaixotasuna, bueltarik ez dagoela jakitea, nola aurre egin datorren guztiari...

Hala eta guztiz, Morettik, bere filmarekin, alabaren erretratua egin nahi du. Margherita zinema zuzendaria da. Ikusten dugunez, oso pertsona perfekzionista. Bere helburuak bete nahi ditu eta ez du erraztasun handiegia harreman estuak izateko. Isila da eta ez ditu sentimenduak adierazten. Bananduta dago, alaba bat du eta izandako azkeneko harreman sentimentala bertan bera utzi du. Eta lanari dagokionez, film berri bat egiten ari da, eta arazo handiak ditu filmaren aktore nagusiarekin. Beraz, alde batetik, amaren gaia dago, eta beste alde batetik, lanak dakarkion presioa. Horrela, gaixo dagoen amaren eta alabaren bizitzari aurre egiteko moduak ikusiko ditugu, eta bizitzari buruzko gogoeta egoki bat.

ANTONIO ZABALA



TOMXENABENTURAK.COM

**ANTZUOLA Tomax pailazoaren abenturak**
*Mendizaleak* ikuskizuna egingo du Tomax pailazoak Musugorri lagunarekin. Neska panpoxa eta dibertigarria ei da. Baina agintzea ere gustatzen omen zaio. Biek ala biek kantuekin eta jolasekin alaituko dituzte neska-mutikoak.
Gaur, egubakoitza, Torresoroan, 17:00etan eta 18:30ean.

## MUSIKA

**ELGETA Mariskal DJ**
Disko festa egingo du. Sarrera irekia izango da.
Gaur, egubakoitza, Espaloian, 18:30ean.

**ARRASATE Arrasate Musikal**
Musika eskolako bandaren Aratusteetako kontzertua.
Gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 18:30ean.

**ESKORIATZA Josu Rodriguez eta Jon Tirapu DJak**
ETB1eko *Gu ta gutarrak* programako bi kideren emanaldia.
Otsailaren 9an, Fernando Eskoriatza plazan, 18:00etan.

**OÑATI DJ emanaldia**
Disko festa egingo du.
Otsailaren 9an, Foruen plazan, 19:00etan.

**BERGARA Amaia Txintxurreta DJ**
Disko festa egingo du.
Otsailaren 9an, San Martin plazan, 19:30ean.

## ERAKUSKETAK

**ARETXABALETA 'Elkarlanean gizarteratzen'**
Gu Haziak Gara elkartearen erakusketa. Aste bukaeretan egongo da zabalik.
Otsailaren 26ra arte, Arkupen.

**BERGARA Buztinzale elkartea**
Zeramika taldeko kideek egindako lanak ikusgai. Domeka da azken eguna
Otsailaren 7ra arte, Aroztegin.

**ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'**
Bixente Barandiaranen lanak, eta burdinak Arrasaten izandako eragina ikusgai.
Harresi aretoan ikusgai.

**ELGETA Mendiko ilustrazioak**
Karmelo Oñateren lanak.
Otsailaren 10era arte, Espaloian. 19:00etan.

## IKUSKIZUNAK

**BERGARA Pirritx, Porrotx eta Marimotots**
*Amalur* ikuskizunaren bi emanaldi egingo dituzte: 15:30ean eta 18:00etan. Sarrerak, sei euro.
Gaur, egubakoitza, pilotalekuan.

**OÑATI Potxin eta Patxin pailazoak**
*Herriko jaiak* delako ikuskizuna egingo dute. Sarrera doakoa da, baina lekua mugatua da.
Otsailaren 9an, Zubikoan, 17:00etan.

**ARRASATE Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak**
*Kolore* delako ikuskizuna egingo dute. Parodiaz betetako ikuskizuna doakoa izango da.
Otsailaren 9an, Amaia antzokian, 17:00etan.

## LITERATURA

**OÑATI Ekialdeko ipuinen kontaketa**
Lehen Hezkuntzako 4. mailatik aurrerako gazteendako Rakugoen emanaldia egingo dute. Elkar Heziko ikasle ez direnek 943-71 82 72 telefonora deitu behar dute parte hartu ahal izateko.
Bihar, zapatua, Elkar Hezin, 16:30ean.

## TURISMOA

**ELGETA Bisita gidatua lubakietara**
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan hasi eta Intxortan bukatuko dute bisita gidatua. Aurrez izena eman behar da 943-79 64 63 edo 943-71 89 11 telefonoetan.
Etzi, domeka, Espaloian, 10:00etan.

## OSPAKIZUNAK

**ARETXABALETA Santa Ageda neska-mutilak**
Kantuan eta eskean ibiliko dira kalez kale eta etxez etxe. 19:00etan dantza saioa egingo dute Herriko Plazan.
Gaur, egubakoitza, kalerik kale, 09:00etan.

**OÑATI Aratuste herrikoiak**
Ehunka lagunek parte hartuko dute egun osoko kalejiran. Aratusteetako dantzak eta pertsonaiak ibiliko dira.
Bihar, zapatua, kalerik kale, 11:30ean.

**DEBAGOIENA Aratusteak**
Bihartik martitzenera ospatuko dituzte Aratusteak bailaran. Herriaren arabera desfileak eta kalejira egun ezberdinetan izango dira. Informazio osoa, herrien orrietan.
Bihartik martitzenera arte.


GOIENA

**BERGARA Musika Banda eta Orkestra Sinfonikoa**
*The love boat* delako Aratusteetako kontzertua egingo dute Bergarako musikariek. Telebistan ezagun egin zen *Vacaciones en el mar* telesailean oinarritutako kantuak eskainiko dituzte. Musikarekin batera, dantzak eta kantuak ere leku izango dute. Sarrerak, zortzi euro.
Gaur, egubakoitza, pilotalekuan, 22:30ean.


TXALO PRODUKZIOAK

**ARRASATE 'Heroiak' antzezlana, Txalo taldearekin**
Hiru beterano zaharren egoitza batean daude. Horietako bat herren dago, besteak agorafobia dauka eta hirugarrenak zorabioak izaten ditu, buruan duen metrailarengatik. Jose Ramon Soroiz, Kandido Uranga eta Ramon Agirre oholtzan.
Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

# NON-ZER

OTSAILA 5
OTSAILA 11

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

**OÑATI Luzaideko dantzak**
Oñatz dantza taldeko, Aita Madina txistulari taldeko eta Jose de Azpiazu musika eskolako kideekin kalejira.
Etzi, domeka, kalerik kale, 18:30ean.

**ESKORIATZA Santa Ageda dantzak**
1998an jaiotako neska-mutikoen dantzaldia gaur, egubakoitza, eta, etzi, domeka.
Aipatutako egunetan, Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.

## IRTEERAK

**OÑATI Eski zeharkaldia**
Candanchu eta Astun inguruetan egingo dute, martxoaren 5-6ko aste bukaeran. Eraman beharrekoa: eskiak, kutxillak, larruak, botak, bastoiak, pioleta, kranpoiak, ARVA, pala eta zunda. Izena emateko azken eguna otsailaren 22an, Aloñaren egoitzan.
Izen-ematea, aipatutako lekuan.

**ARRASATE Eski irteera**
Eski alpino irteera Formigalera egingo dute otsailaren 13-14ko aste bukaeran. Izena emateko egunak astelehenak, martitzenak eta eguaztenak dira, Besaideren egoitzan, 18:30etik 19:30era.
Izen-ematea, aipatutako egunetan eta orduan.

**ARRASATE Santiago bidea**
Bigarren etapa –Donostia-Zarautz– egingo dute otsailaren 28an. Martitzenetan eta eguaztenetan eman daiteke izena Besaideren bulegoan, 19:30etik 20:30era.
Izen-ematea, aipatutako egunean eta orduan.

## AZOKA

**BERGARA Eguaztenetako azoka**
Baserritarren produktuak erosteko aukera. Gainera, Pili Arinek eskulanak egingo ditu eta Kai tabernak pintxo-potea eskainiko die herritarrei.
Otsailaren 10ean, Oxirondon, 18:00etan.

## BESTELAKOAK

**ARETXABALETA Kriseiluen zeruratzea**
Gabonetan atzeratutako ekitaldia egingo du Gure Esku Dago ekimenak.
Bihar, zapatua, kiroldegi aurreko zelaian, 18:30ean.

## GAZTELEKUAK

**ARRASATE Aratusteak**
Pregoia entzun ostean (12:00) desfilean parte hartuko dute; 14:00etan bazkaria egingo dute, eta 16:00etan Wii Dance festa. Bazkariko txartelak eramatea ezinbestekoa da.
Aste bukaeran, erdiguneko gaztegunean.

**ARRASATE Zinema-emanaldia**
Pelikula erabaki barik dute.
Etzi, domeka, erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

**ESKORIATZA Zinema-emanaldia**
Pelikula erabaki barik dute.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 16:30ean.

**OÑATI Badminton txapelketa**
Aldez aurretik izena eman behar da parte hartu ahal izateko.
Aste bukaeran, topalekuan.

**OÑATI Kuboa apaindu**
*Otsaila musikala* girotzeko apainketa lanak egingo dituzte otsailaren 12ra arte.
Aipatutako egunetan, 17:00etan.

**BERGARA Eskiatzera**
Martxoaren 5ean eguneko irteera egingo dute Valdezcarayra, 12-17 urte artekoendako. Bergararrek lehentasuna izango dute. Izena emateko epea zabalik dago Xabaloten eta Jardunen.
Aipatutako lekuetan, egunero.

## JAIAK

**BERGARA San Blas jaiak**
Burañao auzoan ospatuko dituzte. Zapatuan mus txapelketa egingo dute (16:00); eta domekan, meza nagusia (11:00), ostean salda elkartean, Aranzadi Ikastola-Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia (12:00) eta haurrendako kukainak egongo dira.
Aipatutako egunetan, Buruñao auzoan.

## DEIA

**ARETXABALETA Odol ateratzea**
Arabako odol bankuko kideak izango dira.
Otsailaren 8an, osasun etxean, 16:30ean.

**OÑATI Txokolate-jan solidarioa**
Elizbarrutiko misio taldeak dirua batuko du Marbial (Haiti) hirian eraikitzen diharduten eskolarako.
Otsailaren 9an, Foruen plazan, 18:00etan.

## IKASTAROAK

**ARRASATE Mandalak nola margotu**
Harrietan mandalak margotzen eta marrazten ikasteko aukera otsailaren 13an eta 20an, 8 urtetik gorakoendako.
Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

**ARETXABALETA Yoga ikastaroa**
Encarna Mendezek emango ditu, martitzenetan (17:30 eta 20:00) eta eguenetan (17:30). Izena emateko: 616 96 57 95 telefonoa.
Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

**ARRASATE Yoga ikastaroa**
Encarna Mendezek emango ditu, astelehenetan eta eguaztenetan (16:45). Izena emateko: 616 96 57 95 telefonoa.
Izen-ematea, aipatutako telefonoan.


Aratusteak 2016 Bergaran





Ondo pasau!

Azpeitxi • Etxagi • Irish Pub Galways • Bule
Euxebio II • Toki Ona Bodegoia • Usoa • Ariznoa • Pol Pol

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Lasa jatetxeko gaztaina krema galeper eskabetxatuarekin



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
*943 25 05 05* edo *Puntua.eus* edo *Whatsapp: 688 69 00 07*

goienakluba




BUKATZEKO

# Ugartetarrak: 85 urte bizargin lanetan

- Doroteo aitajaunak eman zion hasiera, Nikolas aitak jarraitu eta orain Igonek daroa ile-apaindegia Oñatin
- Brotxak, labanak, aitzurrak eta beste hainbat tresna dituzte gordeta, baita Korkostegi familiakoenak ere

**MIRARI ALTUBE** | OÑATI

Oñatiko Kale Zaharrak barberuen hiru belaunaldi ezagutu ditu: ugartetarrak: "14 urte bete aurretik hasi nintzen aitari lagun egiten. Garai bateko ospitalera joaten zen aita, hango gizonak apain uzteko ardura zuen-eta", dio Nikolas Ugartek; bizargin lanetan 54 urte bete ostean orain dela bost urte erretiratu zen. Doroteo zen Nikolasen aita; hark hasi zuen ofizioa: "Soldadutzara joan zenerako aprendiz zegoen ile-apaindegi batean, han ikasi zituen ofizioaren nondik norakoak. Eta soldadutzan zegoela barberu lanetan jardun zuen".



Nikolas Ugarte, barberuaren aulki gainean eserita. | IMANOL BELOKI

### Labana eta aitzurra

Sasoi bateko lan-tresna asko dituzte gordeta ugartetarrek: brotxa, labanak, xaboia emateko konketa, aitzurra, orraziak eta artaziak… "Aitzurra da gehien erabili izan dena bizarra mozteko, baina sasoi baten labana ere asko erabiltzen zen. Labana erabiltzeko ohitura handia zegoen, batez ere, etxean bizarra kentzen zutenen artean", argitu du Nikolasek. Labana haiek mantentze-lana behar izaten zuten gero: "Olio apur bat bota eta zorroztu egin behar izaten ziren". Alkate izan zen Reyes Korkostegiren familiakoen tresnen kaxa bat ere badute gordeta: "Euren tresnak zituzten haiek, eta barberuarengana ilea moztera joaten zirenean horiek erabili behar izaten ziren. Izen-abizenen inizialak dituzte tresnek gainean grabatuta, *C.V.;* hau da, Corcostegi Villar. Baliteke 80ren bat urte izatea horiek", azaldu du Nikolasek, eta gaineratu: "On Migel abadeak ere bere brotxa eta labana ekartzen zituen barberuarengana zetorren bakoitzean, bizarra mozteko eta burugaina apaintzeko". Bizarra barberuak moztea oso ohikoa zen orduan, eta domeketan ere lan egiten zuten haiek: "Nik ez, baina aitak bai, domeketan ere berdin-berdin egiten zuen lan, eta gero, astelehenean jai hartu".



Sasoi bateko lan-tresnak. | I.B.

### Hirugarren belaunaldia, Igone

Egun, Igonek jarraitzen du ofizioarekin. "Eskola bukatu orduko sartu nintzen ile-apaindegian, argi nuelako hemen egin gura nuela lan", dio hark, eta gaineratu du: "Emakumeekin probatzeko gogoa nuen eta lehen urteetan biekin jardun nuen. Baina aitak erretiroa hartu zuenean erabaki bat hartu beharra zegoen". Hala, gizonezkoekin bakarrik lan egitea hautatu zuen: "Pena handia ematen zidan ohitura galtzeak, aita beti oso pozik ikusi dugulako barberu lanean; horrek animatu ninduen". Eta dagoeneko bost urte daramatza.

AZKEN BERBA

**ANDER ETXEBERRIA**



## Ageda

Santa Ageda batzen ibili ziren atzo Euskal Herriko bazter askotan taldeak. Gaur Santa Ageda da, beraz. Kuriosoa da eguna baino bezpera ezagunagoa izatea.

Antzinako tradizioa da santuaren omenez koplak kantatzea, kalez kale eta baserriz baserri, dirua eta jakiak biltzeko helburu ezberdinetarako. Beste leku askotan bezala, Arrasaten (gertuen ezagutzen dudan koroa) adin ezberdineko lagunak elkartzen dira kantuan egiteko. Badaude horien artean hirurogei urte baino gehiago daramatzatenak jardunean: kontatzen dutenez, garai batean, baserriz baserri Bergara aldera jaitsi eta trenean itzultzen ziren Arrasatera. Trenean? Aspaldikoa da, bai, ohitura.

Erakargarritasun berezia dauka Santa Agedak goizetik gauera kantuan aritzeko. Euria, elurra edo hotza (otsailean besterik ezin espero) ez dira oztopo "Agate Deunaren goraldiak" eta beste abesteko. Batzuek egutegian kolore bereziaz markatuta dute otsailaren 4a: urteko egunik onena.

Ez da harritzekoa, hortaz, Santa Ageda abesbatzak jaso izana iaz herriko taldeak/pertsonak errekonozitzeko Arrasaten banatzen den saria, Maritxu Kajoiko Komisiñuaren saria.


Arrasaten

Benetan pisua galdu nahi duzu?




RPS: 741/13

Rosa Sarabia doktorea

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

PronoKal metodoa
Zientzia eta zorroztasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gose gabezia

Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA
BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetikoa eta kirurgia plastikoa

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.